

eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

HEZKUNTZA  
ETA KIROL  
FAKULTATEA  
FACULTAD  
DE EDUCACIÓN  
Y DEPORTE

# Lehen Hezkuntzako tutorea aztertzen

## GRADU AMAIERAKO LANA

**EGILEA:** Iparragirre Gutiérrez, Iñaki.

**ZUZENDARIA:** Barandiaran Amarica, Asier.

**2019-2020**

## LEHEN HEZKUNTZAKO TUTOREA AZTERTZEN

Iñaki Iparraguirre Gutiérrez

EHU/UPV

Aztertze lan honen xedea, Lehen Hezkuntzako tutorea aztertzea izan da, hots, gaur egun Lehen Hezkuntzako ikasgelan egunerokotasunean parte-hartzen duen tutore ororen perfila, berroren funtzioak eta tutorea inguratzen dituen legediak ikertzea izan da. Lehenik eta behin, gaiaren inguruko marko teoriko anitz arakatu da. Puntu honetan, Lehen Hezkuntzako tutoreak Grezia garaitik gaur egunera arte izandako eginbeharren bilakaera historikoaz hitz egiteaz gain, tutorearekin erlazionatutako alderdi ezberdinen (tutorea hitzaren definizioa; ezaugarri pertsonal eta profesionalak; funtzioak; tutoretza eta tutoretza-plana) inguruan ere lan egiten da. Horretarako, metodologia kualitatiboa erabili da. Gainera, datuak jasotzeko tresna moduan erdi egituratua den solasaldia jorratu da, hau da, guztiei oinarrizko galdera berdinak gauzatu zaizkie, baina ondoren, itaun berriak sortu dira kasuan kasuko. Modu honetan, hizlariak esaniko informazio guztia jaso ahal izan da. Elkarrizketa bi mota ezberdineko hizlariari egin zaie, alde batetik, esperientzia gutxi duten tutoreei (8 urte edo gutxiago irakaskuntzan) eta beste aldetik, esperientzia asko duten tutoreei (32 urte edo gehiago irakaskuntzan), horrela jasotako informazio guztia zehatz-mehatz analizatu ondoren, emaitzak lau taldetan banatu dira. Era berean, emaitza hauek, taula batean modu bisualagoan azaltzeaz gain, idatziz sakonago garatuz ere jaso dira. Azkenik, ateratako emaitzak analizaturik, nahiz eta bi elkarrizketatu perfilen artean ezberdintasun nabarmenik aurkitu ez, ondorio modura ondorengo atera daiteke. Alde batetik, Lehen Hezkuntzako tutorea ikasleriaren garapen integrala (akademikoa eta pertsonala) arrakastatsua izateko ezinbestekoa den gida laguna dela eta beste aldetik, gainontzeko hezkuntza eragileekin betebeharrugari dituela. Bukatzeko, tutoretza hobetzeko asmoz, ikasle talde batekin jorratu daitezkeen hiru proposamen ezberdin aurkezten dira.

*Lehen Hezkuntza; tutore perfila; tutoretza-ekintza; hezkuntza dekretuak eta legeak;  
tutorearen funtzioak*

La investigación realizada se ha centrado en analizar al tutor de Educación Primaria, es decir, el objetivo principal ha sido investigar exhaustivamente el perfil, las funciones y las leyes que le rodean al tutor de Educación Primaria. Del mismo modo, se ha recopilado numerosa información en la fundamentación teórica, tanto en la evolución histórica de la labor del tutor en Educación Primaria desde la época griega hasta la sociedad actual, como los diferentes aspectos relacionados con el tutor (definición, características profesionales y personales, funciones, tutoría o acción tutorial y el Plan de Acción Tutorial). Asimismo, la metodología que se ha utilizado ha sido la cualitativa. La herramienta para recoger los datos ha sido la entrevista semi-estructurada. Aunque se haya utilizado las mismas preguntas principales a todos los participantes, en el transcurso de la entrevista según las respuestas se han realizado nuevas preguntas. De esta forma se ha logrado recopilar la mayor información posible. Tras analizar los datos obtenidos a través de las entrevistas a dos perfiles diferentes, por una parte, tutores con poca experiencia (menos de 8 años en la docencia) y por otra parte, tutores con gran experiencia (más de 32 años en la docencia), se han clasificado los resultados en cuatro categorías representándolos en tablas y redactándolos de manera extensa. A pesar de no haberse encontrado diferencias significativas entre los dos perfiles entrevistados/as, se ha llegado a la siguiente conclusión. Por una parte, que el tutor es un guía importante en la enseñanza de Educación Primaria para el desarrollo integral (académico y personal) exitoso del alumnado y por otra parte, que con el resto de agentes educativos tienen muchos quehaceres. Finalmente, con la mera intención de poder mejorar la tutoría, se plantean tres propuestas para realizar con un grupo de alumnos/as.

*Educación Primaria; el perfil del tutor, la tutoría; las leyes de educación; las funciones del tutor*

## AURKIBIDEA

1. Sarrera.....	5
2. Justifikazioa.....	6
3. Marko teorikoa .....	7
3.1. Bilakaera historikoa .....	7
3.1.1. Testuinguru historikoa .....	7
3.1.2. Hezkuntza legeak .....	9
3.2. Lehen Hezkuntzako tutorea.....	12
3.2.1. Tutorea hitzaren definizioa.....	12
3.2.2. Ezaugarri pertsonal eta profesionalak .....	13
3.2.3. Funtzioak.....	14
3.2.4. Tutoretza-ekintza edo tutoretza.....	16
3.3. Tutoretza-plana.....	18
3.3.2. Tutoretza-planaren zehaztapena .....	18
3.3.2. Tutoretza-planaren helburuak.....	19
4. Metodologia.....	20
5. Lanaren garapena .....	22
5.1. Helburuak zehazten.....	22
5.2. Parte-hartzaileak.....	22
5.3. Datuak jasotzeko tresna.....	22
5.4. Prozedura, elkarrizketak egiten .....	24
5.5. Jasotako datuak aztertzen .....	24
6. Lanaren emaitzak .....	25
6.1. Lehen Hezkuntzako tutore ororen perfila.....	25
6.1.1. Tutorearen izaera.....	25
6.1.2. Ikasleriarekiko harremana.....	25
6.1.3. Ezaugarri pertsonal eta profesionalak begira.....	26
6.1.4. Formakuntzak edo antzekoak.....	26
6.1.5. Garapen prozesua .....	27
6.2. Tutoreak bete beharreko funtzioak eta eginbeharrak.....	27
6.2.1. Ikasleriarekiko eginbeharrak.....	27
6.2.2. Irakasleriarekiko (irakasleak, espezialistak, PT-ak...) eginbeharrak.....	28
6.2.3. Gurasoekiko eginbeharrak.....	28
6.2.4. Eginbeharreko garapen prozesua .....	28

6.2.5. Ikasleriarekin jorratzen diren alderdiak .....	28
6.2.6. Curriculumaren erabilpena.....	29
6.3. Tutoretza-ekintza edo tutoretza.....	29
6.3.1. Ikasleriaren beharrei erantzutea.....	29
6.3.2. Tutoretza-ekintzaren arduraduna .....	30
6.3.3. Hezkuntza eragileek duten inplikazioa.....	30
6.3.4. Hezkuntza eragileekiko harremana.....	30
6.4. Tutoretza-plana.....	31
6.4.1. Erabilpena .....	31
7. Ondorioak.....	32
8. Mugak eta hobekuntza proposamenak.....	37
9. Erreferentziak.....	38
ERANSKINAK .....	41
1. eranskina. Lehen Hezkuntzako tutorearen bilakaera historikoaren laburpena. ....	42
2. eranskina. Tutoretza-plana urratsez urrats.....	43
3. eranskina. Lehen Hezkuntzako tutorearen kontzeptu ezberdinen laburpena. ....	44
4. eranskina. Elkarrizketetan egingo diren galderak. ....	45
5. eranskina. Konfidentzialtasun hitzarmena. ....	47
6. eranskina. Lorturiko emaitzak taulan bilduta. ....	48
7. eranskina. Bakarkako elkarrizketako fitxa. ....	51
8. eranskina. Ikasleek soziograma egiteko bete beharreko galderen fitxa. ....	53
9. eranskina. Soziograma egiteko erantzunak erregistratzeko orria. ....	55
10. eranskina. Soziograma.....	56
11. eranskina. Emozioen kutxa.....	57
12. eranskina. Elkarrizketetako transkripzioak. ....	58

## **1. Sarrera**

Nire Gradu Amaierako Lan (Gral) honetako izenburuak adierazten duen bezala, Lehen Hezkuntzako tutorea aztertzea izan da, hots, gaur egun Lehen Hezkuntzako tutorearen perfilaz, berroren funtzioak eta tutorea inguratzen dituen legediak aztertzea izan da muina. Izan ere, etapa honetan tutoreak duen garrantzia izugarria baita. Azken finean, garai hauetako irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan ikasle ororen garapen integrala eskuratzeko hainbat alderdi (autonomia, jakintzak, baloreak eta abar) lantzea ezinbestekoak baitira.

Gaur egungo Lehen Hezkuntzako tutore ororen perfila zein motatakoa den eta eragile ezberdinekin (ikasleak, irakasleak, familiak...) duen eginbeharrak zeintzuk eta nolakoak diren zehatz-mehatz aztertzea beharrezkoak dira. Horrez gain, gai honen inguruko hezkuntza legeak eta araudiek diotena ere aztertu da, hasteko, estatu mailakoei dagokienak eta ondoren, euskal autonomia erkidego mailakoak.

Horrela, ikerketak lau atal nagusi izango ditu. Lehendabizi, lan honetako gaia hautatzearen ezinbesteko justifikazioa azaltzen da. Segidan, gaia jorratzen hasteko, hainbat eta hainbat liburu, artikulua eta abar irakurri ondoren, marko teorikoa sortuko da. Hain zuzen, bilakaera historikoko testuingurua eta legeak zeintzuk izan diren eta Lehen Hezkuntzako tutorearen inguruko informazioaren edukiak egoki osatuz. Jarraian, metodologiarekin lan egingo da, non, aurrera eramango den metodologia kualitatiboaren adierazpenarekin batera, helburuak, ikerketako parte-hartzaileak, datuak jasotzeko erabilitako tresna, prozedura eta jasotako datuen azterketa zehazten da. Hau guztia egin ondoren, elkarrizketa guztiak transkribatu direnean, emaitza guztiak sakonki analizatu eta modu egoki batean aurkezten dira. Bukatzeko, ondorioei helduko zaie, hala ere, aurreikusi daiteke Lehen Hezkuntzako tutorea ezinbestekoa dela ikasleen garapen integralerako.

Amaitzeko, adierazi beharra dago, Lehen Hezkuntzako tutorearen gaia inondik inola ere ez dagoela amaiturik, beti informazio gehiago arakatu daitekeelako. Hori dela eta, gauzaturiko ikerketa soilik ekarpen bat gehiago izango da.

## **2. Justifikazioa**

Jakinaren gainean nengoen irakaskuntzan tutore izatea oso garrantzitsua dela eta zer esanik ez Lehen Hezkuntzan. Gradu honen aurretik Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien gradua eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko, Lanbide Heziketako eta Hizkuntzen Irakaskuntzako Irakasleen Prestakuntza Unibertsitate Masterra ikasi ditut. Hori dela eta, etapa ezberdinetan irakaskuntza munduarekin erlazionaturiko praktikak egiteko aukerak izan ditut. Batez ere Lehen Hezkuntzari begira, ohartu naiz tutorearen figura beharrezkoa dela ikaslearen irakaskuntza-ikaskuntza prozesua arrakastatsua izateko. Horregatik, tutorearen konpromisoa ikasleriarekiko totala izateaz gain, beti jakinaren gainean egon behar da ikasleak direla guztizko protagonistak eta beraien ezaugarriak errespetatu behar direla.

Gradu Amaierako Lanean jorratuko nuen gaiarekin pentsatzen egon ondoren, erabaki nuen Lehen Hezkuntzako tutorearen perfila eta berronen funtzioak eta legediak aintzat hartzen zuen lan bat jorratzea oso interesgarria eta aberasgarria izan daitekeela. Era berean, alde batetik, irakaskuntza munduan tutorearen perfila eta eginbeharrak zeintzuk diren gertuagotik ezagutzeko aukera ematen didalako, eta beste alde batetik, ikasleen prozesu integralean (akademikoa eta pertsonala) tutorearen lanak nolako garrantzia duen ezagutzeko baliagarria izan daitekeelako. Gainera, hau gutxi ez balitz, etorkizun hurbil batean tutore gisa aritzeko prestakuntza egoki bat jasotzeko aukera aproposa dela iruditzen zait.

Modu berean, tutoreak elkarren artean oso ezberdinak dira, hori dela eta, guztiek ez dituzte ideia berdinak ikasgelan garatzen diren rolez. Jakitun naiz, aspektu hau hainbat arrazoiek mugatzen dutela, hala nola, ikastetxearen izaerak, irakaskuntza munduan daramatzaten urteak, adina, konpromisoa eta abar, baina, ene ustez, nabarmenena, irakasle orok bere lanean duen inplikazioan oinarritzen da. Hau da, tutoreak ikasleria guztien ezaugarriak zeintzuk diren zehatz-mehatz ezagutu beharko ditu, eta horren arabera bakoitzarengana egokien nola iritsi daitekeen pentsatu beharko du.

Hitz gutxitan, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan batzuetan gerta daiteke tutorearen lanari behar adinako garrantzirik ez ematea, bai irakasleek ez diotelako alderdi honi behar besteko atentziorik prestatzen edota curriculumetan zehar tutoretza edo tutoretza-ekintzak ez duelako irakasgaiak duten lain garrantzirik. Aspektu guzti hauengatik, gogotsu sentitzen naiz Lehen Hezkuntzako tutorearen inguruan ikerketa sakon bat egiteko.

### **3. Marko teorikoa**

Gaur egun, tutorearen figurak Lehen Hezkuntzako etapan duen garrantzia ezin da kolokan jarri, hain zuzen, ikaslearen garapen integralaren osotasunerako ezinbesteko bidelaguna baita. Hala ere, tutorearen rola eta tutoretza edo tutoretza-ekintzaren izendapena nahiz zeregina denborak aurrera egin eta hezkuntza legeak aldatu ahala, eraldatzen joan dira. Adierazi beharra dago, Álvarez eta Bisquerrak (2012, in González eta Vélaz de Medrano, 2014) esaten duten bezala, tutoretza eta tutoretza-ekintza terminoen artean ez dago inolako desberdintasunik, hori dela eta, bata edo bestea erabil daiteke. Are gehiago, lan hau modu egokian aurrera eramateko hainbat liburu, artikulu, eta abar irakurri ostean, baieztatu dezaket bi terminoen artean ez dagoela inolako desberdintasunik. Horrela ba, gradu amaierako lan honetan zehar, eduki beraz hitz egiterako garaian, termino bat zein bestea erabiliko da.

Marko teorikoa bilakaera historikoarekin batera martxan jarriko da, hain zuzen, testuinguru historikoa eta hezkuntza legeak analizatuz. Jarraian, Lehen Hezkuntzako tutorearen inguruko alderdi anitz arakatu ondoren, lanaren lehen atala tutoretza-plana aztertuz itxiko da.

#### **3.1. Bilakaera historikoa**

Marko teorikoaren lehenengo atal honetan, alegia, bilakaera historikoari dagokiona, lehenik eta behin tutorearen inguruko testuinguru historikoa landuko da. Behin hau jorraturik, hezkuntza lege ezberdinak aztertuko dira, hasteko estatu mailakoetan (EAO) zentratuz eta ondoren autonomia erkidegoko mailakoekin (EHAA) jarraituz.

##### **3.1.1. Testuinguru historikoa**

Historiari erreparatuz, Grezia, Erroma, Erdi Aro, Aro Moderno eta Aro Garaikidean, tutorearen irudia zein honen eginbeharrak pixkanaka eraldatzen joan dira. Alegia, etapa bakoitzean gizartearen beharrak eta testuingurua aldakorra izanik, garaian garaiko autoreek tutorearen gaia modu desberdinean islatu eta definitu izan dute.

Horrela, Negrin eta Vergara (2009) egileek azpimarratzen duten moduan, greziarrek pentsatzen zuten, gizakia pertsona bezala modu zuzen batean hezteko, elkar lagunduaz era kolektibo batean bizi behar zela eta ez indibidualean sozietatetik isolatuz. Gainera, garai honetan zehar, irakaskuntza norabide bakar batean oinarritzen zen, hau da, jakintza guztiak pedagogoaren <sup>1</sup> erabakietan oinarritzen ziren, bera baizen ikasleen ikaskuntzaren arduraduna (González eta Vélaz de Medranok, 2014).

---

<sup>1</sup> Garai haietako pedagogoaren figura ez da gaur egun ezagutzen duguna, familiako konfiantzazko esklaboak izaten baitziren. Hala ere, jada Plutarco etapa honetan familiei jakinarazten zien zer nolako arriskua izan zezaketen pedagogo onak ez hautatzea (Negrín, 2012).



Urteak aurrera egin ahala, erromatarren garaira helduz, eskolei ikasleak bizitzarako era egoki batean prestatzera behartzen zitzairen, formakuntza batez ere morala eta kulturala izanik. Hots, ezagun dugu transmisioan praktikotasuna bilatzen zela nagusiki. Era berean, haurren bizitzako lehenbiziko urteetan familia orok beraien heziketa-prozesuan eragin eta erantzukizun osoa hartzen zuten, giza legeak, balore egokiak eta historia transmitituz, etorkizunerako baliagarriak izango zirenak (Negrín eta Vergarak, 2009). Hori dela eta, familien inplikazioa haurren garapen integralerako ezinbestekoa zen.

Jarraian, mendebaldean, erromatarren inperioaren erorketaren ondoren, Erdi Aroa iritsi zen. Etapa honetan, ikasle bakoitzari gizartean zuen maila sozialaren arabera hezkuntza eskaintzen zitzaion, bestalde, irakaskuntza elizen esku gelditu zen. González eta Vélaz de Medrano (2014) autoreek azaltzen duten moduan, tutoretza ikaskuntzaren prozesurako laguntza gisa garai honetan zehar sortu zen, hau da, Erdi Aroan.

Era berean, denbora pasatzearekin batera, Aro Modernoa iritsi zen. Konkretuki XVI. mendean, Juan Huarte de San Juanek (González eta Vélaz de Medrano, 2014; Negrín, 2012), tutoretzak edo tutoretza-ekintzak ikasgelako ikasle guztien ezaugarriak kontuan hartu behar zituela azpimarratu zuen, hots, irakaskuntza ikasleen nortasunaren arabera izan behar zuela.

Aro Modernoa atzean utzi ondoren, XIX. mendetik aurrera Aro Garaikidea iritsi zen. Etapa honetan, gutxika, hezkuntza-prozesua ulertzeko eredu eta planteamendu ezberdinak sortu ziren, nahiz eta gehienek argi izan irakaskuntzaren ardatz printzipalean umea zegoela eta irakaslea soilik prozesuaren parte-hartzaile bat zela. Eskola mota horietan metodologia tradizionala apurtzeko helburua izateaz gain, hauexek ziren irakasleek/tutoreek bultzaturiko printzipio nagusienak (Negrin eta Vergara, 2009):

- Ikasleen indibidualtasuna errespetatzea.
- Ezagutzak eraikitzerako garaian ikasleen interesak aintzat hartzea.
- Lan kooperatiboa sustatzea.
- Ikasleen irakaskuntza-ikaskuntzako prozesuaren bideratzailea izatea (gida-laguna).

Gaur egun, hobetzeko helburuarekin, hezkuntza munduan tutoretza eta tutorearen rola uneoro birplanteatzen den kontu bat da. Hala ere, paragrafo hauek ikuspegi historikoaren hurbilketa orokorra besterik ez da izan.

### 3.1.2. Hezkuntza legeak

#### 3.1.2.1. Estatu mailan <sup>2</sup> (EAO)

Estatu mailako hezkuntza legeei buruz mintzatuko dira hurrengo paragrafoak, alegia, BOE (Boletín Oficial del Estado) baina euskaratutako EAO (Estatuko Aldizkari Ofiziala) izango litzatekeena. Horretarako, gaur egun arte egon diren legedia guztia kontuan edukiko da.

Frankismoaren azken urteetan, 1969an, Europako hainbat herrialderekin alderatuta, Espainiak eskaintzen zuen hezkuntza atzeraturik gelditzen ari zela ohartu ziren. Hori dela eta, “*El Libro Blanco de la Educación*” txostena garatzea erabaki zuten. Orri hauetan zehar Espainiako gobernuak eta UNESCO kontseiluak estatuko hezkuntzaren egoera sakonki aztertu zuten (González eta Vélaz de Medrano, 2014; Negrin, 2012). Behin ikerketa emaitzak analizatu ondoren, aurkituriko gabezi guztiak kontutan izanik, 1970ean LGE, *Ley General de Educación*, (14/1970 legea) legea martxan jarri zen. Hainbat eta hainbat neurri hartu ziren, besteak beste, hezkuntzako etapei dagokienez, ondorengoak izan ziren: ikasgela bakoitzean tutore bat izatea; hezkuntza pertsonalizatzea; 6 urtetik 14raino eskolaratzearen derrigortasuna; eta irakasleen arteko koordinazioa bultzatzea. Era berean, LGE-ko legean irakur daiteke, tutoretza, hezkuntzako maila guztietan ezarri zela, “la orientación educativa y profesional deberá constituir un servicio continuado a lo largo de todo el sistema educativo, atenderá a la capacidad, aptitud y vocación de los alumnos y facilitará su elección consciente y responsable” (LGE, 1970, 12528. or.).

Halaber, denboraren poderioz, González eta Vélaz de Medranok (2014) esan bezala, 1970eko LGE legea zaharkiturik nahiz erroturik gelditu zen irakasleriaren prestakuntza ezagatik. Gainera, zail xamarra izan zen legean ezarritako alderdi gehienak era egokian aurrera eramatea, esaterako, tutoretza. Hala ere, nahiz eta LGE diktadura garaiko legea izan, adierazi beharra dago, hezkuntzan ekarpen interesgarriak egin zituela, hala nola, ikastalde bakoitzak tutore bat izatea edo zikloen arteko lotura egotea (hezkuntza ikuspegi integrala), Espainiako historian, alderdi hauek hezkuntzako lege batean azaltzen ziren lehen aldia baitziren.

Urteak aurrera joan ahala, 1978ko konstituzioaren ondoren, 1980. urtean, demokraziako hezkuntzako lehenengo lege organikoa ezarri zen, konkretuki, LOECE, *Ley Orgánica Reguladora del Estatuto de Centros Escolares* (5/1980 legea). Lege organiko honetan zehar, tutoretza edo tutoretza-ekintzari dagokionez, orientazioa eta tutoretzarekin loturiko funtzioen koordinazioaren aipamena soilik jaso zen.

---

<sup>2</sup> Orain arte ikuspegia historikoa landu bada ere, hurrengoko puntuetan analisisia lege eta dekretuetan oinarrituko da. Hala ere, testuinguru historikoa eta lege zein dekretu denen datuak, 1. eranskinean, taulan modu labur batean jasota daude.

1980ko legea albo batera utzi eta 1985. urtean, Espainian, LODE, *Ley Orgánica del Derecho a la Educación* (8/1985 legea) martxan jarri zen. Horrela ba, lege honek, ikasle ororen egoera edozein izanda ere, oinarritzko doako hezkuntza jasotzearen aldarrikapena egiten zuen. Baita, tutoretza-ekintza eta ikasleei eskainitako tutoretza, hezkuntza eragile ororen ardura zela ere.

Bost urte geroago, konkretuki, 1990ean, LOGSE, *Ley Orgánica de Ordenación General del sistema Educativo* (1/1990 legea) legea sortu zen, zeinetan, gidaritza eta tutoretza-ekintza kalitatezko hezkuntzarako nahitaezkoa, irakasle guztien zeregina eta ikasleen eskubidearen ideia bermatzen zuen. Horrez gain, LOGSE legeak adierazten zuen, hezkuntza-ekintza modu egoki, arrakastatsu eta integralean garatzeko, ikasle bakoitzaren formakuntza pertsonala izan behar zela, hau da, hauen jakintzak, abileziak eta balore moralak zuzenki hornitzeko, eremu sozial, pertsonal, familiar eta profesionalak kontuan hartu behar zirela.

Ondoren, 2002. urtean LOCE, *Ley Orgánica de Calidad de la Educación* (10/2002 legea) legea sortu zen. Hala eta guztiz ere, urte honetan gobernu aldaketa egon zenez, lege honetan zehar azalduriko aspektuak inoiz ez ziren martxan jarri. Nahiz eta, lege honetako 56. artikuluan zehar tutoretzak bere garrantzia zuela irakur daitekeen, “La tutoría de los alumnos para dirigir su aprendizaje, transmitirles valores y ayudarlos, en colaboración con los padres, a superar sus dificultades” (LOCE, 2002, 45203. or.).

Jarraian, lau urte geroago, 2006an, LOE, *Ley Orgánica de Educación* (2/2006 legea) legea martxan jarri zen. Azpimarratu beharra dago, lege berri honek, aurrekoan aipaturiko zenbait ideia bermatzen zituela, hots, tutoretza-ekintza kalitatezko printzipioa izateaz gain, irakasle guztien zeregina zela, ez soilik tutorearena. Horregatik, elkar ulertzen lan egitera bultzatzen zituen lege honek. Horrez gain, tutoretza eta gidaritza ikasleen hezkuntza integrala lortzeko tresnatzat hartu behar zela ere zioen. Aipatutakoaz gain, LOE legean, gelako ikasleriaren aniztasunari nola eta noiz erantzun behar zitzaion ere mintzatzen zen.

Azkenik, 2013. urtean, gaur egun indarrean dagoen legea ezarri zen, hau da, LOMCE, *Ley Orgánica para la mejora de la Calidad Educativa* (8/2013 legea) izenekoa. Lehen Hezkuntzako tutoretza-ekintzari dagokionez, LOE legean zuen garrantzia berdina izaten jarraitzen du.

### **3.1.2.1. Autonomia erkidego mailan (EHAA)**

Estatu mailako legedia aztertzen amaitu ondoren, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariaren (EHAA) laguntzaz, Euskal Herrian historian zehar ezarri den legediari helduko zaio. Euskal eskolei dagokienez, pixkanaka, publiko bilakatzen hasiak ziren. Era berean, 1993. urtean Euskal autonomia erkidegoak hezkuntzako curriculum propioa (1/1993 legea)

sortu zuen, hots, Euskal Eskola Publikoari buruzkoa. Bertan, metodologia aktibo eta malguen bidez, kalitatezko hezkuntza ezartzearekin batera, ikasle orori, bere garapenarekin loturiko alderdi guztietan (pertsonala zein akademikoa) lagundu eta gidatu behar zitzaiola argi azaltzen zen dokumentuan.

Horrez gain, 1993. urteko curriculumeko 35. artikuluan, irakasle guztiek talde lanean ebaluazio irizpideak zehazteak eta koordinatzeak garrantzia handia zutela azpimarratzen zen. Era berean, tutoretza eta gidaritza arrakastatsu bat aurrera eramateko, eginbeharrak planifikatu eta zuzentzearen garrantziaz ere mintzatzen zen.

2007. urteko dekretuarekin batera, Euskal Herrian curriculum berri bat (175/2007 dekretua) sortu zen. Dokumentu honetan zehar, azken curriculumarekin alderaturik, tutoretza eta gidaritzari buruzko informazio gehiago eta sakonagoa azaltzen zen. Konkretuki, txosteneko 23. artikulua “tutoretza eta orientazio-arloa” du izenburua. Bertan, bai gidaritza eta bai tutoretza-plana etengabekoak izateaz gain, ikasle ororen eskolaldiaren prozesu osoan zehar iraun behar zuela azpimarratzen zen. Gainera, tutoretza, tutoreak eta ikasle-talde berdinean jarduten zuten eragile guztien ardura zen. Horrez gain, ikasleen gaitasun ezberdinak ebaluatzerakoan, tutoreak eta talde berdinetik pasatako irakasle guztiek egingo zutela aipatzen zen. Amaitzeko, tutoreak irakasle taldearen aholkuak jasota, ikasle bakoitzaren eskola txostena egitea zehazten zen. Alegia, txosten hauek guztiz isilpekoak ziren eta etapa bakoitzaren amaieran ikaslea gidatzeko eta gurasoei beraien seme-alaben hezkuntza-prozesuaren berri emateko egiten ziren.

Hiru urte geroago, zehazki 2010. urtean, Euskal Herrian dekretu berri bat (97/2010 dekretua) ezarri zen martxan. Soilik hiru urte igaro ziren azken curriculumetik, hori dela eta, Lehen Hezkuntzako tutoretzaren alderdiari zegokionez, ez zeuden aldaketa nabarmenik. Curriculum honetan ere, tutoretzak garrantzia berdina izaten jarraitzen zuen.

Azkenik, gaur egun, 2015. urtean sortu zen dekretua dago martxan, alegia, *Heziberri 2020* (236/2015 dekretua) deiturikoa. Dekretu honetan zehar, aurreko dekretuekin alderaturik, ez dira aldaketa handirik. 35. artikuluan ikus daitekeen bezala, beste dekretuetan zehar azalduko birgogoratzeaz gain, hainbat aspektu berri gehitzen dizkio. Hala nola, tutoretzak ikasleari gelatik kanpo bizitzen ikasteko lagundu behar diola irakur daiteke. Gainera, tutoretza ekintzaren arduradunak irakasleria guztia izan arren, ikasleen arduradun nagusia tutorea bera izango da. Azkenik, tutoretza-plana, ikaskuntza-prozesuan parte-hartzen duten kide-talde guztien laguntzarekin eraikiko da, betiere kontuan edukiz eta errespetatuz ikastaldearen ezaugarriak zeintzuk diren. Horrela ba, taldekako tutoretza saioetan edukiak lau ardatz ezberdinen arabera antolatuko dira. Ikasleen beharrei eta interesei egokitu ahal izateko, multzo bakoitzeko edukiak ezberdinak izango dira. Ardatzak ondorengoak dira:

- Garapen pertsonala.
- Besteekiko harremanak.
- Orientazio akademiko-profesionala.
- Ikaskuntza-prozesuak.

### **3.2. Lehen Hezkuntzako tutorea**

Lehen Hezkuntzako etapan, ikasleek eskolan igarotzen duten asteko ordu gehienak tutorearekin igarotzen dituzte, zenbait saio izan ezik, adibidez; gorputz hezkuntza, musika, eta ingelesa. Izan ere, gazteentzako tutorearen figura garrantzitsua da, hauentzako erreferente nagusia baita. Gainera, tutorea ikasleen prozesu integralerako (pertsonala eta akademikoa) ezinbestekoa da. Alegia, tutorea era indibidual zein taldekoan, ikasle guztiei beharrezko laguntza eta arreta pertsonalizatua emateko beharzagatik sortua izan zen. Helburua nagusia, ikasle bakoitzaren garapena ahalik eta osoena eskuratzea izanik.

Ondorengo puntuetan zehar, Lehen Hezkuntzako tutorearekin erlazioatuko hainbat kontzeptu teoriko zehatz-mehatz jorratuko dira.

#### **3.2.1. Tutorea hitzaren definizioa**

Tutorea hitza orokorrean, beti ere hezkuntzaren alderdiari dagokionez, zehazki zer den azaltzeko definizio ugari aurki daitezke, batzuk elkarren antzekoak izan daitezkeenak eta ostera, beste batzuk, guztiz ezberdinak direnak. Hala ere, ondorengo autoreek, tutore izateak bere osotasunean zer esan nahi duen ondo azaltzen dute:

- Ortegak (1994, in González eta Vélaz de Medrano, 2014), tutoreari egokituriko ikastaldearen garapen integralaz (pertsonala eta akademikoa), hezkuntzaz, gidaritzaz eta ikaskuntzaz arduratzen dela dio. Baita ere, tutoreak, ikasleak bizi diren testuingurua ezagutu eta kontuan eduki beharko du, hau da, eskola eta familia.
- Lázaroren (1997, 240. or.) esanetan, tutorea ondorengo da:

El tutor ejerce como vigilante constante, asesorando y orientando las decisiones del sujeto, indicando las conveniencias y desventajas de las decisiones a adoptar, tomando como referentes la situación y características del sujeto y las opciones del currículum, orientando y asesorando aquello que estima más para el desarrollo y bien de la persona.<sup>3</sup>

- Tutorea ikasleen erreferentea dela diote Giner eta Puigardeuk (2008). Era berean, ikasleei denbora tarte jakin batean zehar, hezkuntza pertsonalean laguntzen dien pertsona bat da. Hori dela eta, tutoreak ikasleekin gertuko den erlazio bat sortu

---

<sup>3</sup> Lázaroren azalduko definizioaren kasuan, tutorea zer den eta aurrera eramane beharrezko eginbeharrak nahasten dituela dirudi. Hala ere, gai honetan oso autore aipatua denez, bere hitzak jasotzea interesgarriak dira.

beharko du. Horrez gain, tutoretza ikasgelatik igarotzen diren irakasleria guztiaren ardura da.

- Artigot (1973, in Morales, 2010, 99. or.) autoreak, tutorea zer den honela definitzen du: “el experto cuya principal misión es ocuparse de la integración del alumnado en lo que se refiere a su escolaridad, vocación y personalidad”.
- Del Pozorentzat (2011), denbora batez, ikasle talde konkretu bateko arduraduna izango da tutorea. Hainbat irakasgaien edukiak irakasteaz gain, ikasleengan garapen pertsonal orekatua lortzen eta bizitza komunitarioan modu eraginkorren parte-hartzen laguntzen die, beti ere bakoitzaren ezaugarri pertsonalak kontuan izanik. Hori dela eta, hezkuntza arrakastatsuen oinarria, ikasleak modu indibidualean ahalik eta gehien ezagutzea da.

Aipaturiko autore ezberdinen definizioak kontutan hartuz, Lehen Hezkuntzako tutorearen definizioa sortu daiteke. Alegia, argi gelditu da, Lehen Hezkuntzako tutorea, denbora tarte jakin batean zehar, ikasle talde baten arduradun gorena dela. Gainera, tutore izateak ez du esan nahi soilik ikasleen emaitza akademikoengatik kezkatzen dela, beraien garapen-prozesuan loturiko alderdietan (pertsonala, akademikoa, soziala eta abar) esku hartzen, zuzentzen eta gidatzen ere aritzen baita. Horrela ba, ikasgelan zein ikasgelatik at izaten diren arazo edo zailtasun unek hautematen eta analizatzen ditu ondoren irtenbide egokiena ematen laguntzeko asmoz. Bestalde, nahiz eta ikasleek denbora gehiena tutorearekin igaro, ikasle bakoitzaren garapen integralaz hitz egiteko, ikasgelan parte-hartzen duten irakasle zein espezialista guztiekin koordinatzen da. Amaitzeko, egun ikaslearen garapena arrakastatsua izateko, eskolak eta familiek norabide berean arraun egin behar dute, tutoreak familiekin eta alderantziz gertuko erlazioa edukiz ikaslearekin loturiko informazio guztia elkartrukatzeko.

### **3.2.2. Ezaugarri pertsonal eta profesionalak**

Ikasle bakoitzaren garapen integrala lortzeko, Lehen Hezkuntzako tutore orok norberaren lana modu egokian aurrera eramateko, Mañu (2006) autoreak adieraziriko ezaugarriak kontuan hartzea interesgarriak izango litzateke. Hau da, LH-ko tutoreak hainbat ezaugarri pertsonal eta profesional eduki behar ditu, zehazki, besteak beste, ondorengoak izango direnak: heldutasun eta egonkortasun emozionala izatea; enpatia; malgua; asertiboa; arduratsua; motibatzailea; laguntzailea; sortzailea; jarrera positiboa edukitzea; berritzailea; arazoen bideratzailea; komunikatzeko gaitasuna; ikasleari konfiantza transmititzea; ikasleen artean bereizketarik ez egitea; azaldu beharreko edukiak kontrolatzea; gainontzeko irakasleekin eta espezialistekin koordinatzen jakitea; eta curriculumarekin loturiko kontzeptuak menperatzea. Hitz gutxitan, tutorea ikasleen eredua izateaz gain, beraien

garapen integralerako funtsezko gida-laguna denez, ikasgelan ezaugarri pertsonal zein profesional hauek guztiak kontuan edukitzea ezinbestekoa da.

### **3.2.3. Funtzioak**

Funtzioei dagokienez, Lehen Hezkuntzako tutoreak bere gain ardura nahiz erantzukizun asko ditu betetzeko. Egia da, lan zama handia den arren, egin beharreko zenbait funtzio, beste edozein irakasleren antzekoak direla, adibidez: eskolan kalitatezkoa den hezkuntza eskaintzea; ezagutzak zehaztea ikasleen beharrak, ezaugarriak eta zein kurtsotan aurkitzen diren kontuan edukita; ikasturtearen ebaluazioa jarraitua egitea feedbackak behin eta berriro emanda; eta azkenik, talde osoaren garapen integralean gida-laguna izatea.

Tutoreari dagokionez, beregan aurkitzen diren zeregin nagusienak Martínez, Quintanal eta Tellezen (2002, in González eta Vélaz de Medrano, 2014) arabera ondorengo hirurak izango lirateke:

- Diagnostika; irakasle, ikasle eta familiarekin erlazionaturiko informazio guztia biltzea.
- Funtzio esku-hartzailea; arazoa konpontzeko ekintza garatzen da, non ikasleen beharrak, ezaugarriak eta nahitaezko baliabideak kontuan hartzen diren, baita ere, hezkuntza erantzun pertsonalizaturako erabilitako helburuak eta metodologia ebaluatzea.
- Funtzio koordinatzailea; tutoretzan parte-hartzen duten eragile guztiei modu egoki batean aholkatzea.

Azalduriko egileen funtzio orokor horietaz gain, Lehen Hezkuntzako tutoreak zenbait funtzio zehatzagoak ere baditu. Alegia, tutorearen eginbeharra ez da soilik ikasleengan mugatuko, baizik, hezkuntzan parte-hartzen duten eragile guztiak ere garrantzitsuak izango dira, hala nola, beste irakasleak edota familiak. Horrela ba, kontuan edukiz zein den aurrean aurkitzen den hartzailea, tutorearen zeregina eta komunikatzeko modua aldakorra izango da. Zehazki, tutorea etengabeko harremanetan arituko da hiru hartzaile ezberdinekin, hau da, ikasleekin, irakasleekin eta familiekin (Fernández eta Lozano, 2015).

Hasteko, ikasleei dagokionez, tutorearen helburua beraien garapenari loturik dauden aspektuei kasu egitea da. Hori dela eta, ezinbestekoa bihurtzen da tutoreak ikasle orok dituen beharrak ezagutzea bai ikasgela barnean eta baita kanpoan, horrela bakoitzari bere garapen pertsonala modu zuzenean eraikitzen lagunduko dio (González eta Vélaz de Medranok, 2014).

Hortaz, Ceballos, Sevilla eta Tena (1998) autoreen iritziz, tutorearen zeregin nagusiak ikasleekiko ondorengoak dira: ikasleak eskolan nahiz lagun taldeetan ondo integratzen laguntzea; ikasle bakoitzaren eta taldearen ikasketa-prozesuaren jarraipen zehatza egin

zailtasunen bat egonez gero garaiz hautemateko; ikasgelan talde dinamikak egiterakoan guztien parte-hartzea bultzatzea; eta arazo edo kezka ezberdinak entzun edo identifikatuz gero, beharrezkoak diren aholkuak ematen jakitea. Horrela ba, aholku hauek, kasu bakoitzaren arabera modu ezberdinean eramango dira aurrera. Alegia, talde osoari eragiten dionean, taldeko tutoretzatan landuko dira, ostera, arazoa edo kezka indibiduala denean, tutoreak une egokia aukeratuz ikaslearekin modu pertsonalean landuko da.

Bestalde, irakasleriari erreparatuz, Moralesek (2010) egoki azaltzen duen moduan, beharrezkoa da ikastalde berdinean parte-hartzen duten irakasle zein espezialisten arteko elkarlana, koordinazioa eta kolaborazioa indartzea, beti ere tutoreak markaturiko jarraibideen gidaritzapean. Modu honetan, ikasleen garapen integrala eraginkorragoa eta aberasgarriagoa izatea lortuko da. Era berean, irakasleria uneoro informaturik egoteko, bilerak sarri egiteak berebiziko garrantzia izango du.

Zehazki, esparru honetako koordinazioan tutorearen zereginak honako hauek dira (Amaiz e Isús, 1995; Ceballos, Sevilla eta Tena, 1998):

- Talde berdinean jarduten duten irakasleekin maiz biltzea, ikasleen inguruko informazioa eta ebaluazio-prozesuari buruzko informazio elkartrukatzeko, bai modu bakarkakoari dagokiona eta zein taldekoari.
- Irakasle guztien laguntzarekin curriculumean eta programazioetan egokitzapenak egin.
- Gelan martxan egongo den programazioa koordinatzea.
- Tutoretza-plan egokiena zein den adostea ondoren aurrera eramateko.

Azkenik, tutoreak hartzaile moduan familia izanik, Canok (2013 in González eta Veláz de Medrano, 2014, 72. or.) esandako hitzak gogoratu behar dira: "la tarea del tutor, como mediador educativo, adquiere pleno sentido en su compromiso de ayuda y asesoramiento a los padres sobre temáticas que afectan al desarrollo escolar y académico de sus hijos". Canok esan bezala, tutorea, familien eta eskolako eragile ezberdinen arteko bitartekaria da. Baita ere, familia beraien seme-alaben ikasketa-prozesuaren eta laguntzarekin loturiko ekintza ezberdinetan parte-hartzera bultzatzen duena. Era berean, tutorea familiekin etengabeko harremanetan egotea ezinbestekoa da, ikasleak gehiago ezagutzeko aukera emango baitu eta ondorioz jasoko duten hezkuntza hobea izango baita.

Familiekin jarraituz, tutoreak izan beharreko funtzioak alderdi honetan, Ceballos et al. (1998) eta Galve eta García (1992) autoreek adierazitakoa burutzea beharrezkoa izango litzateke: ikasgelako ikasle guztien familiekin gertuko harremana izatea, alegia, informatuta mantentzea beraien seme-alaben ikasketa-prozesuarekin eta edukitako jarrerarekin; familiak



aholkuak behar ezkeru, beraien zalantzak edo kezka (portaera, ikasketa arazoak...) adi entzun eta ondoren erantzun egokiak helarazi; familiaren kolaborazioa bultzatzea eskolan burutzen diren ekintzetan nahiz beraien seme-alaben ikaskuntza-prozesuan aktiboki inplikatzen; ikastaro ezberdinak eskaintzea hezkuntza zereginak errazteko; eta familiekin edo gizarte-zerbitzuarekin (kasu zehatzetan) gertuko harremana edukitzea ikasleen errealitatea zein den zehatz-mehatz ezagutzeko.

Laburbilduz, aztertutako alderdi guztiak kontuan edukiz, Lehen Hezkuntzako tutorearen funtzioak ondorengoak lirateke:

- Ikasleen garapen integral guztian zehar beraien gida-laguna izatea.
- Ikasle ororen zailtasun eta gabeziak hautematea ondoren irtenbide zuzenena ematen laguntzeko.
- Ikasleen ezaugarriak kontuan hartzea jaso beharreko hezkuntza beraien mailara egokitzeko.
- Gela berean parte-hartzen duten irakasle zein espezialistekin elkarlanean, koordinazioan eta kolaborazioan aritzea, ikasleen inguruko informazioa partekatzeko eta hezkuntza-ekintzak aurrera eramateko.
- Uneoro ikasleen familiekin harremanetan egotea, alde batetik beraien seme-alaben inguruko informazioa elkartrukatzeko eta bestetik, eskolan egiten diren ekintzetan beraien parte-hartze aktiboa bultzatzeko.
- Tutoretza-plan egoki bat garatu ikasturte hasieran martxan jartzeko.

Hitz gutxitan, ikaslearen garapen integralerako, tutoreak eskolan betetzen dituen funtzioak hiru hartzailerekin (ikasleak, irakasleak eta familiak) eraikitzea ezinbestekoa da, nahiz eta zenbait pertsonak agian horrela ez pentsatu.

### **3.2.4. Tutoretza-ekintza edo tutoretza**

Tutoreak izan beharreko funtzioak alde batera utzita, tutorearen eginbehar nagusienetarikoa bat tutoretza-ekintza edo tutoretza ikasgelan aurrera eramatea izango da. Marko teorikoaren hasieran aipatu den bezala, Álvarez eta Bisquerrak (2012, in González eta Vélaz de Medrano, 2014) esanikoa gogoratuz, bi terminoak sinonimoak dira, horregatik, bata zein bestea nahieran erabil daitezke.

Asensi eta Lázaro (1988, in Lázaro, 2008) dioten moduan, tutoretza, ikastaldeko ikasleen jardueraren oro gidatzea, osatzea eta dinamizatzea da, bai modu bakarkakoan zein taldekoan. Era berean, tutoretza-ekintzak, ikasgelako aniztasunari erantzuten dio, oro har ikasleak eskolaz kanpoko bizitzarako prestatzen ditu eta ikasle bakoitzaren nahiz talde osoaren

garapen integrala esparru guztietan (pertsonala, soziala, afektiboa...) aurrera eramateaz arduratzen da (Morales, 2010). Lehen Hezkuntzako tutoretzari dagokionez, etapa honetan zehar tutorea etengabeko behaketak egiten aritu behar da. Hau da, ikasleak arrazoimena lantzen hasten dira eta beraz beraien bizitzako lehen zalantzak eta arazoak sortuko dira, hori dela eta, hauek garaiz bideratzea ezinbestekoa da aipatutako behaketaren bidez.

Era berean, Fernández eta Lozanok (2015) esaten dutenari erreparatuz, tutoretza ez da tutorearen ardura soilik izango, hots, ez da gertaera isolatu bat, non, jarduerak eta aspektu ezberdinen gidaritzak berak bakarrik eramaten dituen aurrera. Alegia, nahiz eta bere ikasleengan garrantzia handia duen, ikasle-talde berdinetik igaro eta hezkuntza-prozesuan eragina duten irakasleak, espezialistak eta komunitateko partaideak (zuzendaria, ikasketa burua eta abar) ere inplikaturik daude. Prozesua kolaboratzailea da, hain zuzen, hezkuntza eragile guztiek ikaslearen irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan aktiboki parte-hartzen dute (Ceballos, Sevilla eta Tena, 1998). Beraz, guztiek era kolaboratuan eta koordinatuan lan egin behar dute, ikasleei zuzenduriko laguntza pertsonalizatua izateko.

Horrez gain, Gonzalez eta Veláz de Medranok (2014) adierazi bezala, beharren eta adinaren arabera, hezkuntza eragileen eta ikasleen arteko hartu-emanak eta komunikazioa eraldatzen joaten da ahalik eta erabilgarriena izateko uneoro. Horrez gain, gogoan eduki behar da, nahiz eta ikasleak kurtso berdinean egon, bakoitzaren beharrak eta erritmoak ez direla berdinak izango.

Lehen Hezkuntzako tutoreak ikasleekin ordu asko igarotzen du, asteko tutoretza orduaz gain, hainbat ikasgai ere irakasten dizkielako. Hala eta guztiz ere, ikasgelatik beste zenbait maisu-maistra eta espezialista igarotzen dira. Adierazi behar da, nahiz eta astean zehar tutoretza ordu bakarra izan eta klase hau ahalik eta gehien aprobetxatu, une jakin batean, beharrezkoa izanez gero, tutoreak berak emaniko irakasgaiaren zati batean tutoretza-ekintza landu dezakeela. Honek modu batera edo bestera, adin honetan, tutoretza-ekintza edozein momentutan lantzeko aukera ematen du (Fernández eta Lozano, 2015; González eta Veláz de Medrano, 2014).

Laburbilduz, Lehen Hezkuntzan tutoretza edo tutoretza-ekintza lantzea nahitaezkoa da ikasleek beraien gaitasunen arabera hezkuntza-prozesua modu pertsonalizatuan garatzeko eta guztizko garapen integrala eskuratzeko. Bai modu pertsonalean eta baita akademikoan ere. Gainera, argi eduki behar da hezkuntza-prozesuan ikaslea dela protagonista eta tutorea soilik gida-laguna izango dela.

### 3.3. Tutoretza-plana

Eskola guztietan, hezkuntza proiektuaren barnean tutoretza-plana aurki daiteke. Plan honek ikasleen eskolaratzea kalitatekoa izateko erabakigarria da. Ondorengo puntuetan, lehenik eta behin, tutoretza-planaren zehaztapenez mintzatuko da eta ondoren aurrera eramaten diren helburuez.

#### 3.3.2. Tutoretza-planaren zehaztapena

Ikasturtean zehar ikasleekin tutoretza-ekintza eta gidaritza nola antolatu eta gauzatu behar diren jakiteko, eskola guztietan, zentroko hezkuntza proiektuaren baitan, tutoretza-plana aurki daiteke (Muro, 2007; Galve, 2002). Hots, dokumentu hau, batez ere, ikasleriarentzako zein familientzako bideraturik dago, baina aldi berean, irakasleria eskolan nola koordinatu behar den zehazten du. Tutoretza-plana tutoreaz gain, ikastalde berdinean eragiten duten eragile guztiek eraman behar dute aurrera. Era horretan, aurreko paragrafoetan aipaturiko alderdiei erantzuna emango zaie, hala nola, ikasgelan dagoen aniztasunari, eskolatik kanpoko bizitzara prestatzeari, autonomia garatzeari, ikasle ororen garapen integrala lortzeari eta sortutako gatazkei irtenbidea aurkitzeari.

Egia da, tutoretza-plana eskola batetik bestera oso aldakorra dela, hain zuzen, eskola bakoitzean aurkitzen den errealitatea ezberdina baita, González eta Veláz de Medranok (2014) beraien liburuan autore ezberdinak aipatuz, tutoretza-planaren ezaugarrien zerrenda egiten dute ondorengo aspektu komunak adieraziz: errealitateko testuingurura egokituta; antolakuntza eta koordinazio zehatza; irekia eta malgua; curriculumean integratua; eragile guztiek adosturik egin eta martxan jarri; osoa, orokorra eta hezkuntza eragile guztiengan eragina; eta azkenik ebaluatzailea.

Ez hori bakarrik, tutoretza-plana, ideiak eta jarduerak plasmatzen dituen paper simple bat baino gehiago da, hau da, eskolan gertatzen diren edozein egoerara egokitzeko gaitasuna duen dokumentu malgu eta moldagarria dela dio Moralesek (2010) bere artikuluan. Nahiz eta tutoretza-plana, eskolako ikasleria kontuan hartuta eta urtero eguneratuta zehatz-mehatz egiten den, hezkuntza eragileak jakinaren gainean egon behar dute kurtsoan zehar planean zenbait aldaketa egon daitezkeela. Eta arrazoi horregatik, moldaketak azkar eta zehatz egiteko gaitasuna edukitzea garrantzitsua da.

Amaitzeko, Murok (2007) ziurtatu bezala, tutoretza-plan guztien garapenak, urrats konkretu batzuk izaten dituzte; eta ondorengoak dira: behaketaren azterketa; planifikazioa; definizioa eta onarpena; programazioa; garapena eta ebaluazioa jarraitua.<sup>4</sup>

---

<sup>4</sup> Tutoretza-plana urratsez urratz nola jorratzen den, 2. eranskinean ikus daiteke.

### 3.3.2. Tutoretza-planaren helburuak

Lehen Hezkuntzako tutoretza-planaren helburuei erreparatuz, etapako helmugekin zuzenki loturik egoten dira, alegia, helburu nagusienak ikasleen garapen afektibo, sozial, fisiko, akademiko eta adimenean laguntzea da. Zehazki, hezkuntzaren kurtso bakoitzean, ikasleen beharretara eta adinera egokituz, tutoretza-ekintzako xedeak aldatzen doaz. Lehen Hezkuntzari dagokionez, González eta Doriok (1992, in Arnaiz eta Isus, 1995) eta Galve eta Garcíak (1992) esaten dutenaren arabera, helburuak ondorengoak dira: ikaslea eskolan integratzen laguntzea; ikasgelan giro eroso eta lasai sortzea; autonomia pertsonala, norberaren eta bestearen buruaren zainketaren ohiturak bultzatzea; ikasle bakoitzaren jarrera zein den behatzea; denek ikasgelako aniztasuna onartzeko eta errespetatzeko ohiturak sustatu; garapen pertsonalean laguntzea; kurtso bakoitzeko trebetasunak eta jakintzak barneratzea; ikasle ororen ezaugarri pertsonal, sozial eta familiarak ezagutzea; eta familiak eskolan gauzatzen diren ekintzetan parte-hartzera bultzatzea. Labur esanda, hauek dira Lehen Hezkuntzako tutoretza-planean aintzat hartzen diren helburu nagusienak.

Helburuak kontuak edukiz, Galve y Ayalarrek (2002, in Morales, 2010) diotenari helduz, Lehen Hezkuntzako ikasgeletan edozein izanda ere taldearen eta eskolaren ezaugarriak, ondorengo jarduerak burutzen dira, hala nola, ate irekiak ikasleak eta familiak ezagutzeko; Haur Hezkuntza beste eskola batean egitetik datorren ikasleriari lehenbailehen integratu; eskolaren ezagutzea; Lehen Hezkuntzako etaparen ardura berriak barneratu, elkarbizitzarako arauak eta ikasleek zein gurasoek dituzten eskubideak; eta hasierako ebaluazioarekin koordinatu; curriculuma garatzea; eta abar. <sup>5</sup>

---

<sup>5</sup> Amaitzeko, orain arteko Lehen Hezkuntzako tutorearen kontzeptu ezberdinak modu orokor batean ikusteko, 3. eranskinean atalak modu eskematiko batean irakur daitezke.

#### **4. Metodologia**

Gratu amaierako lan honen helburu nagusia, Lehen Hezkuntzako tutorea aztertzea izan da, hots, gaur egun irakaskuntza munduan egunerokoan nabarmentzen diren Lehen Hezkuntzako tutore ororen perfla, berraren funtzioak eta tutorea inguratzen dituen legediak aztertzea izan da. Horrela ba, lana aurrera eramateko, ikerketa kualitatiboa egin da. Zehatz-mehatz, errealitatea zein den argiago ikusi ahal izateko, baliaturiko ikuspegi etnografia izan da. Zehazki ikuspegi honi dagokionez, jasotako informazioa zuzenki eskuratzeko, erdi egituratuak diren elkarrizketak jorratuko dira. Dena dela, elkarrizketarekin sortutako solasaldian, ahozko historiak ere bere garrantzia du, alegia, jasotako informazio guztia elkarrizketatuak bizi izandako esperientzietan zentratzen baita.

Adierazi bezala, ikerketa kualitatiboa landu da, Dorio et al, (2012) egileek beraien artikuluan zehar adierazten duten moduan, ikerketa kuantitatiboarekin konparatuta, kualitatiboak, begi bistan dagoen errealitatea oso gertutik bizitzeko aukera emateaz gain, parte-hartzaileek duten ikuspegi desberdinak ezagutzeko posibilitatea ere ematen du. Hori horrela ba, Massotek (2001, in Dorio, Massot eta Sabariego, 2012), ikertzaile lanetan dabilen kideak, ikerketan zehar modu aktiboan esku hartzea ezinbestekoa dela dio, modu honetan, bakoitzak bizi izandako bizipenak eta gertatu zaizkion pasarte pertsonalak era argiago batean ulertzeko aukera emango baitu.

Dena den, paradigma kualitatiboari atxiki, honen barnean ikuspegi anitz egon arren, Gradu Amaierako Lan honetan zehar, hezkuntzako sailean, etnografia jorratu da. Era honetan, gai konkretu bat ikertzerako garaian, parte-hartzaileen ikuspuntutik eraikitzea muina duelarik (Angrosino, 2012). Era berean, etnografia, García (2003, 74.or.) egileak esaten duen moduan, ondorengoa izango litzateke:

(...) un método de investigación ligado al paradigma cualitativo que se dirige al estudio en profundidad de una unidad social determinada (clase, escuela, familia, equipo de profesores, grupo de trabajo) en sus manifestaciones y comportamientos culturales y educativos, formas de vida y estructuras culturales subyacentes.

Horrela, etnografiari dagokionez, errealitatean aurkitzen diren dimentsioak, besteak beste, elkarrizketaren bidez jaso daitezke. Cólás eta kideek (2009) azaltzen duten bezala, elkarrizketa, irekia, malgua eta elkarreragilea baita. Azken finean, jaun/andere bati edo bati baino gehiagori, alderdi jakin baten inguruan beraien bizipenak ahoz jasotzeko tresna eraginkorra izan ohi da. Dena dela, elkarrizketatzaileak aurretik itaunak pentsatuta eta prestatuak eduki arren, elkarrizketan zehar, ikerketarako erabilgarriak izan daitezkeen galdera berriak sortu daitezke.

Gainera, elkarrizketa medio dela, zeharkako modu batean ahozko historia jorrazteko espazioa dago. Horrela ba, azalduko historia biografia desberdinen bidez ulertu daiteke, hau da, pertsona ororen bizitzaren ahozko kontatzearen bidez. Hori bai, gogoan izan behar da pertsona ororen bizitzaren historia beti subjektiboa izango dela, horrela ba, gai baten inguruan historia bat osatu ahal izateko, beharrezkoa izaten da pertsona ezberdinen historiak jasotzea (Thompson, 1988). Hau kontuan edukita, lanean zehar jorrazturiko ikerketa gauzatzeko eta gaiaren inguruko ikuspuntu desberdinak egoki konparatzeko, Lehen Hezkuntzako lau tutore elkarrizketatuak izan dira.

Amaitzeko, elkarrizketetako ahozko historiak jaso eta gordetzearen garrantziaz mintzatzea ezinbestekoa da. Era berean, Barela eta kideek (2004) azpimarratzen dute, memoria, subjektibotasuna eta iturri bakoitzaren berezitasunak direla ahozko historia definitzeko kontuan hartzen diren alderdi nabarmenenak. Pertsona orok, norberak bizi izandako historia bera modura kontatzen du, alegia, ikuspuntu propioetik. Hori dela eta, memoria ezinbestekoa izango da, urteak aurrera egin ahala bizipen guztiak ahazten baitoaz eta ez badira jasotzen historia hauek betiko galduko dira (Thompson, 1988).

Egile hauek adierazten duten moduan, gizakiaren memoria oso selektiboa da, gure bizitzan bizitako pasarte guztiak sailkatzen ditu eta garrantzia asko dutenak oroimenean jaso eta gutxikoak berriz ahaztu egiten dira. Hau kontuan izanda, ezinbestekoa bihurtzen da ikerketako protagonistei tarte jakin bat eskaintzea norberaren bizipenak beste kideei helarazteko. Horrez gain, ahozko historiak guztizko esanahia hartzen du pertsonak bizi izandako bizipenak helarazteko aukera dutenean.

## **5. Lanaren garapena**

Gradu Amaierako Lan honetan zehar, metodologian azaldu bezala, ikerketa kualitatiboa jorratu da eta landutako pausoak hauexek izan dira. Hasteko, lanaren inguruko helburuak xehatzen dira. Behin hau eginda, parte-hartzaileak eta datuak jasotzeko erabiliko diren tresnak zeintzuk izango diren aurkezten dira. Amaitzeko, landutako prozeduraren eta datuen analisiaren inguruko informazioa ematen da.

### **5.1. Helburuak zehazten**

Gradu Amaierako Lan honetako ikerketaren xede orokorra, egun nagusitzen diren Lehen Hezkuntzako tutore ororen perfila, berroren funtzioak eta tutorea inguratzen dituen legediak aztertzea izan da. Horretaz gain, modu zehar batean ondorengo helburuak ere lantzen dira: urteen poderioz tutorearen inguruan egon den bilakaera zein izan den behatzea eta aurrera eramaten den curriculum eta benetako errealitatea eskutik loturik dauden ikustea.

### **5.2. Parte-hartzaileak**

Lehen Hezkuntzako tutorearen inguruko informazioa lortzeko, parte-hartzaile gisa elkarrizketa lau tutoreri egin zaie eta hauen artean hiru emakumezko eta gizonezko bat aurkitzen dira. Elkarrizketaren bidez ahalik eta emaitzarik askotarikoenak lortzeko asmoz, elkarrizketatzaileak bi mota ezberdineko hizlariak bilatu ditu. Alde batetik, irakaskuntza munduan esperientzia gutxi dutenak, alegia, hezkuntzan zortzi urte edo gutxiago daramatzatenak. Eta beste aldetik, irakaskuntza munduan anitz urte daramatzatenak, hots, hogeita hamabi urtetik gorako esperientziadunak.

Era berean, parte-hartzaile guztiei gaia eroso egin zaie, alegia, erabili izan den hizkuntza eta edukiak gertukoak egin baitzaizkie. Gainera, elkarrizketarekin hasi baino lehenago, elkarrizketatuek galderak esku artean edukitzeko aukera izan dute, horrela, denbora labur batez itaunetan zer eta nola erantzun pentsatzeko aukera eskaini zaie.

### **5.3. Datuak jasotzeko tresna**

Thompsonen bere artikuluan adierazten duen moduan, "la entrevista totalmente libre no existe" (1988, 224.or.), hori dela eta, Gradu Amaierako Lan honetan, ahalik eta informazio gehien jasotzeko, aurrez-aurreko erdi-egituratua izango den elkarrizketa gauzatu da, alegia, erdibidekoa, ez guztiz itxia eta ezta ere guztiz librea. Dena den, nahiz eta galderak lehenagotik erabakitakoak diren, elkarrizketa irekia eta malgua izan da. Hala ere, oinarrian, elkarrizketatzaileak orientabide gisa itaun batzuk erabaki dituen arren, interes edo beharren arabera guztizko askatasunez solasaldian zehar pentsatu gabe zeuden galderak sortu ditu.

Horrela ba, elkarrizketaren sostengu gisa itaun irekiak (4. eranskinean ikus daiteke) egon dira, alegia, lau elkarrizketatuentzat berdinak. Parte-hartzaileen esperientzia guztiak eta

beraien iritzi pertsonalak ahoz jaso dira grabagailuaren bitartez grabatuz. Era berean, horrelako elkarrizketak, gaiak elkarrekin lotzeko aukera ematen duenez, elkarrizketatzailea erne egon behar da, alde batetik ikerketan zehar baliagarriak izango diren galdera berriak sortzeko edota parte-hartzaileak azalduko eduki berdinen inguruan berriro ez galdetzeko (Dorio, Massot eta Sabariego, 2012).

Elkarrizketarako galderak prestatzerakoan alderdi asko kontuan eduki dira. Alde batetik, parte-hartzailearen interesa pizteko itaunak sortzea, modu honetan edukien inguruan ideia gehiago helaraziko ditu (Hammer eta Wildavsky, 1990, in Barela eta kideak 2004). Beste alde batetik, garrantzitsua bihurtzen da galderaren erantzunak monosilaboak, sinpleak edota laburrak izango diren itaunak alde batera uztea, eta baita ere, parte-hartzailearen erantzunean eraginik ez izateko asmoz, elkarrizketatzailearen iritzi pertsonala zein den ez azaltzea garrantzitsua da. Azken honi dagokionez, Thompsonek (1988, 227. or.) bere artikuluko hitzetan dioen bezala, “si indicamos nuestros propios puntos de vista, es más probable que obtengamos una respuesta que el informante cree que nos gustaría escuchar”.

Era berean, adierazi beharra dago, sarrera gisa tutoreei buruzko datu biografikoak jaso ondoren solasaldia lau atalez osaturik dagoela:

- Hasteko, tutore hitza definitu ahal izateko galdera ezberdinak biltzen dira (perfila).
- Ondoren, tutoreak bete beharreko funtzioei eta eginbarrei buruz hitz egiten da.
- Segidan tutoretza-ekintza edota tutoretzaz mintzatzen da.
- Amaitzeko, tutoretza-planaren inguruko itaunak jorratzen dira.

Horrez gain, elkarrizketetako datuak egoki erregistratzeko, aurretik esan bezala, grabagailu aparatua erabili da, alegia, parte-hartzailearen diskurtsoa guztizko osotasunean biltzeko tresnarik egokiena baita (Dorio, Massot eta Sabariego, 2012). Dena den, grabagailua, parte-hartzaileari ondo irudituz gero erabili da, alderantzizko kasuan berriz, hizlariak adierazitako guztia eskuz jaso da. Ikerketa honi dagokionez, bi elkarrizketatuk eragozpenak jarri dituzte beraien elkarrizketak grabatuak izateko, hori dela eta, hauen diskurtsoa eskuz idatziz jaso da.

Gainera, Euskal Herriko Unibertsitateko Etika Batzordeak adierazten duen moduan, ikerketetan pertsonekin lan egitean, hauen identitate pertsonala gordetzeko, parte-hartzaileek konfidentzialtasun hitzarmena (5. eranskinean ikus daiteke) betetzea ezinbestekoa da. Bertan, elkarrizketatu bakoitzaren izaera pertsonaleko datuak lanean zehar ez direla erabiliko konfirmatzen da. Horrela ba, hizlari bakoitzaren identitatea babesteko, parte-hartzaile bakoitzari akronimo ezberdin bat jarri zaio. Paragrafo batzuk lehenago



adierazi bezala, ikerlanean bi talde bereizi dira, alde batetik, lehenengo taldeko kideei LHTEG1 eta LHTEG2 akronimoa jarri zaie, alegia, *Lehen Hezkuntzako Tutorea Esperientzia Gutxikoa, bat eta bi*. Eta beste aldetik, LHTEA1 eta LHTEA2, hots, *Lehen Hezkuntzako Tutorea Esperientzia Askokoa, bat eta bi*.

#### **5.4. Prozedura, elkarrizketak egiten**

Hizlariari egingo zaizkien galderak pentsaturik, parte-hartzaile bakoitzarekin hitzordua erabaki, konfidentziasun hitzarmena sinatu eta lau elkarrizketa egin dira. Era berean, solasaldietan, galderekin hasi aurretik, lanaren helburuak zeintzuk diren eta beraiekin zer landu nahi den azalduaz batera, hauen parte-hartzea ikerketa behar bezala gauzatzeko ezinbestekoak direla esan zaie.

Bestalde, solasaldiak egingo diren tokiari erreparatuz, elkarrizketak elkarrizketatua egoki sentitzen den leku batean izateaz gain, soilik bi pertsonak bakar bakarrik egongo diren espazio batean egitea komenigarria da. Horrela ba, ikerketan, elkarrizketa guztiak bakoitzaren ikastetxeko ikasgelan gauzatu dira bat izan ezik, hau, bere etxean egin da.

Hizlariaren diskurtsoak iraundako denbora guztian zehar, galdetzaileak beti gogoan izan du helburu nagusia parte-hartzaileak ahalik eta informazio gehien azaltzea dela, kausaz, solasaldirako klima egokia eta lagun arteko konfiantzazko elkarrizketa jorratzea erdietsi da. Era berean, Thompsonen (1988) elkarrizketatzailearen inguruan esaniko alderdiak ere kontuan hartu dira, alegia, hizlariarekiko interesa eta errespetua erakustez gain, entzule aparta eta ulerkorra izatea. Azken finean, elkarrizketatzaileak, Barela, Mercedes eta García (2004) esanikoa gogoan edukitzea komenigarria da: “cada entrevista es única e irrepetible, por lo cual hay que ir a ella con una actitud amplia y abierta que permita ir replanteando sobre la marcha la forma de conducirla”.

#### **5.5. Jasotako datuak aztertzen**

Elkarrizketa guztiak egin direlarik, grabagailuaren bidezko ahozko grabazioak erne entzun eta ordenagailuan esandako guztia hitzez hitz transkribatu da (12. eranskinean ikus daiteke). Jasotako datuen transkripzioetan, bakarrik zizakadurak alde batera utzi dira, bestela, makulu hitzak eta esaldiak egin diren ordenak zehatz-mehatz mantendu dira, alegia, kasu askototan gramatikalki guztiz okertuta egon diren arren.

Jarraian, emaitza guztiak lau taldetan sailkatu ondoren, bi era ezberdinetan bildu dira, alde batetik, taula batean bisualgarriagoa izan dadin (6. eranskinean ikus daiteke) eta beste aldetik, datuek zer esan nahi duten ulertzeko, idatziz sakonago garatuz. Amaitzeko, jasotako datu guztiak ondo aztertu ondoren, lorturiko emaitzei dagozkien ondorioak gauzatu dira.

## **6. Lanaren emaitzak**

Lanaren emaitzen atalean, egin beharreko elkarrizketa guztiak egin ostean, jasotako emaitza guztiak lau atal ezberdinetan sailkatuak izan dira: Lehen Hezkuntzako tutorearen perfila; tutoreak bete beharreko funtzioak eta eginbeharrak; tutoretza-ekintza edo tutoretza eta azkenik, tutoretza-plana. Gainera, azaldu bezala, lanaren emaitza hauek analizatzeko, bi talde ezberdinetan klasifikatu dira elkarrizketak, alde batetik, irakaskuntza munduan esperientzia gutxi dutenak (8 urte azpiko esperientzia), eta beste aldetik, irakaskuntza munduan anitz urte daramatzatenak (32 urte baino gehiagoko esperientzia). Beraz, puntu honen barnean, lorturiko emaitzen azalpenak ikus daitezke eta horrez gain, 3. eranskinean taula baten bidez argiago ikusteko aukera ere eskaintzen da.

### **6.1. Lehen Hezkuntzako tutore ororen perfila**

#### **6.1.1. Tutorearen izaera**

Elkarrizketatutako bi taldeko partaideek, alegia, lau elkarrizketatuek argi dute Lehen Hezkuntzako tutore ororen izaerak nolakoa izan behar duen. Hots, ikasleen garapen integralarekin (akademikoa eta pertsonala) erlazonaturik aurkitzen diren alderdi guztiak bere osotasunean eskuratzen laguntzen duen gida laguna dugu tutorea. Gainera, tutoreak, denbora jakin batez ikastalde zehatz bateko hezkuntza garapen prozesua egoki gauzatzeko eta dinamizatzeko ardura izaten du, alegia, uneoro, “ikasle bakoitzan ezaugarriak bai fisikuek eta bai psikikuek ahal dan neurrian egokixen erantzuten saiatzen da” (LHTEA1)<sup>6</sup>. Era berean, elkarrizketatu berak (LHTEA1) ondorengo ere azpimarratzen du, “eskolan gurasuan papera ordezkatzeko doan pertsona da tutoria”.

#### **6.1.2. Ikasleriarekiko harremana**

Harremanari dagokionez, lau elkarrizketatuek, bai esperientzia gutxikoek eta bai esperientzia askokoek berdina pentsatzen dute. Hau da, Lehen Hezkuntzako tutore orok bere ikastaldearekiko ardura handia duela. Bestalde, tutore-ikasle harremanari dagokionez, adibidez LHTEG1-ek dio, “ikasleekin oso gertuko harremana, laguntzailea, kolaboratzailea...” izan behar duela. Horrez gain, guztiek azpimarratzen dute ikasle berdinen tutore gutxienez bi urtez egoten direnez, elkarren artean sortzen den harremana oso gertukoa eta estua izaten dela. Beraz, ikasleak ondo ezaugtzeko aukera izaten denez, oso aspektu polita izaten da.

---

<sup>6</sup> Elkarrizketa batzuk, nahiz eta elkarrizketatzaileak galderak euskara batuan gauzatu, beraien beraien euskalkian (kasu honetan Mutrikuarrez) erantzun dituzte. Hau arrazoi dela eta, hauen hitzak emaitzetan azaltzerakoan, esan duten bezala ipini dira, inolako moldaketarik jasan gabe.

### **6.1.3. Ezaugarri pertsonal eta profesionalei begira**

Hasteko eta behin, ezaugarri pertsonalei begira, elkarrizketatu guztiak bat datoz tutore oro, gertukoa, positiboa, alaia, arduratsua, eredugarria eta abar izatea ezinbestekoa dela. Horrez gain, “tutore danak enpatikuak izatia biharrezkotzat ikuset, jende askokin tratatzen dezulako, bai ikasliakin baina baita gurasuakin eta zure lankidiakin ebai” (LHTEG2). Gainera, ikasgelan, ikasleekin ezin daiteke inoiz jarrera aldakorra izan, beti jarrera ona edukitzea garrantzitsua da, “danok dakagu egun txar bat, eta ezta ize pasatzen, baina tutore bezela, derrigorra da holako egun bat eduki arren ikasliak ez igartziakela” (LETEA2). Era berean egia da, tutore modura esperientzia gutxi duten taldekoek ondorengo ezaugarriak ere beharrezkotzat hartzen dituztela, hots, berritzailea, entzule aktiboa, konfiantzazkoa, talde bezala ondo harremantzen jakitea eta abar. Ostera, esperientzia handia duten elkarrizketatuek, arduratsua, lasaia, pazientzia, beharrezko sentsibilitatea izatea...

Bigarrenik, tutore orok izan beharreko ezaugarri profesionaletan zentratuz, alde batetik, lehenengoko taldekoek, hezkuntza prozesua arrakastatsua izateko, ikasleriaren ezaugarriak zeintzuk diren ezagutu eta hauek guztiz errespetatu behar direla adierazten dute. Horrela ba, ikasleriak jaso beharreko hezkuntza guztiz pertsonalizatuta izan behar da, alegia, era pertsonalean ikasleei behar den denbora guztia eskainiz. Horrez gain, hizlari batek adierazten du zein garrantzitsua den Lehen Hezkuntzako tutorea berritzailea izatea; izan ere, gizartea aurrera pauso handiak ematen ari da eta honekin batera hezkuntzan metodologia berri asko sortzen ari dira. Hori dela eta, irakasleriak eskainiriko irakaskuntza hauei egokitu beharra dago. Beste aldetik, esperientzia handia dutenek berriz, tutorea ikasleen eredu izatea azpimarratzen dute. Gainera, ezinbestekoa bihurtzen da ikasleria guztia oso ongi ezagutzea eta beraiekin modu egokian komunikatzea. Esandakoaz gain, lau hizlariak beharrezkoak diren tituluak izatea aintzakotzat hartzen dute. Horretaz gain, elkarrizketatu guztiak ados daude tutoreek talde lanean jardutea beharrezkoa dela, hau da, ikastetxeko hezkuntza eragile guztiekin koordinatuz eta ikasleen guraso guztiekin harremanuz.

### **6.1.4 Formakuntzak edo antzekoak**

Formakuntza dela eta, hizlariak bat datoz irakaskuntza munduan etengabe formatzen jarraitu behar dela, hots, berrikuntza hauek gerta daitezen formakuntza edo antzeko prestakuntzak jasotzea beharrezkoa dela diote. Alde batetik, esperientzi gutxiko tutoreek, tutoretzaren inguruan ez dute inoiz formakuntzarik jaso eta egia esan aspektu honetan hutsune handia dagoela uste dute, beraz, hobetzeko asko dagoela pentsatzen dute. Beste aldetik, esperientzia asko dutenekin jarraituz, batek, ez du inoiz inolako formakuntzarik jaso, baina ikastaro pilo bat jaso izan dituenek, tutoretzan aplikatzeko lagungarri egin zaizkiola adierazten du. Beste hizlariak ordea, ondorengo dio, “oaindala urte asko jaso izan giñun

tutoretzan inguruko formakuntzan batenbat baina egixa esan eznai akordatzen” (LHTEA2). Azkenik, lau elkarrizketatuek aipatu dute, unibertsitatean ez zutela inoiz tutoretzaren inguruko formakuntzarik jaso.

### **6.1.5. Garapen prozesua**

Alderdi honi begira, lehenbiziko taldeak, hau da, irakaskuntza munduan esperientzia gutxi duten tutoreek, normala den bezala, tutorearen perfilean eta bere ezaugarrietan ia ez dute aldaketarik bizi izan. Hala ere, nabaritu dituzten zenbait aldaketa beraiek ikasle zirenetik gaur egun irakasle diren arte. Hala nola, “nik uste dut hala ere tutorearen rol eta ezaugarriak lehen zirenarekin konparatuta... ni ikasle izan nintzenekin konparatuta hobekuntza bat egon dela... mmm... gaur egun ikasleen ezaugarriak gehiago kontuan hartzen dira eta honek nahi ala ez tutorearen rola askoz eta inplikatuagoa izatea dakar...” (LHTEG1). Gainera, gaur egun, tutoreak ez du ezagutza akademikoa bakarrik irakasten, gidaria da, alegia, hauetaz gain, ikasle bakoitzaren ezaugarri pertsonalei garrantzia handia ematen die irakaskuntza integrala eskainiz. Bestalde, LHTEG2-k, esaten duen bezala, “familixakuak ere eoze dala tutoriana datoz...” eta horretaz gain, “gaur egun teknologiak pauso handiak eman ditxu eta honek gurasuakin telefonoz hizketan ein eo korreuak bialdu, mensajiak idatzi eoze momentuan, aukera asko doz... Orduan harreman aldetik asko hurbilo da, egunerokua ixa...” Beste aldetik, esperientzia asko duten tutoreek, adierazten dute, “metodologixa, gizartia ere kanbixau ein da, orduan biharrak ebai, eta tutorian helburu nagusixa horretxek asetzia da” (LHTEA2). Esan behar da, elkarrizketatu hauentzako, tutorearen izaera eta bere lana beti norabide berean joan direla, beraz, beraiantz tutorearen perfilak ia ez duela aldaketarik izan azpimarratzen dute. Era berean, hauentzako, metodologia, klaseak aurrera eramateko modua eta abar da gehien aldatu dena.

## **6.2. Tutoreak bete beharreko funtzioak eta eginbeharrak**

### **6.2.1 Ikasleriarekiko eginbeharrak**

Elkarrizketatu guztiek pentsatzen dute hezkuntzan erabateko protagonismoa ikasleriak duela eta hauen lanaren zati bat bakoitzaren ezaugarriak errespetatzea eta bakoitza den bezala onartzea izango dela. Hortaz gain, ikasleen heldutze prozesuan gida laguna izatea hainbat aspektutan esku bat botaz, adibidez; ikasgelako lagunekin harremantzen laguntzea, ekintzetan beraien parte-hartzea indartzea, eskaera orria nola egin behar duten bideratzea, arazoan aurrean irtenbide egokiena topatzen laguntzea, dituzten beharrak asetzea, beraien prozesu akademikoa bultzatzea eta abar. Azken batean, LHTEG2-k dion moduan “nik ustet tutoriak behaketa lana etxia ezinbestekotzat ikuset”, alegia, modu honetan, ikasleek dituzten ezaugarriak ezagutzea errazagoa da, edota konfliktuak garaiz sumatzea. Azkenik, irakaskuntza munduan denbora gutxi daramaten tutoreentzat, ikasgelan planteatzen diren

jardueren inguruan ondorengo pentsatzen dute, “irakasle batek edukiak aurkeztu eta gero ez du agindu behar jarduera bat zer eta nola egin, baizik ikasleari berak egin dezan utzi behar dio, bakoitzak ez dituelako interes berdinak” (LHTEG1).

### **6.2.2. Irakasleriarekiko (irakasleak, espezialistak, PT-ak...) eginbeharrak**

Elkarrizketatu guztiak bat datoz zentzu honetan, ikasleen inguruko jarraipen zehatza gauzatzeko eta ikasleak behar bezala ezagutzeko, garrantzitsuena beste hezkuntza eragile guztiekin harreman konstantea edukitzea dela esatean (irakasleak, PT-ak...). Tutoreak, bere ikasleekin harremantzen diren gainontzeko irakasleriarekin oso erlazioa gertukoa eta estua izateaz gain, “bilerak etxen ditxugu koordinazioako eta elkarri dakagun informazioa pasatzeko” (LHTEA1).

### **6.2.3. Gurasoekiko eginbeharrak**

Gurasoekiko eginbeharrei dagokionez ere, hizlari guztiak bat datoz tutorearen funtzioa familiekiko zein modutakoa izan behar denarekin. “Hezkuntzan eta zer esanik ez LH-n, tutoreak familixekin harremana estua eukitzia ederra da. Hola, beurakin semian inguruko informazio gehixo partekatzeko aukeria eoten da...” (LHTEA2). Konkrétuki, gaur egun teknologiak direla eta, gurasoekin etengabe elkarrekin harremanetan egoteko aukera dago, bai telefonoaren bitartez (deiak, whatsapp-ak...), bai ordenagailuaren bitartez (mezu elektronikoak...) eta abar.

### **6.2.4. Eginbeharrekiko garapen prozesua**

Eginbeharrei dagokionez, urteen poderioz nabaritutako aldaketak txikiak izan dira. Alde batetik, lehenengo taldeari dagokionez, LHTEG1-ek dio, “aldatzen ari garela ikaslea ikusteko modua, azken baten, ikusten dugu ikasleak zer esan handia duela irakaskuntzan... eta orduan, nik pentsatzen dut, hor bai dagoela txiparen aldaketa bat...”. Bestalde, bigarren taldeak, gaur egun gurasoak tutorekiko lehen baino hurbilago daudela azpimarratzen dute. Baita ere, tutore batek dio, iraganean ez bezala, egun ikastetxeak arratsaldetan eskolaz kanpoko jarduera asko eskaintzen dituela ikasleen denbora pasarako. Azkenik, lau hizlariak bat datoz esanez gaur egun gurasoekin batzea askotan ez dela erraza izaten beraien laneko ordutegiagatik.

### **6.2.5. Ikasleriarekin jorratzen diren alderdiak**

Ikasleriarekin batez ere jorratu behar diren alderdiei erreparatuz, hizlari guztiek argi dute Lehen Hezkuntzako adin tarte honetan zehar batez ere, beraien autonomia eta baloreak (enpatia, laguntasuna, errespetua eta abar) jorratzea ezinbestekoak direla. Era berean, “elkarren kohesioa ustet inportantia dala, azken batian gizartian gero taldian bizitzia da

inportantia da... mmm ta ba ideia hau kontuan eukitxa talde lanak, o lanian elkarri komunikatzen ein biharreko gauzak indartzen saiatzen nai gelan” (LHTEG2). Horrez gain, hizlariet garrantzitsua iruditzen zaie ikasleek dituzten sentimenduak plazaratzen ikasteari. Bestalde, esperientzia gutxiko tutore batek, euskara ikasgela barruan bizirik egoteari garrantzi handia ematen dio, izan ere, ikasleek gaztelaniaz komunikatzeko joera handia dute.

Horrez gain, irakaskuntza munduan ikasturte asko daramatzatenak, jakitun dira gaur egun ikaslearen garapen prozesu integralean alderdi akademikoez gain, alderdi pertsonalek ere garrantzia handia dutela. Hala ere, beraien ibilbidean bizi izan dutenagatik edo, batzuetan LHTEA2-k adierazten duena gertatzen zaie, hots, “aber baina egixa da e bai momentu batzutan... nik bai ematen diot pixkat inportantzia gehixo beti akademikuai... ezta kitxe e igual inkostientemente... baina bai...”. Ostera, esperientzia gutxiko tutoreek argi dute bi alderdiek garrantzi berdina dutela eta ikasgelan ere horrelaxe aplikatzen dute.

### **6.2.6. Curriculumaren erabilpena**

Curriculumari helduz, irakaskuntza munduan ibilbide motzagoa duten tutoreek gutxi begiratzen diote curriculumari, soilik kurtso berri bat hastean dagozkion programazioak gauzatzeko. Beraz, argi gelditzen da tutore hauentzat egunerokotasunean akaso curriculuma lantzen dela baina hau beraien begi bistan ez dagoela behintzat. Ostera, esperientzia handia duten tutoreek, ia ez dute erabiltzen, beraiet liburuetan azalduko editorialet fidatzen dira. Soilik “egixa da curriculuma hor dauala erreferente bezela eta ezta kitxe esango ezta la garrantzitsua, baina guk eztegu beirau ere etxen momentu eo ekintza puntual bat ezpada” dio LHTEA1-ek.

### **6.3. Tutoretza-ekintza edo tutoretza**

#### **6.3.1. Ikasleriaren beharrei erantzutea**

Lau hizlariet erreparauz, guztiak ados daude ikasleriaren beharrei erantzuteko askoz errazagoa dela bakarkako tutoretza jorratuz. Ostera, taldeko tutoretza gauzatzen dutenean (asteko tutoretza ordua) gai bat jorratzen ari direnean saiatzen dira bakarkako beharrei erantzuten, nahiz eta askotan ez izan hain lan erreza. Eskarmentu gutxi duen tutore batek ondorengo dio, “galderak einez, galdetuz zalantzak dituzten... ixilak badia talde handixian ezpada atrebitzen zeoze esaten beraiena hurbiltzen laguntza eskaintzeko... azken batian, mahiz mahi juten nahi galdetzen ia zeoze bihar deuen eo “(LHTEG2). Bestalde, esperientzia askodun tutore batek, bakoitzaren beharrei taldeko tutoretzaren bidez erantzuteko, “ikasle danan ezaugarriak kontuan hartzen saiatzen naiz eta horretako klabia da zer ematen dezun eta zela...” (LHTEA2) izango da. Alegia, askotan interes antzekoak izaten dituzte eta beraz

zer eman jakitea erreza izaten da eta gero edukiak lantzerako orduan modu ezberdinak jorratzen dira (antzerki bidez, idatziz, pintatuz...).

### **6.3.2. Tutoretza-ekintzaren arduraduna**

Hasteko, esperientzia gutxi duten hizlariak, "tutoretza ezta tutorian ardura bakarrik, gelan parte-hartzen deuen beste irakasliak ere beuran arduria dakae" (LHTEG2), beraz, hezkuntza eragile (gorputz-hezkuntzako irakaslea, espezialista, PT-a...) guztien esku dago. Bestalde, beste taldekoentzat, orain dela urte batzuk bezala, ikasgelako arduradun nagusiena tutorea dela sentitzen dute, LHTEA1-ek dion moduan, "sartzen dian irakasliak arduratzen dia baina nereu ustez tutoria da tutoretzako arduradun nagusixena".

### **6.3.3. Hezkuntza eragileek duten inplikazioa**

Eskarmentu txikia zein eskarmentu handia duten tutore guztiak bat datoz ikastalde berdinetik igarotzen diren hezkuntza eragile guztiak inplikatzeko direla pentsatzearekin. Alde batetik, esperientzia gutxidun taldekoek pentsatzen dute, adibidez, familiei dagokionez, "geroz ta kontzientzi gehixo do gurasuengan guztizko elkarlanian ibili bihar geala bai ikastetxia eta beurak. E... beti eoten dia guraso batzuk inplikatzeko diala" (LHTEG2). Horrela ba, gaur egun hezkuntza eragileak gehiago kontzientziatu direla uste dute, hain zuzen, ikasleriak kalitatezko hezkuntza jaso dezaten, beraiek izan beharreko inplikazioa ezinbestekoa delako.

Bestalde, eskarmentu handiko tutoreek azpimarratzen dute irakasleriaren inplikazioa beti antzekoa izan dela eta ostera, gurasoei dagokionez, gaur egun LHTEA2-garrenak esan bezela, "ikaslian familixakuak gaur egunian euran seme-alabakin bakarrik arduratzen dia eta ez dia ohartzen ikasgelan ikasle gehixo ere badozela".

### **6.3.4. Hezkuntza eragileekiko harremana**

Puntu honi dagokionez, elkarrizketaturiko bi tutore multzoak iritzi bera dute. Alde batetik, beste irakasleriarekin ikaslearen inguruko informazioa elkar trukatzeko, materiala egoki antolatu edota bilerak sarritan egiten elkarrekin koordinazio zuzena izateko. Beste alde batetik, ikasleen gurasoekin etengabeko harremana izatea informazioa elkar trukatzeko. Horretarako, kurtso hasieran eta amaieran bilera orokorrak egiteaz gain, bakarkako elkarrizketak gauzatzea, hots, hizlari batek esaten duen bezala, "gauza jakin batzuk esateko hobe bakarka eta gainea bakarka eurak ere gehixo soltatzea eta gauza gehixo kontatzeizue...(LHTEG2).

## **6.4. Tutoretza-plana**

### **6.4.1. Erabilpena**

Elkarrizketatuei dagokionez, irakaskuntzan esperientzia gutxi duen tutore batek soilik du ikastetxean tutoretza-plana, eta ondorengo dio, “gure ikastetxian bado tutoretza-plana eta bertan dakau sartuta ba... familixakuakin batzarrak, kurtsuan hasierako ta amaierako batzar orokorrak dianak, e... gurasuakin bakarkako batzarrak...” (LHTEG2). Beste esperientzia gutxidun tutoreak, bere ikastetxean egitura horizontalaren bidez lan egiten duela aitortzen du, azken hau, prozesu desberdinek (unitate didaktikoak, ebaluaketak...) osatzen dutelarik. Bestalde, esperientzia askoko bi tutoreek azaltzen dute beraien ikastetxetan badagoela txosten bat zeinetan tutoretza zein modutan gauzatu behar den adierazten duena. Hala ere, biak ados daude horrelako dokumentu bat edukitzeak asko laguntzen duela, “azkenian, erabilgarrixa da eta tutoriai asko laguntzen dio txosten honek kasu askotan” (LHTEA1).



## **7. Ondorioak**

Txosten honen helburu nagusia, irakaskuntza munduan egunerokoan nabarmentzen diren Lehen Hezkuntzako tutore ororen perfila, berorren funtzioak eta tutorea inguratzen dituen legediak aztertzea dira. Elkarrizketen bidez jasotako emaitzei erreparatuz, orokorki, irakaskuntzan esperientzia gehiago duten tutoreen eta gutxiago dutenen artean, ondorengo desberdintasunak soilik antzeman dira: jasotako formakuntzan; ikasleriarekin jorratzen diren alderdietan; curriculumaren erabilpenean; tutoretza-ekintzaren arduraren; eta tutoretza-planeari.

Lehen Hezkuntzako tutoreak duen rola analizatuz, esan daiteke solaskide guztiak Giner eta Puigardeur (2008) autoreekin bat datozela. Hau da, tutorea, ikasgelako ikasleriarentzako eredu izateaz gain, hauen garapen integrala (akademikoa eta pertsonala) arrakastatsua izateko behar duten oinarriko gida laguna ere bada. Horrela ba, gelan aurrera eraman beharreko edukiak eta jarduerak edozein izanda ere, uneoro, ikasle guztien ezaugarriak eta jakin-minak asebetetzearekin batera, harreman estua eta gertukoa izatea ezinbestekoa da. Azken finean, ez dugu ahaztu behar ikaslea dela irakaskuntza-ikaskuntzako guztizko protagonista

Gainera, badakigu LH-ko tutoreak ezaugarri pertsonal eta profesionalak edukitzea garrantzitsua dela. Elkarrizketatuen emaitzak analizatuz, Mañuk (2006) adierazitakoekin lotura dute. Alde batetik, alderdi pertsonalei dagokionez, esan daiteke ikasleriaren aurrean, tutoreak egun txarra izanda ere, garrantzitsua dela jarrera aldakorrek saihestea. Beste aldetik, alderdi profesionalekin jarraituz, lau hizlariak beharrezko titulazioa izateaz gain, ikasle orok dituen ezaugarriak onartu, errespetatu eta hauek indartzea beharrezkotzat ikusten dute. Hori dela eta, arrakastaren oinarri izango da tutoreak uneoro ikasgelan ezaugarri pertsonalak eta profesionalak kontuan edukitzea.

Tutoreek jasotako formakuntzari dagokionez, irakasleria denbora guztian ikastaro ezberdinak jasotzen eta irakaskuntza birplanteatzen egotea oso garrantzitsua da. Azken batean, gizartea aldatzen doanez, ikasleen beharrei modu egokian aurre egiteko modu bakarra baita. Hala eta guztiz, emaitzak aztertuz, tutoretzarekin erlazionatutako formakuntza oso kaskarra da, bai gauzaturiko ikastaro ezberdinetan eta baita unibertsitatean ere. Soilik, eskarmentu handiko tutore batek esan du duela urte asko tutoretzan inguruko formakuntzaren bat jaso zuela.

Era berean, tutoreak dituen funtzioei begira, erraz ikus daiteke eginbehar asko daudela bereengan. Hasteko, irakasleek González eta Velázquez de Medrano (2014) autoreek esandako berdina pentsatzen dute, alegia, tutorea ikasleriaren heldutze prozesuan bere laguntzailea

dela. Horrez gain, Moralesek (2010) adierazitakoarekin bat datoz, hots, tutore orok bileren bidez, bere ikasle taldearekin erlazioa duten gainontzeko irakasleriarekin modu koordinatuan eta bateratuan lan egin behar dute. Azken finean, ikasleekin harremana dutenen gainontzeko ikasleen ikuspuntuak ezagutzeko balioko die harreman horrek. Horri esker, arazoez informatuta egoteko eta hauen irakaskuntza-ikaskuntza zuzen bideratzeko balioko die. Hori dela eta, ikastetxean taldean lan egitea ezinbestekoa eta beharrezkoa da. Amaitzeko, gurasoekin gertuko harremana izatea ere garrantzitsua da, ikasleen egoera zein den beti eguneratuta izateko. Esaterako, bileren bitartez, telefono deien bitartez, korreo bidez eta abar. Azken batean, ikasleriaren onerako, tutoreak ezin du ahaztu inoiz ikastetxeak eta etxeak norabide berean lan egin behar dutela.

Lau tutoreek ikasleriarekin jorratzen dituzten alderdiak, enpatia, laguntasuna, errespetua eta taldeko kohesioa eta abar dira. Hala ere, eskarmentu txikiagoa dutenek, alderdi akademikoa, pertsonala lantzea bezain garrantzitsua dela pentsatzen dute eta ez bat bestea baino gutxiago. Ostera, esperientzia gehiagoko hizlariak, une batzuetan, inkontzienteki, aspektu akademikoari arreta gehiago jartzen die pertsonalei baino. Lehen Hezkuntzako etapan ordea, gaur egun, ezin gara alderdi akademikoetan soilik zentratu eta pertsonalak alde batera utzi, biak baitira garrantzitsuak ikaslearen irakaskuntza-ikaskuntzaren garapen arrakastatsurako.

Curriculumaren erabilpenari dagokionez, aipatu beharra dago, erreferentzia gisa hor dagoela, baina irakasleriarentzat ez duela gehiegizko erabilpenik. Alde batetik, esperientzia gutxi duten tutoreek gutxi begiratzen dute, kurtso berri bat hastean programazioak egiterakoan soilik. Bestalde, zaharragoak diren tutoreek liburuetan azalduko editorialez fidatzen dira eta ez dute curriculumak inoiz erabiltzen, soilik zerbait berezia egin behar den kasuetan erabiltzen dute.

Hala eta guztiz ere, tutoreek, legeak edo dekretuak gutxitan begiratzen badituzte ere, ia ohartu gabe, hauetan agertzen den guztia egiten dute. Alegia, ikasleriari kalitatezko den hezkuntza integrala eskaintzen diote beraien gida laguna izanez. Baita ere, betidanik gurasoekin harreman estua eta gertukoa izan dute eta modu honetan beraien seme-alaben inguruko informazioa elkar trukatzeko errazagoa egiten da. Gainera, tutorea eta irakasleriaren artean betidanik egon izan da elkarren arteko koordinazioa. Horrez gain, tutoretza ez da soilik tutorearen ardura, ikasgelatik igarotzen den hezkuntza eragile guztien ardura baizik (alderdi honek aldaketa denboraren poderioz). Motzean, tutoreak beti jakin izan du zer eta nola egin behar den ikasleriaren garapena arrakastatsua izateko, beraz, beharrezkoak al dira hainbeste hezkuntza lege edota dekretuetan azaltzen den guztia zehatz-mehatz bete behar izatea?

Taldekako tutoretzaren bidez ikasle bakoitzaren beharrei erantzuteari dagokionez, elkarrizketatuei ez zaie bakarkakoan bezalako lan erraza egiten hau talde osoko tutoretzan jorratzea. Hots, bakarkakoan, tutorearen atentzio guztia direkzio bakar batean zentratu egoten da eta ikasleriak dituen beharrak erantzutea xamurragoa izaten da. Ostera, taldeko tutoretzan, gelako ikasle guztiak egoteaz gain, gaur egun bakoitzaren ezaugarriak eta jakin minak oso desberdinak dira. Hau jakinda, estrategia ezberdinak landu behar ditu tutoreak ordu honetan ikasle guztien beharrak erantzuten saiatzeko. Horrela ba, tutore bakoitzak alderdi honen arrakasta lortzeko, taldekako tutoretza birplanteatu behar du.

Tutoretza gaiarekin jarraituz, nahiz eta teorikoki LH-n tutoretza ordua astean behin izan, ordu horiez gain, beste milaka momentutan ere tutoretza jorratu beharko da. Izan ere, adin tarte honetako ikasleriari erantzuna segituan eman behar zaio, beraz, González eta Velázquez de Medrano (2014) autoreek esanikoarekin ados daude. Tutoretza-ekintzaren ardurari buruz, hizlariengan bi ikuspuntu desberdintzen dira. Alde batetik, irakaskuntza munduan esperientzia gutxiago duten tutoreek, Ceballos eta bere kideek (1998) dioten bezala, ardura hau ez da tutorearena bakarrik izango, ikasle talde berdinarekin harreman zuzena duten hezkuntza eragile guztiena baizik. Beste aldetik, eskarmentu gehiago duten tutoreentzat ikasgelako arduradun nagusia tutorea dela sentitzen dute, nahiz eta beste hezkuntza eragileak ere arduratzen diren. Hala eta guztiz ere, azken ideia honetan pentsamendu kontrajarria dago, hain zuzen, eskarmentu gutxien duen taldeak, hezkuntza ekintzetan parte-hartze zuzena duten hezkuntza eragileen inplikazioa (familiarak, irakasleak...) oso handia dela diotelako. Azken batean, ikasleriaren heziketan parte-hartzea edukitzerakoan, soilik guztiak elkarlanean ibiliz lortu daiteke ikasle bakoitzaren garapen integrala.

Ikastetxeko tutoretza-planari erreparatuz, lau hizlarien artean jakintasun gutxi edo jakintasun eza nabari da, nahiz eta plan honek jasotzen dituen zenbait alderdi lantzen dituzten. Hau horrela izan arren, tutoretza-planeko txostena ezagutzea beharrezkoa da tutoretza-ekintza era egoki batean gauzatzen jakiteko (Muro, 2007). Soilik eskarmentu gutxiago duen tutore batek du tutoretza-plana bere ikastetxean. Hala ere, legediak azpimarratzen du tutoretza-plana ikastetxe guztietan egon behar dela. Alegia, horretarako txostenak errealak izan behar du, hau da, ikastetxeari egokitua.

Laburbilduz, Lehen Hezkuntzako lau elkarrizketen bidez lorturiko informazioa analizatu ondoren, amaierako konklusio bezala esan nezake, ez dela desberdintasun nabarmenik antzeman esperientzia gutxi eta asko duten tutoreen artean. Horrela ba, bigarren taldeari dagokionez (eskarmentu handiagokoak), tutoretzaren inguruan egon diren aldaketak modu zuzenago batean bizitzeko aukera izan dute, hau da, irakaskuntza munduan sartu zirenetik gaur egunera arte eman diren aldaketak. Bestalde, lehenengo taldeak (eskarmentu

txikiagokoak) ez dituzten hainbeste aldaketa nabaritu, hauen inguruan ezagun dute beste tutoreei entzundakoagatik edo baita beraiek ikasle zirenetik gaur egunera arte ikusten dituzten aldaketengatik.

Amaitzeko, Lehen Hezkuntzako tutorea, ikasleen heltze prozesurako garrantzi handia duen pertsona da. Hau kontuan edukita, esku-hartzea LH-ko mailen (irakasleak, ikasleak eta gurasoak) arabera betebeharrak zehatzak egin beharko ditu. Hori dela era, adin tarte honetako tutore orok, gaur egun ematen zaion balorazioa baino handiagoa izan beharko luke.

Azkenik, nire iritziz, Lehen Hezkuntzako tutoretzaren prozesuan oraindik bide luzea gelditzen da. Hau da, tutoreok inoiz ezin dugu pentsatu ikasitakoa nahikoa denik, izan ere, ikasleriari kalitatezko eta eguneratutako hezkuntza eskaintzeko formatzen jarraitu beharra dago. Alegia, beti, bidea, ikasleriaren garapen integrala (akademikoa eta pertsonala) arrakastatsua izatea xede izanda, hezkuntza eragile guztiok norabide berean lan egin behar dugu. Hau kontuan edukita, tutoretza hobetzeko asmoz, ondorengo proposamenak aurkezten ditut:

- Bakarkako elkarrizketak: tutorea, hilabeteetan behin bere gelako ikasle bakoitzarekin bakarka bilduko da bere egoeraz hitz egiteko, bai alderdi pertsonalez eta baita akademikoz ere. Hizketaldi hauen bitartez ikaslea gertutik ezagutzeko aukera izango du. Beti ere, giro lasai batean, irakasleak entzuteko eta laguntzeko jarrera azalduz.

Ikaslearen arabera, batzuek lehenago lortuko dute konfiantza, eta horrela errazago hitz egingo dute. Beste batzuk ordea, denbora gehiago beharko dute konfiantza hori eskuratzeko. Dena dela, irakasleak denbora hau errespetatu egin beharko du eta pazientziaz jokatu. Ondoren irakasleak bilera horietan hitz egindakoa fitxa batean erregistratuko du (7. eranskinean ikus daiteke).

- Soziograma: ikasgelako taldearen egitura, bakoitzaren rola eta harremanak nolakoak diren ezagutzeko asmoz, tutoreak galdeketa bat egingo die bere ikasleei. Galdetegia ebaluaketa bakoitzaren hasieran burutuko da, izan ere, adin honetan harremanak etengabe aldatzen dira.

Gainera, galdera horietan bi alderdi hartuko dira aintzat, pertsonala eta akademikoa. Esparru bietan aipatuko diren itaunetan beraien ikasgelan dauden bi izen jarri beharko dituzte. Galderak onespenekoak eta gaitzespenekoak izango dira (8. eranskinean ikus daiteke). Banaka eta zintzotasun osoz erantzun beharko dituztela aipatuko zaie, izan ere, bertan eskuratutako informazioa gelako dinamikak zein norabidetan landu behar diren jakiteko baliagarria izango delako.

Behin tutoreak itaunen orriak jasota, erantzunak erregistro orrian bilduko ditu (9. eranskinean ikus daiteke). Lotura zuzena duten bi galderako, bat onespenekoa eta bestea gaitzespenekoa, taula bat beteko du, esate baterako: “nori kontaktzen dizkiozu zure arazoak?” eta “nori ez zenizkioke kontaktuko zure arazoak?”. Eta erantzunak errazago antzemateko, bi kolore erabiliko dira, batetik urdina (onespenekoak) eta bestetik gorria (gaitzespenekoak) (Castell, 1982).

Ondoren, taulako emaitzak kontuan izanik bi itauneko (onespenekoa eta gaitzespenekoa) soziograma bat sortuko du, gezienez irudikatuta (10. eranskinean ikus daiteke) (Castell, 1982). Modu horretan, tutoreak, taldearen antolamendua nolakoa den errazago aztertu ahal izango du.

Soziograman lorturiko emaitzak oso esanguratsuak izango dira taldearen kohesioa zein norabidetan landu jakiteko, bazterketak ekiditeko, lan talde orekatuak sortzeko edota giro ona sustatzeko.

- Emozioen kutxa: ikasleei gelako txoko batean egongo den emozio kutxa aurkeztuko zaie (11. eranskinean ikus daiteke). Bertan, ikasle bakoitzak unean bertan edo egun horietan zehar sentitzen ari den emozioa orri batean idatzi eta tolestuta kutxan sartuko du. Emozioak ezberdinak izan daitezke, bizitzen ari den egoeraren arabera, adibidez: poza, beldurra, kezka, ilusioa, tristura...

Bestalde, ez dute zertan ikasle guztiek idatzi, dinamika hau askea da, hau da, nahi duenak idazten du. Astearen amaieran, tutoreak kutxa irekiko du eta barruan dagoen orri bat aterako du, orria norena den irakurri eta berari emango dio. Ondoren, ikasleak berak erabakiko du idatzitakoa irakurri nahi duen edo ez. Baietz erabaki ezkeror, irakurri egingo du. Jarraian, ikaskideei tartea emango zaie nahi dutena plazaratzeko, beti ere kidea errespetatuz. Aldiz, ez irakurtzea erabakitzen badu, ikasleak bere papera txikitu egingo du. Dinamika, kutxan sarturiko orriak ateratakoan amaituko da.

Azken batean, xedea egoera bakoitzean sentitzen dutena adierazteko txokoa edukitzea da. Aldi berean, nahi izan ezkeror kideekin partekatu dezakete, horrela, elkar gehiago ezagutuko dute. Hori bai, erosoago sentitzeko, gelan hitz eginikoa bertan geratzen dela onartu beharko dute.

Tutoreak, aipaturiko dinamiketan eskuraturiko informazioa ikasgelatik igarotzen diren gainontzeko hezkuntza eragileei helaraztea ezinbestekoa izango da. Izan ere, datu horiek ez dira arlo batekoak, baizik eta beraien egunerokotasunaren parte dira eta beraien jardueretan eragin zuzena dute.

## **8. Mugak eta hobekuntza proposamenak**

Gradu Amaierako Lan honetan egindako ikerketan, jarraitutako gauzatze prozesuari atxiki, hasieratik proposatutako xedea lortu ahal izateko erabilitako baliabideak eta metodologia egokiak izan dira. Hain zuzen, lau partaideen sosaldeen bidez hainbat alderdiri buruzko informazioa lortu behar zen, ondoren, zehatz-mehatz emaitza hauek analizatuz ahalik eta eduki aberasgarrienak biltzeko. Eta azkenik, hauek elkarren artean alderatzeko.

Era berean, lan oso luzea baina aldi berean motza izan da. Hots, alde batetik, LH-ko tutoretza eta hau inguratzen duen (historia; funtzioak, ezaugarriak, tutoretza-planak, perfil ezberdinak...) informazio anitz arakatu eta analizatu baita eta honek denbora asko eskaintzea dakar. Aldiz beste aldetik, lan hau egiteko denbora eta errekurtsio gehiago izango banitu hainbat hobekuntza eta sakontasun gehiago egingo nizkioke, lanak oraindik eta pisu handiagoa hartu dezan. Ondorengoak izango litzateke sakontasunak:

- Hizlarien lagina handitzea: Era honetan, esaterako jasotako emaitzak errealagoak izango ziren, alegia, ikuspuntu, esperientzia... gehiago lortuz errealitateari hobeto egokituz.
- Galdera gehiago gehitzea: Horrela, alderdi gehiago ezagutzeko aukera izateaz gain, hauek aztertzea aberasgarria izango zelako.
- Ikuspuntu ezberdinak aztertzea: Tutoreez gain, interesgarria izango zen ikasleei eta baita familiakoei ere elkarrizketa motz bat egitea, beraiek zer pentsatzen duten ikusteko tutorearen perfilari eta hau inguratzen duenari buruz.
- Beste etapekin alderatzea: Haur Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako tutoreek dituzten eginbeharrak Lehen Hezkuntzakoekin alderatzea, elkarren artean dagoen lana antzekoa den edo ez ikertzeko.
- Zuzenean bizitzea: Hizlari batekin astebetetz egotea tutoretza lana gertutik bizi eta honek beregan hartzen dituen betebeharrak guztiak zeintzuk diren zuzenean ikusi eta sentitzeko.
- Proposamenak gauzatzea: Tutoretza hobetzeko asmoz, pentsaturiko hiru proposamenak ikasle talde batekin jorratzea ziurtatzeko ea egokiak diren.

Amaitzeko, adierazi beharra daukat, egindako lana ekarpen txiki bat soilik izan dela, hain zuzen, oraindik bide luzea baitago egiteko gai honen inguruan. Hitz gutxitan, etorkizun hurbil batean irakaskuntza munduan sartzean, tutoretza eta hau inguratzen dituen alderdi guztiei beharrezkoa den garrantzia emateko baliagarria izan zait ikerketa lan hau egitea.

## 9. Erreferentziak

- Angrosino, M. (2012). *Etnografía y observación participante en investigación cualitativa*. Madrid: Morata.
- Arnaiz, P. & Isús, S. (1995). *La tutoría, organización y tareas*. Bartzelona: Graó.
- Barela, L., Mercedes, M. eta García Conde, L. (2004). *Algunos apuntes sobre historia oral*. Buenos Aires: Instituto Histórico de la Ciudad de Buenos Aires.
- Castell, R. (1982). *El análisis científico de la personalidad y la motivación*. Madrid: Pirámide.
- Ceballos García, M. J., Sevilla Arispón, A. & Tena Rosa, M. (1998). *La acción tutorial. De la práctica a la teoría*. Madrid: Bruño.
- Colás Bravo, M<sup>a</sup> P., Buendía Eisman, L. & Hernández Pina, F. (2009). *Competencias científicas para la realización de una tesis doctoral: Guía metodológica de elaboración y presentación*. Bartzelona: Editorial Davinci.
- Del Pozo, M. (2011). La orientación y la acción tutorial en la etapa de primaria. *Reflexiones y Experiencias Innovadoras en el Aula*, (28).
- Dorio, I., Massot, I. & Sabariego, M. (2012). Metodología cualitativa. In R. Bisquerra, (Coord.), *Metodología de la investigación educativa* (3.atal., 273-366 or.). Madrid: La Muralla.
- Espainiako Gobernua. (1970). *Ley General de Educación y Financiamiento de la Reforma Educativa (14/1970 Legea, abuztuaren 4koa)*. Madrid: Boletín Oficial del Estado. 2019-09-20an hemendik hartuta, <https://www.boe.es/boe/dias/1970/08/06/pdfs/A12525-12546.pdf>
- Espainiako Gobernua. (1980). *Ley Orgánica Reguladora del Estatuto de Centros Escolares (5/1980 Lege Organikoa, ekainaren 19koa)*. Madrid: Boletín Oficial del Estado. 2019-09-20an hemendik hartuta, <https://www.boe.es/boe/dias/1980/06/27/pdfs/A14633-14636.pdf>
- Espainiako Gobernua. (1985). *Ley Orgánica del Derecho a la Educación (8/1985 Lege Organikoa, uztailaren 3koa)*. Madrid: Boletín Oficial del Estado. 2019-09-20an hemendik hartuta, <https://www.boe.es/boe/dias/1985/07/04/pdfs/A21015-21022.pdf>
- Espainiako Gobernua. (1990). *Ley Orgánica de Ordenación General del sistema Educativo (1/1990 Lege Organikoa, urriaren 3koa)*. Madrid: Boletín Oficial del Estado. 2019-09-23an hemendik hartuta, <https://www.boe.es/boe/dias/1990/10/04/pdfs/A28927-28942.pdf>

- Espainiako Gobernua. (2002). *Ley Orgánica de Calidad de la Educación (10/2002 Lege Organikoa, abenduaren 23koa)*. Madril: Boletín Oficial del Estado. 2019-09-23an hemendik hartuta, <https://www.boe.es/boe/dias/2002/12/24/pdfs/A45188-45220.pdf>
- Espainiako Gobernua. (2006). *Ley Orgánica de Educación (2/2006 Lege Organikoa, maiatzaren 3koa)*. Madril: Boletín Oficial del Estado. 2019-09-23an hemendik hartuta, <https://www.boe.es/boe/dias/2006/05/04/pdfs/A17158-17207.pdf>
- Espainiako Gobernua. (2013). *Ley Orgánica para la mejora de la Calidad Educativa, (8/2013 Lege Organikoa, abenduaren 9koa)*. Madril: Boletín Oficial del Estado. 2019-09-23an hemendik hartuta, <https://www.boe.es/boe/dias/2013/12/10/pdfs/BOE-A-2013-12886.pdf>
- Euskal Autonomia Elkarte Xedapen Orokorrak. Eusko Jaurlaritzaren legebiltzarra. (1993). *Euskal Eskola Publikoari buruzkoa (1/1993 Legea, otsailaren 19koa)*. Vitoria-Gasteiz: EHAA. 2019-09-26an hemendik hartuta, <http://www.boe.es/ccaa/bopv/1993/038/p01499-01539.pdf>
- Euskal Autonomia Erkidegoa. Eusko Jaurlaritzaren legebiltzarra. (2007). *Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntzaren curriculum (175/2007 Dekretua, urriaren 16koa)*. Vitoria-Gasteiz: EHAA. 2019-09-26an hemendik hartuta, <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2007/11/0706182a.pdf>
- Euskal Autonomia Erkidegoa. Eusko Jaurlaritzaren legebiltzarra. (2010). *Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntzaren curriculum (97/2010 Dekretua, martxoaren 30ekoa)*. Vitoria-Gasteiz: EHAA. 2019-10-02an hemendik hartuta, <http://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2010/04/1002109a.pdf>
- Euskal Autonomia Erkidegoa. Eusko Jaurlaritzaren legebiltzarra. (2015). *Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntzaren curriculum (236/2015 Dekretua, abenduaren 22koa)*. Vitoria-Gasteiz: EHAA. 2019-09-26an hemendik hartuta, <https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2016/01/1600141e.pdf>
- Fernández, S. R., & Lozano, M. R. (2015). La función tutorial en Educación Infantil y Primaria: desempeño profesional del profesorado. *Revista Electrónica Interuniversitaria de Formación del Profesorado*, 18(2), 43-55.
- Galve, M. J. & García, E. M. (1992). *La acción tutorial en la enseñanza no universitaria (3-18 años)*. Madril: CEPE.
- Galve, J.L. (2002). *Orientación y Acción tutorial*. Madril: Cepe.



- García Llamas, J. L. (2003). *Métodos de investigación en educación. Volumen II, Investigación cualitativa y evaluativa*. Madrid: UNED.
- Giner, A., & Puigardeu, Ó. (2008). *La tutoría y el tutor: estrategias para su práctica*. Barcelona: ICE, Universitat de Barcelona.
- González, A. & Vélaz de Medrano (2014). *La acción tutorial en el sistema escolar*. Madrid: UNED.
- Irakaskuntzaren eta Ikerketen Etikarako Unibertsitate Batzordea. (d. g). *Gizakiekin Ikerketa, Etika*. 2019-11-27an hemendik hartuta, <http://www.ehu.eus/eu/web/ceid/ceish/etika>
- Lázaro, A. (1997). La acción tutorial de la función docente universitaria. *Revista Complutense de Educación*, 8 (1).
- Lázaro, A. (2008). Diferencias cualitativas entre experiencias tutoriales para opciones de aprendizaje universitario. *Revista Interuniversitaria de Formación del Profesorado*, (61), 109-138.
- Mañú, J. M. (2006). *Manual de tutorías*. Madrid: Narcea.
- Morales, A. B. (2010). La acción tutorial en Educación., *Revista educativa digital, Hekademos* (7), 95-114.
- Muro Gómez, M. (2007). Planificación de la acción tutorial. In Longás, J. & Mollá, N. (Coord.), *La escuela orientadora: la acción tutorial desde una perspectiva institucional* (4), 89-104. Madrid: Narcea.
- Negrín, O. & Vergara, J. (2009). *Historia de la educación*. Madrid: Editorial Universitaria Ramón Areces-UNED.
- Negrín, O. (Coord.) (2012). *Historia de la educación española*. Madrid: UNED.
- Thompson, P. (1988). *La voz del pasado: la historia oral*. España: Edicions Alfons el Magnànim, Institució Valenciana D`Estudis I Investigació.

# ERANSKINAK

## 1. eranskina. Lehen Hezkuntzako tutorearen bilakaera historikoaren laburpena.

### TESTUINGURU HISTORIKOA

- Grezia: norabide batean oinarritutako irakaskuntza.
- Erroma: ezagutzak transmititzeko, praktikotasunean oinarritzea.
- Erdi Aroa: tutoretza-ekintza ikaskuntzarako laguntza gisa sortu.
- Aro Modernoa: tutoretzak, ikasgelako ikasle orok dituen ezaugarri guztiak onartzea, errespetatzea eta aintzat hartzea.
- Aro Garaikidea: printzipio eta eredu berriak hezkuntza ulertu ahal izateko: irakaskuntzaren erdian ikaslea; irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan bideratzailea ikaslea; ikasleek dituzten jakin minak, bai taldekoak zein indibidualak, kontuan edukitzea landuko diren alderdiak eratzekoan.


### HEZKUNTZA LEGEAK ESTATU MAILAN (EAO)

- LGE (14/1970 legea): ikasgela bakoitzean tutore bat izatea eta tutoretza hezkuntzako maila guztietan jartzea.
- LOECE (5/1980 legea): tutoretza eta orientazioarekin loturiko funtzioen koordinazioaren aipamena soilik jaso.
- LODE (8/1985 legea): hezkuntza eragile guztiak arduradun tutoretza-ekintzan eta ikasleriari eskainitako tutoretzan.
- LOGSE (1/1990 legea): tutoretza eta gidaritza nahitaezkoak kalitatezko hezkuntzarako, ikasleriaren eskubidea eta irakasleria ororen zeregina.
- LOCE (10/2002 legea): gobernu aldaketagatik, legea bertan behera utzi.
- LOE (2/2006 legea): tutoretza kalitatezko printzipioa izateaz gain, ikasleriak hezkuntza integrala lortzeko tresna da. Irakasleria guztiaren ardura da tutoretza-ekintza, egoki aurrera eramatea.
- LOMCE (8/2013 legea): ez dago aldaketarik aurreko legearekin alderatuta.


### HEZKUNTZA LEGEAK AUTONOMIA ERKIDEGO MAILAN (EHAA)

- 1/1993 legea: ikasle orori bere garapenarekin (akademikoa eta pertsonala) loturiko alderdi guztietan lagundu eta gidatu.
- 175/2007 dekretua: tutoretza eta gidaritza etengabekoa izatea eta tutore zein ikasle talde berdinean jarduten duten eragile guztien ardura. Ikasle bakoitzaren eskola txostena egin. Familiei ikaslearen hezkuntza-prozesuaren berri eman.
- 97/2010 dekretua: azken dekretuarekiko ez da aldaketarik ematen.
- 236/2015 dekretua: aurreko legeetan esandakoa birgogoratu eta tutoretzak ikasgelatik kanpoko bizitzarako baliogarria izan. Tutoretzaren arduradun nagusia tutorea, baina beste eragile guztien laguntza beharrezkoa.

## LEHEN HEZKUNTZAKO TUTOREA




## 2. eranskina. Tutoretza-plana urratsez urrats.



1. **grafikoa.** Tutoretza-planaren urratsak (autorearen ekarpena Muro egilean oinarrituta, 2007).

### 3. eranskina. Lehen Hezkuntzako tutorearen kontzeptu ezberdinen laburpena.



#### 4. eranskina. Elkarrizketetan egingo diren galderak.

##### 1. Elkarrizketatuaren datu pertsonalak:

Izena eta abizenak:	Adina:	Ikastetxeak duen izaera:
Urte kopurua hezkuntza munduan jarduten:	Urte kopurua tutore izaten:	Ikastaldearen adina tutore izandakoan:

1. taula. Elkarrizketatuaren datu pertsonalak.

##### 2.Tutorea hitzaren definizioa:

- Lehen Hezkuntzako tutorea izatea zer den nola definituko zenuke?
- Zein alderdi hartzen dira kontuan ikastalde bateko tutorea zein izango den erabakitzerakoan? Pertsonalki zuretzat zein alderdi hartu beharko lirateke kontuan?
- Lehen Hezkuntzako tutorea zenbat ikasturtez izaten da ikasle talde berdinen tutore?
- Tutore izandako denbora tartean ikasleekin nolako harremana izaten duzu?
- Ezaugarri pertsonal eta profesionalei dagokionez, zuretzat zeintzuk dira tutore orok izan beharko lituzkeenak?
- Tutore bezala formatzeko unibertsitatean edota ostean formakuntzarik edo antzekorik inoiz jaso duzu? Zure ustez zein arrazoigatik ez duzu formakuntzarik jaso (jasotako erantzuna ezezkoa izan ezkerro)?
- Urte batzuk atzera begira, lehendik gaur egunera tutorearen ezaugarriak eta bere rola aldatu al dira? Zu zeuk, irakaskuntza munduan hasi zinenetik aldaketarik igarri al duzu? Zeintzuk?

##### 3.Tutoreak bete beharreko funtzioak eta eginbeharrak:

- Lehen Hezkuntzako tutoreak eginbehar asko ditu, baina, zeure ustez zeintzuk dira betebehar nabarmenenak ikasleei, familiei eta beste hezkuntza eragileei dagokionez?
- Funtzioak direla eta, irakaskuntza munduan lanean hasi zinenetik gaur egunera bitarte berdina edo antzekoa izaten jarraitzen al dute? Zein motatako aldaketak nabarmentzen dituzu (jasotako erantzuna aldaketak egon direla izan ezkerro)?
- Tutore bezala, zeintzuk dira gehien jorratzen dituzun alderdiak (akademikoaz aparte, elkarbizitza, autonomia, errespetua eta abar) ikastaldearen garapen integralean?
- Tutoretza jorratzean, curriculumak zer nolako garrantzia hartzen du zure eginbeharretan?

- Curriculumarekin jarraituz, tutoretzaren funtzioei dagokionez, azken urte hauetan izan diren aldaketetatik, zeintzuk azpimarratuko zenituzke?

#### **4.Tutoretza-ekintza edo tutoretza:**

- Zure gelan tutoretza lantzerakoan, pentsatzen dut batzuetan taldeko tutoretza egingo duzula, baina beste batzuetan bakarkakoa ezta? Bakarkakoan ikasle bakoitzaren beharrei erantzutea errazagoa da, baina talde osoko tutoretzaren bidez lan egiterakoan, nola egiten duzu norbanako bakoitzaren beharrak erantzuteko?
- Zure ustez, gaur egun tutoretza-ekintzaren edo tutoretzaren arduraduna soilik tutorea al da? Eta orain dela urte batzuk?
- Antzina batean tutoretzak bakarkako lan karga handiagoa eskatzen bazuen, aldaketa hau nola bizi izan duzu? (aldaketarik bizi izan baduzu)
- Tutoretza egoki aurrera eramateko ikasle talde berdinetik igarotzen diren hezkuntza eragile guztiak, alegia, irakasleak, espezialistak, familiak, komunitateko partaideak eta abar, inplikatzeko al dira? Eragile bakoitzaren inplikazioa zer nolakoa da?
- Aipaturiko hezkuntza eragileen inplikazioa, orain dela urte batzuetakoa eta egungoa desberdina edo berbera dela iruditzen zaizu? Desberdina bada, zein alderditan nabaritu duzu? Ikastetxean bertan, beste bideren bat edo aukeraren bat ireki al da tutoretzan parte hartu al izateko?
- Zeure ikasleen gelatik igarotzen diren beste irakasleria eta espezialista orok inplikagarri koordinatzeko eta denon eginbeharra (ikaslearen garapen integrala erraztea; ikasle bakoitzaren ezaugarri guztiak errespetatu eta kontuan hartzea) arrakastatsua izateko, zer da egiten duzuen? Eta orain dela urte batzuk?

#### **5.Tutoretza-plana:**

- Tutoretza-planari dagokionez, irakaskuntzan hasi zinenetik gaur egunera plana berdin eraten da? Desberdina bada, zeintzuk dira nabaritu dituzun aldaketa?
- Ikastetxean tutoretza-plana aurrera eramatea garrantzitsua dela iruditzen zaizu? Zer dela eta?

## **5. eranskina. Konfidentzialtasun hitzarmena.**

Gasteizeko (EHU) Hezkuntza eta Kirol Fakultatean, zehazki, Lehen Hezkuntzako Gradua burutzen ari naizen ikasle bat naiz eta 2019/2020-ko ikasturtea nire graduaren azken urtea da. Adierazi beharra dut, gauzatzen ari naizen ikasketekin amaitzeko, Gradu Amaierako Lana egitea besterik ez zaidala gelditzen. Zehazki, jorratzen ari naizen gaia, Lehen Hezkuntzako tutorearen inguruan hainbat alderdi aztertzea izan da.

Lehen Hezkuntzako tutore orok betetzen duen funtzioa zein den, nolakoa den eta urte batzuk lehenagokoaren era oraingoaren artean dauden aldaketak zein diren aztertzen da lana. Horretarako ikerketa kualitatiboa erabiliko da. Zehatz-mehatz, elkarrizketatuarengandik ahalik eta informazio gehien jasotzeko asmoz, egingo diren elkarrizketak erdi-egituratuak izango dira. Ideia hau argi edukita, nire lanean lagungarria izango zarelakoan, zuregana natorkizu laguntza eskatzera.

Horrela ba, elkarrizketan hitz egiten dena, grabagailu baten bidez jaso izango da. Hori ordea elkarrizketatua ados dagoen kasuan emango da, bestelako kasuan berriz, informazio guztia idatziz jasoko da. Ondoren, elkarrizketako datu guztiak esku artean ditudala, jasotako informazioa analizatu eta propio diren ondorioak jorratuko dira.

Gainera, elkarrizketetan borondatez parte hartu duen jaun/andere-aren identitatea errespetatua eta babestua izango da. Hau kontuan edukita, une batean ere ez da elkarrizketatuaren izena azalduko, bakarrik bere adina zenbatekoa den eta sexua zein den. Horrez gain, elkarrizketa grabatua izanez gero, guztiz konfidentziala izango dela ziurtatzen dut.

Beraz, konfidentzialtasun hitzarmen hau sinatzean, ondorengoak baieztatzen dut:

- Ikerketan guztiz borondatez parte-hartzea dut.
- Elkarrizketa soilik lan honetara bideratua izateaz gain, inongo une batean ere ez nire izena azalduko.
- Elkarrizketan zehar egindako galdera guztiak ikerketara zuzendurik egongo dira. Gainera, ez da ezer gertatzen uneren batean galderaren bat ez erantzutearren.
- Gral-a nahi dudanerako eskuragarri izango dut.
- Zalantzaren bat edukiz gero, elkarrizketatzailearekin biltzeko arazorik ez dut izango.

Mila esker nire Gradu Amaierako Laneko ikerketan parte-hartzeagatik.

Izena eta abizenak parte-hartzailearena,  
eguna eta sinadura

Izena eta abizenak elkarrizketatzailearena,  
eguna eta sinadura



## 6. eranskina. Lorturiko emaitzak taulan bilduta.

Emaitza guztiak lau multzotan banatu dira: Tutorearen perfila; tutoreak bete beharreko funtzioak eta eginbeharrak; tutoretza-ekintza; eta tutoretza-plana. Horrez gain, informazioa egoki analizatzeko solasaldiak bi taldetan ezberdintzen dira, alde batetik, eskarmentu gutxiko tutoreak eta beste aldetik, eskarmentu askokoak.

<b>1. LH-ko tutorearen perfila</b>	<b>ALDERDIAK</b>	<b>ESKARMENTU GUTXIKO TUTOREAK</b>	<b>ESKARMENTU ASKOKO TUTOREAK</b>
	<b>1.1. TUTOREAREN IZAERA</b>	-Dinamizatazailea. -Hezkuntzako laguntzailea. -Aspektu askoren kontrolatzailea. -Ikasleen erritmoa kontuan hartzen.	-Ikastetxeko "gurasoa". -Ezaugarri fisiko eta psikikoak lortzen lagundu. -Jakin-minak asetzea. -Garapen prozesua alderdi denak landu.
	<b>1.2. IKASLERIAREKIKO HARREMANA</b>	-Gertukoa. -Kolaboratzailea. -Laguntzailea.	-Guraso antzekoa. -Gertukoa. -Estua. -Sendoa.
	<b>1.3. EZAUGARRI PERTSONALAK</b>	-Gertukoa. -Enpatikoa. -Alaia. -Berritzailea. -Entzule fina. -Flexiblea. -Positiboa. -Portaera egokikoa. -Aktiboa -Pazientziaduna. -Inplikatua.	-Positiboa. -Asertiboa. -Pazientziaduna. -Sentsiblea. -Harreman onekoa. -Flexiblea. -Inplikatua. -Enpatikoa. -Gertukoa. -Portaera egokikoa. -Alaia. -Jarrera aldakorrek sahiestea.
	<b>1.4. EZAUGARRI PROFESIONALAK</b>	-Ikasleriarekin harremandu. -Ikasleria entzun. -Ikasleria errespetatzea. -Hezkuntza pertsonalizatua. -Eraikitzailea. -Taldea bultzatu. -Berritzailea. -Irakasleriarekin koordinatu. -Gurasoekin harremandu. -Beharrezko titulazioa.	-Ikasleria ezagutu. -Ikasleriaren erdua. -Formazio teorikoa. -Ezagutza praktikoak. -Beharrezko titulazioa. -Eguneratuta egotea. -Mintegietara joatea. -Polibalientea. -Irakasleriarekin eta gurasoekin harremandu.
	<b>1.5. FORMAKUNTZA EDO ANTZEKORIK</b>	-Tutoretzarako batez. -Ikastaro ezberdin pilua.	-Tutoretza inguruko formakuntza batenbat (hizlari batek). -Ikastaro ezberdin pilua.

	<p><b>1.6.</b> <b>GARAPEN PROZESUA</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>-Ikasleriaren ezaugarriak gehiago errespetatu.</li> <li>-Tutorearen inplikazioa handiagoa.</li> <li>-Tutore perfila gertuago.</li> <li>-Ikasleria da protagonista.</li> <li>-Teknologiaren agerpena.</li> <li>-Garapen integrala bultzatu.</li> <li>-Gurasoen hurbiltasuna.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>-Gizartea eraldatu.</li> <li>-Ikasleria da protagonista.</li> <li>-Ikasleriaren beharrak erantzutea.</li> <li>-Jakintzak dakitenaren gainean eraiki.</li> <li>-Metodologia berriak.</li> <li>-Tutorearen inportantzia.</li> </ul>
<p><b>2. Tutoreak bete beharreko funtzioak eta eginbeharrak</b></p>	<p><b>2.1.</b> <b>IKASLERIAREKIKO</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>-Ikasleria protagonista.</li> <li>-Gida-laguna.</li> <li>-Behatzailea.</li> <li>-Libre uztea.</li> <li>-Heldutze prozesuko oinarriak ezartzea.</li> <li>-Ezaugarriak kontuan hartzea eta errespetatzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>-Beraien jakinminak kontuan eduki.</li> <li>-Ikasleria protagonista.</li> <li>-Gida-laguna.</li> <li>-Behatzailea.</li> <li>-Premiak erantzutea.</li> <li>-Ezaugarriak kontuan hartzea eta errespetatzea.</li> </ul>
<p><b>2.2.</b> <b>IRAKASLERIAREKIKO</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>-Harremandu.</li> <li>-Koordinatu.</li> <li>-Informazioa partekatu.</li> <li>-Gertuko erlazioa.</li> <li>-Bilerak sarri egin.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>-Koordinatu.</li> <li>-Harremandu.</li> <li>-Informazioa partekatu.</li> <li>-Gertuko erlazioa.</li> <li>-Bilerak sarri egin.</li> </ul>	
<p><b>2.3.</b> <b>GURASOEKIKO</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>-Gertuko harremana.</li> <li>-Harremana zuzena.</li> <li>-Informazioa partekatu.</li> <li>-Komunikazioa harremana etengabekoa.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>-Gertuko harremana.</li> <li>-Harremana zuzena.</li> <li>-Informazioa partekatu.</li> <li>-Komunikazioa harremana etengabekoa.</li> </ul>	
<p><b>2.4.</b> <b>EGINBEHARREKIKO GARAPEN POZESUA</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>-Aldaketa eskasak.</li> <li>-Premiak denborarekin aldatu.</li> <li>-Gurasoekin bilerak.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>-Aldaketa eskasak.</li> <li>-Gurasoekiko gertutasuna.</li> <li>-Bilerak egiterakoan zailtasunak.</li> </ul>	
<p><b>2.5.</b> <b>IKASLERIAREKIN JORRATZEN DIREN ALDERDIAK</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>-Baloreak</li> <li>-Autonomia.</li> <li>-Taldearen kohesioa</li> <li>-Elkarren erlazioak estutzea.</li> <li>-Emozioen lanketa.</li> <li>-Euskeraz mintzatzea.</li> <li>-Hezkidetza.</li> <li>-Eduki pertsonalak zein akademikoak.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>-Harremanak indartzea.</li> <li>-Taldearen kohesioa.</li> <li>-Autonomia.</li> <li>-Baloreak.</li> <li>-Elkarbizitzen ikastea.</li> <li>-Hezkidetza</li> <li>-Talde kohesioa.</li> <li>-Une batzuetan garrantzia gehiago eduki akademikoari.</li> </ul>	

	<b>2.6. CURRICULUMAREN ERABILPENA</b>	-Oso gutxi erabili. -Kurso programazioak gauzatzekoan.	hasieran	-Apenas erabili. -Liburuetako editorialetaz fidatu.
<b>3. Tutoretza-ekintza edo tutoretza</b>	<b>3.1. IKASLERIAREN BEHARREI ERANTZUTEA</b>	-Bakarkako tutoretza normalean. -Mahitik-mahi joan. -Galderak egin. -Orrien eta taldeen dinamikak.		-Bakarkako tutoretza normalean. -Zer eta nola lantzearen garrantzia. -Ikasleriaren ezaugarrik kontuan hartu. -Galderak egin.
	<b>3.2. ARDURADUNA</b>	-Hezkuntza eragile guztiak (tutorea, irakasleria, familiak, jantokiko arduraduna, espezialista...)		-Ikasleriaren arduradun nagusia tutorea.
	<b>3.3. HEZKUNTZA ERAGILEEK DUTEN INPLIKAZIOA</b>	-Handia. -Taldean lan egitearen garrantzia. -Gaur egun duten garrantziaz jakitunago.		-Handia. -Antzekoa iza da beti. -Egun gurasoak indibidualistagoak dira.
	<b>3.4. HEZKUNTZA ERAGILEEKIKO HARREMANA</b>	-Bilera asko. -Elkarrizketa ugari. -Egunero zenbait eta beste batzuk une puntualetan.		-Bilera asko. -Elkarrizketa ugari. -Egunero zenbait eta beste batzuk une puntualetan.
<b>4. Tutortza-plana</b>	<b>4.1. ERABILPENA</b>	-Ikastetxean plana (hizlari batek). -Lana erraztu. -Orientatzeko baliagarria. -Alderdi asko bildu.		-Txosten erako bat. -Lagungarria. -Alderdi ezberdinak bildu.

2. taula. Emaitzen taula.

7. eranskina. Bakarkako elkarrizketako fitxa.

**IKASLEA EZAGUTZEN**

**Ikaslearen izena:**

**Data:**

**Ordua:**

**Bilera kopurua:**



**1- Alderdi pertsonala:**

- Errespetatzen al dituzu ikaskideak?

---

---

- Lagunekin ondo konpontzen al zara?

---

---

- Kalera lagunekin irteten al zara?

---

---

- Hilabete honetan zehar gatazken bat izan al duzu? Nola konpondu duzu?

---

---

- Etxean lanak bakarrik burutzen dituzu?

---

---

- Zure ingurunean dauden arauak errespetatzen al dituzu?

---

---

- Besterik?

---

---

**2- Alderdi akademikoa:**

- Zure burua nola ikusten duzu ikasgelan?

---

---

- Nolakoa da zure parte-hartzea ikasgelan?

---

---

- Nola aritzen zara talde lanean?

---

---

- Nola aritzen zara bakarka?

---

---

- Zure burua zein arlotan ikusten duzu trebeen?

---

---

- Zein arlo hobetu dezakezu?

---

---

- Besterik?

---

---

8. eranskina. Ikasleek soziograma egiteko bete beharreko galderen fitxa.

**SOZIOGRAMAKO GALDETEGIA**

**Ikaslearen izena:**

**Data:**

**1- Alderdi pertsonala:**

<b>GALDERAK</b>	<b>IZENA 1</b>	<b>IZENA 2</b>
1- Nori kontaktzen dizkiozu zure arazoak?		
2- Nori ez zenizkioke kontaktuko zure arazoak?		
3- Norekin gustatzen zaizu kalera irtetea?		
4- Norekin ez zinateke kalera irtengo?		
5- Irteera batean noren ondoan eseriko zinateke?		
6- Irteera batean noren ondoan ez zinateke eseriko?		
7- Jolas orduan norekin gustatzen zaizu jolastea?		
8- Jolas orduan norekin ez zaizu gustatzen jolastea?		

**2- Alderdi akademikoa:**

<b>GALDERAK</b>	<b>IZENA 1</b>	<b>IZENA 2</b>
1- Noren ondoan eseriko zinateke gelan?		
2- Noren ondoan ez zinateke eseriko gelan?		
3- Norekin geratuko zinateke ikasteko?		
4- Norekin ez zinateke geratuko		

ikasteko?		
5- Talde lanean norekin arituko zinateke gustura?		
6- Talde lanean norekin izango zenituzke arazoak?		

9. eranskina. Soziograma egiteko erantzunak erregistratzeko orria.

**SOZIOGRAMAKO ERREGISTRO ORRIA BI GALDERAKO**

IKASLEAK	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17	18
1																		
2																		
3																		
4																		
5																		
6																		
7																		
8																		
9																		
10																		
11																		
12																		
13																		
14																		
15																		
16																		
17																		
18																		

❖ Bi ardatzetan ikasleen izenak egongo dira. Ardatz horizontalean, ardatz bertikaleko ikasleek aukeratutako erantzunak jasoko dira.




## 10. eranskina. Soziograma.

### SOZIOGRAMA

Hona hemen soziograma baten adibidea:

Galderak: “Nori kontatzen dizkiozu zure arazoak?” eta “nori ez zenizkioke kontatuko zure arazoak?”. Onespenekoak gezi urdinarekin adierazita eta gaitzespenekoak gezi gorriarekin.



1. irudia. Soziograma adibidea.

11. eranskina. Emozioen kutxa.

**EMOZIOEN KUTXA**

Emozioen kutxa ariketarako honako kutxa erabili daiteke.



*2. irudia. Emozioen kutxa baten adibidea.*

## 12. eranskina. Elkarrizketetako transkripzioak.

Ondorengo orrietan egindako lau elkarrizketen transkripzioak azaltzen dira. Lehenengo biak esperientzia gutxikoa Lehen Hezkuntzako tutoreak azaltzen dira, hau da, irakaskuntza munduan zortzi urte edo gutxiago daramaten irakasleak. Ondoren, beste bi parte-hartzaileen elkarrizketak aurkitzen dira, hots, hogeita hamabi urtetik gorako esperientzia duten irakasleak.

### 4.1. LHTEG1 (*Lehen Hezkuntzako Tutorea Esperientzia Gutxikoa Bat*)

**-Elkarrizketatzailea (Iñaki): Kaixo, zer moduz?**

**-LHTEG1:** Kaixo

**-Iñaki:** Elkarrizketa hasi aurretik ondorengo taulan bilduko ditut zure datuak.

<b>Izena eta abizenak:</b> LHTEG1	<b>Adina:</b> 27 urte	<b>Ikastetxeak duen izaera:</b> Pribatua
<b>Urte kopurua hezkuntza munduan jarduten:</b> Lau urte	<b>Urte kopurua tutore izaten:</b> Hiru urte	<b>Ikastaldearen adina tutore izandakoan:</b> 8,9,10 eta 11 urte

3. taula. LHTEG1 datuak.

**-Iñaki:** Lehen Hezkuntzako tutorea izatea zer den nola definituko zenuke?

**-LHTEG1:** Zer den izatea...mmm...Lehen Hezkuntzako tutoreak nire ustez, ikasle bakoitzak duen erritmoa kontuan hartu behar da eta errespetatu, ba ikaslearen heziketa prozesu osoan zehar laguntzen ari den pertsona da tutorea, o holako zerbait nire ustez klaro. Beti ere, tutoreak agian irakasle normal batek ez duen ezaugarri gehiago edukitzen ditu...mmm... ikasle guztiekiko enpatia du, baita beti entzuten jakin behar du, bakoitza den bezelakoa errespetatu behar du, eske.... gaur egun ikasle bakoitza oso desberdina da nahiz eta gela berdinean egon. Gainera, ikaslearen hezitze prozesuan guztiz laguntzailea da eta beraien autonomoa eta baloreak landu behar dira azken batean. Tutorea ez da soilik akademikoan zentratzen, beste milaka alderdi daude eta... Eta gero e bai... nere ustez adibidez ba... e... Lehen Hezkuntzako tutorearen figura oso garrantzitsua da ikasleak etorkizuneko pertsona heldu bazela garatzeko, benetako baloreak irakatsi behar zaizkie.... adibidez, ba.. elkarrekiko errespetua, elkarrekiko laguntasuna, lankidetzeta eta beste milaka gauza... oinarri sendo bat egiteko batez ere LH-n landu behar dira egoki... ta... horrexegatik pentsatzen dut etapa honetako tutoreak lan handia daukela eta hala nola presio pixka bat ere.

**-Iñaki:** Bai bai oso ados, etapa honetan tutorearen lana oso garrantzitsua dela uste dut nik ere. Ta zein alderdi hartzen dira kontuan ikastalde bateko tutorea zein izango den erabakitzerakoan? Pertsonalki zuretzat zein alderdi hartu beharko lirateke kontuan?

**-LHTEG1:** Zein alderdi hartzen diren kontuan?... ba... egia esan idea askorik ez dut, sekula ez dudalako aukeratu Lehen Hezkuntzako ikasle talde bateko tutorea zein izan behar den.... Baina... pentsatzen dut gaur egun arte titulua eta gero ba euskarazko EGA eduki behar direla.... Baina ez dakit e, nik magisteritzako azken praktikak egin nituen ikastolan oso gustura gelditu ziren egin nuen lanarekin eta ea bertan lanean hastea gustatuko litzaidakeen esan zidaten eta ez nuen segundu bat ere pentsatu....

**-Iñaki: Bai hori da, eta zure eskuetan egongo balitz aukeratzea, zein alderdi hartuko zenuke kontuan?**

**-LHTEG1:** Nire esku?? Ba beida, batez ere tutorea oso aktiboa izatea ezinbestekotzat hartzen dut... mmm ta gero ba lehen esan ditudanak ba baita ere. Gero ebai, pentsatzen dut, tutore batek argi eduki behar duela ikasle bakoitzari denbora jakin bat eskaini behar zaiola eta guztientzat denbora hori ezberdina izango dela... aber gero ere egia da zenbait kasutan zaila bihurtzen da gelan 20 ikasle dituzula bakoitzari bere denbora eskaintzea, baina bueno... ni neu saiatzen naiz denbora bat hartzen eta ikasle bakoitzaren ezaugarriak kontuan hartuta ahal den neurrian heziketa pertsonalizatu bat jorratzen berarekin.... ta ba... hemen ez da amaitzen, gero ere guraso bakoitzarekin erlazionatzen, bakoitzaren kezka entzuten... jakin behar da, baita beste eskolako irakasleekin koordinatzen, eta eskolarekin ba... koordinatzen ere jakin behar da.

**-Iñaki: Bai ba, ta zure eskolan Lehen Hezkuntzako tutorea zenbat ikasturtez izaten da ikasle berdinen tutore?**

**-LHTEG1:** Zenbat urtez? Ba gure eskolan... mmm... ni urte gutxi noa, baina orain arte bizi izandakoaren arabera, tutorea bi urtez egoten da ikasle talde batean.

**-Iñaki: Eta tutore izandako denbora tartean ikasleekin nolako harremana izaten duzu?**

**-LHTEG1:** Nik neuk, ez dakit orain dela gutxi hasi naizelako edo... baina gaur egun arte ikasleekin oso gertuko harremana, laguntzailea, kolaboratzailea... mmmm... enpatikoa baina baita ere aldi berean akademikoa, gustatzen zait ikasleei egur pixka bat ematea ere eta. Bai baina bueno, gero ere... bai lehen esan dizuten bezala ez ba... balore egokiak aurrera eramatearekin ez naiz sekula ahazten eta garrantzia handi ematen diot alderdi honi. Eta baita ere, beti saiatzen naiz batez ere tutoretza ordutan konfiantzazko tailerrak bai bere buruarekiko edo baita beraien lagunekiko lanketak egiten, beraien autoestima altua izateko tailerrak... eta beste asko. Baina bai hezkuntza arrakastatsu bat bultzatzeko ikasle eta tutorearen harreman beroa izan behar da.

**-Iñaki: Ba bai, harremana hotza baldin bada jai daukagu beste guztiarekin, eta ezaugarri pertsonal eta profesionaleri dagokionez, zuretzat zeintzuk dira tutore orok izan beharko lituzkeenak?**

**-LHTEG1:** Ba begira, pertsonalak.... lehen azalduriko guztiak, ikasleekin gertuko harreman izan behar duela, enpatikoa, alai... gero ere berritzailea, eta batez ere mundu honetan urte

gutxi daramagunok... mmm ba... profesionalak nire ustez, mundu honetan sartzeko tituluaz gain jakin behar da ikasleekin hitz egiten, ikasleak entzuten, talde bezala ondo harremantzen.... ilkasle bakoitza den bezalako errespetatzen azke finean...

**-Iñaki: Eta tutore bezala formatzeko unibertsitatean edota ostean formakuntzarik edo antzekorik jaso duzu?**

**-LHTEG1:** Tutore izateko formakuntzarik ea jaso dudan? Azken finean tutore izateko ez dago espezialistarik, soilik ingelesekoan dago. Aber... jaso izan dut oso orokorki irakasle izateko formakuntzaren bat, baina ez tutore izatekoa... eske nire ustez aspektu honetan hutsune pilo bat daude eta horrek hobetzeko asko dagoela esan nahi dut... Adibidez... niretzako magisteritzan irakasgai bat falta da non gurasoekin harremanak nola landu behar diren azaltzen duena... hau asko dago hobetzeko... eske... gaur egun irakaskuntza asko aldatu da eta ikasleekin baino gurasoekin edukitzen ditugu rifi rafeak. Azken batean, ikuspegi asko duen gizarte batean bizi gara eta bakoitzaren pentsamendua ezberdina da.... baina horrek ez du esan nahi ez dagoenik hutsune oso handia ikasleak zelan tratatu behar diren ikastearekin.... A ta ia ahaztu zait, beste hutsune handi bat ikusten dut Lehen Hezkuntzako tutore edo irakasle batek bere ahotsa lanerako erramienta ezinbesteko dela eta hau nola egoki erabili ez digute inoiz erakutsi o nire kasuan behintzat... bai elkarrizketa bat mantentzeko, edo ozenki zerbait azaltzeko, bronkaren bat botatzeko... azken batean egun oso batean zehar ordu asko dira hitz egiten gelditu gabe...

**Iñaki: Ba bai guztiz ados nago zurekin. Eta eskolan lanean hasi zinenetik tutore izateko formakuntza edo ikastarorik jaso duzu?**

**-LHTEG1:** Formakuntza ezberdinak egiten dira, adibidez orain ordenagailuko oinarrizko programak ikasleekin nola lantzeko formakuntza bat gaude egiten... nik uste unibertsitatean baino gehiago, gure eskolan egiten ditugun formakuntzekin gehiago ikasten hari naizenaren sentazioa dudala... aber... egia da gaur egun igual lan munduan nagoenez arreta gehiago prestatzen diodala zenbait kontuei unibertsitatean baino... hori ere izan daiteke arrazoia... Eta... adibidez lehenago ere egin izan dugu idazketa eta irakurketa ikasgelan nola aplikatzearen formakuntzak... gero ere... mmm... kanpotik etorritako umeen eskolaratze prozesua nolakoa izan behar den... aber ikastaro pilo bat egin ditugu eskolan.

**Iñaki: Bai ados, garrantzitsua dela pentsatzen dut beti ikasten jarraitzea. Urte batzuk atzera begira, lehendik gaur egunera tutorearen ezaugarriak eta bere rolak aldatu al dira? Zu zeuk, irakaskuntza munduan hasi zinenetik aldaketarik igarri al duzu? Zeintzuk?**

**-LHTEG1:** Pufaa... eske ez daramat urte asko ere mundu honetan, orduan aldaketa askorik ba ere ez ditut ikusi. Aber... nik uste dut hala ere tutorearen rol eta ezaugarriak lehen zirenarekin konparatuta... ni ikasle izan nintzenekin konparatuta hobekuntza bat egon dela...mmm... gaur egun ikasleen ezaugarriak gehiago kontutan hartzen dira eta honek nahi

ala ez tutorearen rola askoz ere inplikatuagoa izatea dakar... ta nik uste dut urte batzuk aurrerago, tutorea oraindik eta inplikatuago egongo dela.

**-Iñaki: Bai, beti egongo dira gauzak non hobetu. Tutoreak bete beharreko funtzioei begira, Lehen Hezkuntzako tutoreak eginbehar asko ditu, baina, zeure ustez zeintzuk dira betebehar nabarmenenak ikasleei, familiei eta beste hezkuntza eragileei dagokionez?**

**-LHTEG1:** Nire ustez, bai familiak eta beste hezkuntza eragile guztiak dira oso garrantzitsuak, baina batez ere relevantzia gehien ikasleekiko dugula sentitzen dut. Gaur egun nik pentsatzen dut ia irakasle guztiok oso argi daukagula irakasleak ez garela protagonistak baizik ikasleak direla. Hauek dira guztizko protagonistak eta ba agian konstruktibista askok dioten bezala, ikasleak hasi behar dira beraien eraikuntza bidearen prozesua gauzatzeko eta irakasleok ikasleei lagundu behar diegu bide hau errazten eta laguntza behar duten une bakoitzean eskua luzatzen. Azken baten... tutorea gelako laguntzaile modura egon behar da eta beti gauzak positiboki landuz, ezin da izan diktadore bat esaten duela hau horrela egin eta beste hau horrela. Eske irakasle batek edukiak aurkeztu eta gero ez du agindu behar jarduera bat zer eta nola egin, baizik ikasleari berak egin dezan utzi behar dio, bakoitzak ez dituelako interes berdinak. Ta ... eta aurrerago etorriko da etorri beharrekoa.

**-Iñaki: Bai, ta irakasleekiko eginbeharrak zeintzuk dira?**

**-LHTEG1:** Ni tutorea izan arren, nire gelako ikasleekin irakasle askok parte-hartzen dute, ba...PT-a, gorputz-hezkuntzako irakaslea, ingelesekoa, laguntza gelakoa... orduan... hauek guztiekin koordinatzea ezinbestekoa da. Ta ba... hilabetero gutxi gora bera, gelan parte-hartzen duten hezkuntza eragile guztiekin bilera izaten dugu, ta... bertan gelako ikasleen inguruko jarraipenaren inguruan hitz egiten dugu, eta ikusten badugu arazoren bat dagoela ikasle batekin edo ikasle talde batekin, ba, hau nola bideratu erabakitzen dugu eta kasu honetan tutorea da irakasleria guztia koordinatu behar duena eta bera da azken hitza duena... Horrela ba, ikasle bakoitzak fitxa informatiko bat du eta bertan ikaslearen inguruko informazio guztia... ta gurasoekin bilera eduki ezkeroko ere, hitz egindakoa idazten da fitxa honetan. Ta horrela guztia apuntatuta errazago da informazioarekin gogoratzea...

**-Iñaki: Ba bai, ta familiarekiko eginbeharrak zeintzuk dira?**

**-LHTEG1:** Ba harremana, mmm... adibidez umea ekartzera edo bila etortzen dien familiekin gehiago komunikatzen naiz egunerokoari begi... dagokionez... ta ba... kurtso hasieran bilera orokorra egin izan dugu beti kurtsoari buruzko azalpen zehatzak emateko eta baita ere ba ikasle berrien gurasoak badira ba nola ez ba elkar ezagutzeko aproposa da... ta gero pixkat aurrerago, ba oraingo bueltan, gabonak aurretik edo normalean guraso bakoitzaren bilera individualak izatea gustatzen zait... ta amaitzeko ba kurtsoa bukatu aurretik beste bilera individual bat eta kurtsoa amaitzeko berriro guraso guztiekin bildu eta azken bilera bat izaten

dugu normalean... ta ba hori... bitartean guraso askorekin korreo bidez komunikatzen gera eta baita ere zenbait kasutan ba baterenbat gaixo edo horrelako zerbait bada telefonoz hitz egiten dugu... e... nik denbora asko ez daramat irakaskuntza munduan erez, baina egia da orain arte guraso jatorrak e... eduki ditudala... nahiz eta konkretu... kasu konkretu batenbaten ba ez izan horrela, beti do batenbat... gainera beti saiatzen nahiz ba... hileko bileran esaten ikaslea ondo egoteko etxeak eta eskolak norabide berean egin behar duela lan eta ez bakoitza bere aldetik... Horrela, arrakasta etorriko da gero, seguru nago... asko laguntzen du gurasoekin harreman sanoa bada.. eta honek ba... gurasoak tutoreekin konfiatza izatea ekarriko du... gurasoak hor egongo dira beti eta tutorea ikasleekin denbora batez egongo da eta gero ez, baina denbora honetan ba alturan egon behar du irakasleak ere.

**-Iñaki: Bai guztiz ados. Funtzioak direla eta, irakaskuntza munduan lanean hasi zinenetik gaur egunera bitarte berdinak edo antzekoak izaten jarraitzen al dute? Zein motatako aldaketak nabarmentzen dituzu?**

**-LHTEG1:** Ba egia esan, ez dut askorik izan, esan bezala... gutxi daramadalako mundu honetan eta. Baina egia da aldatzen ari garela ikaslea ikusteko modua, azken baten, ikusten dugu ikasleak zer esan handia duela irakaskuntzan... eta orduan, nik pentsatzen dut, hor bai dagoela txiparen aldaketa bat... Orduan... honek tutorearen funtzioak zerbait aldatzea eragin du. Eske ez da berdina orain dela urte batzuk irakaslea zen guztizko protagonista eta ostera gaur egun oso argi daukagu hau aldatu dela eta ikaslea dela protagonista, ikaslea da gauzak egin behar dituen eta irakaslea jadanik bigarren planora pasa da.

**-Iñaki: Nik ere pentsatzen dut hasierako pausuak soil eman ditugula, baina bueno pixkanaka joango gara ez?. Bueno eta tutore bezala, zeintzuk dira gehien jorratzen dituzun alderdiak (akademikoaz aparte, elkarbizitza, autonomia, errespetua eta abar) ikastaldearen garapen integralean?**

**-LHTEG1:** Ba begira, gehien jorratzen ditudan alderdiak, aber, nik garrantzia handi ematen diot ikasle bakoitzak berak duen autonomia bultzatzeari, aber... eske ikasledia bea ez bada saiatzen, inoiz ez du jakingo ezer egiten, nire ikasleak behintzat jadanik badakite lehenengo saiatu egin behar direla eta gero ikusten badute ezin dutela geroago eskatuko dutela laguntza. Ta... hortaz aparte ebai, garrantzia handia ematen diot ba ikasleek elkarren arten ba duten hartu emanari, hain zuzen askotan pasa izan zaidalako ikasle batek zerbait esan edo azaldu ondoren norbaitek beti esatea, andereño pepitok zer esan du?... ta nik esan duenari galdetzeko esaten diet... eske askotan ikasleak beraien artean harremantzea eta konpontzen jakitea oso aberasgarria da... O agian, borrokaren bat baldin badago, ahal den neurrian ni ez sartzea beraiak beraien artean konpondu daitezten... Edo baita ere ba elkarren artean entzuten ikastea. Beraiek badakite zerbait egitera goazenean elkarren arteko txandak errespetatu behar dituztela, edo hor ikasi behar dute zein inportantea den elkar entzutea eta

ikaskidea errespetatzea. Eta gero, horrez gain, ba... nik ikasgelan euskaraz hitz egiteari ere garrantzia handia ematen diot, bestelan ba gaztelaniaz asko hitz egiten dute eta...

**-Iñaki: Ba bai. Eta curriculumari begira, zuk tutoretza jorratzean, curriculumak zer nolako garrantzia hartzen du zure eginbeharretan?**

**-LHTEG1:** Egia esan, curriculuma dela da... ez dut askorik begiratzen... aber egia da kompetentziak banaka hartuz gero, ba, ikasten eta pentsatzekoa edota, hitzeko eta hitzik gabekoa, bai lantzen direla esan nezake, baina egia da ere ez direla lantzen curriculumean azaltzen direlako, lantzen dituzu, ba... gehiago balore bezala. Aber eske nik ustet ere justu gure eskolan ba asko ez ditugu begiratzen, eskolak berak bere curriculum proiektua duelako... ICP ta bere propio hezkuntza proiektua. Eta hauek pentsatzen dut curriculumean oinarrituta egongo direla... nik neuk ez behintzat ez dut sortu.

**-Iñaki: Hori da, baina adibidez curriculuma begiratzen duzue eskolan proiektuak sortzerako garaian?**

**-LHTEG1:** Gaur egun aurrera eramaten dugun proiektua, ni eskola iritsi nintzenean jadanik bazegoen... eta... hortik aurrera egin izan ditugu beste zenbait proiektu eta egia esan, nik parte hartu dudanetan behintzat, ez dugu asko begiratzen curriculuma, soilik esan nezake kurtso berri baten hasieran programazioa gauzatzekoan ba zertxobait. Aber... izan daiteke... atzetik egotea e, baina behintzat gure begien aurrean ez... O adibidez ebai ba... gure eskolan ebaluazio-irizpideak gureak propio ditugu. Azken finean, nire ustez, curriculumean azaltzen diren gauza askok eta askok ez diote errealitateari erantzuten.

**-Iñaki: Bai, agian curriculumari beste buelta bat eman beharko litzaioke. Eta honekin jarraituz, tutoretzaren funtzioei dagokionez, azken urte hauetan izan diren aldaketetatik, zeintzuk azpimarratuko zenituzke?**

**-LHTEG1:** Aber, e... akordatzen naiz, orain dela hiru urte... ez barkatu bi urte... erabaki genuen zenbait kontzeptu akademikoei garrantzia kentzea eta lortu zen aldaketa bat ikaslea era globalean ikusi ahal izateko, hezkuntza guztiz integral batera bideratzea. Azken batean ba ikaslearekin globalki landu beharra dagoelako.

**-Iñaki: Bai, eta orain tutoretzan sartuz, zure gelan tutoretza lantzerakoan, pentsatzen dut batzuetan taldeko tutoretza egingo duzula, baina beste batzuetan bakarkakoa ezta? Bakarkakoan, ikasle bakoitzaren beharrei erantzutea errazagoa da, baina talde osoko tutoretzaren bidez lan egiterakoan, nola egiten duzu norbanako bakoitzaren beharrak erantzuteko?**

**-LHTG1:** Bai gure eskolan, orain arte behintzat, tutoretza ikasleekin bakarka jorratzen dugu, azken batean bakarka jorratzean ba ikaslearengana errazago iristen gara eta askoz efikazagoa izaten da... bere beharrak eta ezaugarriak kontuan hartzen ditut eta beti ahalik eta egokien beregana iristen saiatzen naiz. Nire ustez tutoretza modu honetan egitea egokiagoa izaten da, horretarako jolas orduak, bazkaldu osteko orduak... aprobetxatzen ditut



eta ikasle bakoitzarekin biltzen nahiz indibidualki... e... normalean bakoitzarekin minimo hilabetean behin batzen ahalegintzen naiz.

**-Iñaki: Bai oso ongi, baina jakinda LH-n tutoretza ordua duzula astean behin taldeko tutoretza honetan bidez lan egiterakoan, nola egiten duzu norbanako bakoitzaren beharrak erantzuteko?**

**-LHTG1:** Ba... asteko tutoretza ordua normalean aspektu moralei, edo baloreei edo munduan gertatzen diren gaien inguruan lantzeko erabiltzen dut... baina bestela, ordu hau astean zehar borrokaren bat edo arazoren bat egon denean honen inguruan hitz egiteko erabiltzen dut. E... horretarako orrien dinamikak edo talde txikien dinamikak erabiltzen ditut. Azken batean, beti egiten ditut dinamika ezberdinak talde osoko ikasle guztiek parte-hartzeko, alegia beti gogoan edukiz zein ikasletik zer espero dudan.

**-Iñaki: Bai bai noski, eta gaur egun tutoretza-ekin tzaren edo tutoretzaren arduraduna soilik tutorea al da? Eta orain dela urte batzuk?**

**-LHTEG1:** Bai bai, klaro... Ni neuk uste dut Lehen Hezkuntzan tutorea ez dela soilik tutoretzaren arduraduna. Azken batean, gelan tutoreaz gain, hezkuntza eragile askok parte-hartzen dute eta hauekin astero koordinatu beharra dago, materiala prestatzeko, zein helburu jorratuko diren egokitzeko eta beste milaka kontu. Horregatik pentsatzen dut ba tutoretzaren arduraduna edota lan zama hori aurrera eramateko tutorea ez dela bera bakarrik arduraduna.

**-Iñaki: Orduan ba, zuk zeinek uste duzu duela ikasgelako pisua?**

**-LHTEG1:** Ba, tutorea bakarrik ez behintzat, baizik beraz gain, ikasgelatik igarotzen diren irakasle, espezialista eta PT guztiek esango nuke nik.

**-Iñaki: Orduan zure ustez tutoretzaren inguruko lan zama gaur egun aldatu dela uste duzu?**

**-LHTEG1:** Bai, nik uste dut aldatu dela eta onera gainera. Adibidez, asko bultzatzen dugu ikasleek beste gelatako ikasleak eta tutoreak ezagutzea, bai klase orduetan batzuetan eta zer esanik ez denbora libre orduetan. Azken batean, nik uste ez dela eskolara joan eta hau da gure gela eta listo, eta beste inorekin ez gara erlazionatuko... ideia hau desagertu egin behar da eta aber, nahiz eta gero tutore bakoitzak bere ikasleak eduki, adibidez ere bai ikasle batek beti jotzen dute bere tutorearena askotan beraien erreferentea bera baita... baina hori, esan bezala, oso garrantzitsua da erlazionatzea azkenen.

**-Iñaki: Tutoretza egoki aurrera eramateko ikasle talde berdinetik igarotzen diren hezkuntza eragile guztiak, alegia, irakasleak, espezialistak, familiak, komunitateko partaideak eta abar, inplikatzeko al dira? Eragile bakoitzaren inplikazioa zer nolakoa da?**

**-LHTEG1:** Ikasgelan espezialistaren bat behar bada, normalean hauen inplikazioa oso handia izaten da hori egia da eta ba... familiak, komunitateko partaideak eta irakasleri guztien inplikazioa ezinbesteko da ere.

**-Iñaki:** **Bai bai, eta gurasoek eskolako egunerokoan, inplikatzen eta parte-hartzen dute?**

**-LHTEG1:** Bai bueno, gehiengoak bai, lehen esan bezala, ikaslea eskolara ekarri edo jasotzen duten familiekin komunikazioa hobea da eta beraien parte-hartzea ere. Eta gero ba beti etortzen da gurasoren bat galdetzea bere semearen inguruko zerbait edo zalantzaren bat... azken batean normala da zerbait galdetzea eta tutorearekin harremantzea... Baina bai, gurasoak eta gurasoak daude.

**-Iñaki:** **Hori leku guztietan bezala, batzuk gehiago inplikatzen dira beste batzuek baino. Eta gurasoek laguntza noiz ematen dizute, beraien pentsatzen dutenean behar dela edota zuk eskatzen duzunean prestatzen dira laguntza emateko?**

**-LHTEG1:** Egun bereziren batean, zerbait ospatzen dugunean edo, laguntza behar dugun edo galdetzen dute zenbaitek, baina gaur egun gure eskolaren politikari dagokionez ezetz esaten diegu normalean horrelako egunetarako DBH-ko ikasleak etortzen direlako laguntzera... baina bai, holako ekintzaren bat baldin badago guraso asko ekintzetan beraien ere parte hartu dezaken aurkezten dira, guk ezer esan gabe... eta gero ba... guk ez diegu gela barnean inolako inplikaziorik eskatzen, hain zuzen horretarako daude irakasleak, PT-ak, espezialistak... nik neuk, lehen esan bezala, orain arte ezin naiz kexatu eduki ditudan gurasoekin eta gainera beti egon dira zerbaitetan laguntza behar izan dudanean laguntzeko prest ba gehiengoak behintzat.

**-Iñaki:** **Ba bai, hori oso inportantea da. Eta aipaturiko hezkuntza eragileen inplikazioa, orain dela urte batzuetakoa eta egungoa desberdina edo berbera dela iruditzen zaizu? Desberdina bada, zein alderditan nabaritu duzu? Ikastetxean bertan, beste bideren bat edo aukeraren bat ireki al da tutoretzan parte hartu al izateko?**

**-LHTEG1:** Ez dakit ba... e... nik neuk herri txikitxo eta handi batekoa konpara nezake... ni herri txiki bateko eskola batean hezi eta ikasi nuen....Eta, herriko eskola eta familia bat egiten dira. Aber... adibidez eskola herri txiki batean badago, azkenean inor ez da joaten autobusez, mundu guztia oinez edota bizikletaz edo kotxez joaten da.... Gero baita ere... ba kaleetan zehar ikasleak irakasleekin ere topatzen dira... eta horrelako kontuak. Eta ba adibidez orain lanean nagoen eskolan askoz muga gehiago daudela nabaritzen dut, askoz ere eskola handiago baita eta herriko eskola soil bat ez da... ba... hemen agian daude hirurehun bat ikasle eta honekin batera bakoitzaren gurasoak... ez da berdina izango segun zein lekutan egiten duzun lan ba horrelako eskola handi baten hiri batean edota herri txiki bateko eskola batean... niri pertsonalki asko gustatzen zait eta inportantea iruditzen zait gurasoak inplikatzea eta hauekin komunikazio ona edukitzea, gehienbat ikasleengatik... e...

niri asko gustatuko litzaidake guraso guztiek eskola etortzea gehiagotan ikusteko zertan gabilzan gelan edota gelako dinamiketan parte-hartzea. Baina... daude guraso batzuk bilera jarri arte ez dituzula ikusi ere egiten eta ez dute nahi jakin eskolaren inguruan ezer... pena da... eta beste batzuk ba askoz gehiago inplikatzeko dira.

**-Iñaki: Oso ondo egiten duzue egia esan. Eta zeure ikasleen gelatik igarotzen diren beste irakasleria eta espezialista orokin eraginkor koordinatzeko eta denon eginbeharra (ikaslearen garapen integrala erraztea; ikasle bakoitzaren ezaugarri guztiak errespetatu eta kontuan hartzea) arrakastatsua izateko, zer da egiten duzuen? Eta orain dela urte batzuk?**

**-LHTEG1:** Ba... esan bezala talde lana oso oso garrantzitsua da. Normalean astelehen eta asteazkenean, ordu batez edo maila berdineko bi tutoreak batu eta koordinatzen gara... hori mailako... maila koordinazioa esaten diogu eta ondoren, asteartean goiz amaiera partean beste mailako tutore bat eta beste maila guztietako tutoreak koordinazio lana egiteko, eta azkenik, ostiralero, goizetan klaustroko bilera izaten dugu, hori bai ez gara irakasle guztiok batzen dena 90 bat edo gaudelako eskolan. Klaustroa normalean Lehen Hezkuntzako irakasleria batzen gea 20-25 batek edo osatzen duguna, hori bai, hemen sartzen dira zuzendaria, tutore guztiak, espezialistak, PT-ak, psikologo eta ba ikasketa burua....

**-Iñaki: A bai bai. Ta tutoretza-planari dagokionez, irakaskuntzan hasi zinenetik gaur egunera plana berdin eratzen da? Desberdina bada, zeintzuk dira nabaritu dituzun aldaketak?**

**-LHTEG1:** E... gure eskolan tutoreak zer egin behar duen zehazten duen tutoretza-planik ez dago... gure eskolak bere funtzionamendu propioa dauka... eta orduan hau da, egiturari begira horizontal bat da, bertan azaltzen dira prozesu desberdinak adibidez ba azaltzen da unitate didaktikoan nola egitearen prozesua, gero ba ebaluaketak nola egitearen prozesua, gero familikoekin harremana... e... beste bi falta zaizkit... e... bueno berdin du, ni neu ebaluaketa prozesua nago egiten. Eta mailako tutore bat egoten da prozesu bakoitzean eta gero ere jabea egoten da. Ostegun goizetan prozesu bakoitzeko jabeak biltzen dira zuzendariarekin eta ondoren batzar orokorrean hitz egin dena prozesuko taldera eramaten da eta ondoren talde bakoitzak dagokion mailara komunikatzen du. Ulertzen?... A ta gero ere, beste talde lan batzuk ere badaude, ba... adibidez euskara indartzen eta bultzatzen duen taldetxo bat, e... besteren bat jaialdiak antolatzeke eta horrela... E bai azken finean, tutoretza-plan bat zehazki ez dago, dagoena da talde lana, guk geuk behintzat horrela funtzionatzen dugu.

**-Iñaki: Eta zuk pentsatzen duzu aipatzen didazun egitura horizontal hori ezinbestekoa dela eskolak egoki funtzionatzeko?**

**-LHTEG1:** Ba, nire ustez bai, horrela ez balitz, bakoitzak bere bola egingo zuen lana eta horrela ez doa hezkuntza mundua. Azken finean, egitura hau, eta baita ere prozesu bakoitza oso garrantzitsua dia talde lana bezala pentsatzen dut.

**-Iñaki:** Hori da, azken batean zuek horrela egoki funtzionatzen baduzue.... aurrera. E ba hau izan da guztia, beste zerbait nahi duzu esan? Bestela horrela amaitzen dugu elkarrizketarekin.

**-LHTEG1:** Ba... egia esan ez, orain momentuan ez zait beste ezer bururatzen horrela aipatzeko modun.

**-Iñaki:** Bai lasai, ba mila esker zure elkarrizketa honengatik.

**-LHTEG1:** Ez da ezer.

#### 4.2. LHTEG2 (Lehen Hezkuntzako Tutorea Esperientzia Gutxikoa Bi)

**-Elkarrizketatzailea (Iñaki): Epa egun on, zelan? Bueno ezer baino lehen ondorengo taula beteko dugu eta gero hasiko gea elkarrizketa egiten bale?**

**-LHTEG2:** Bai, ondo.

<b>Izena eta abizenak:</b> LHTEG2	<b>Adina:</b> 31 urte.	<b>Ikastetxeak duen izaera:</b> Publikoa
<b>Urte kopurua hezkuntza munduan jarduten:</b> Zortzi urte.	<b>Urte kopurua tutore izaten:</b> Zazpi urte.	<b>Ikastaldearen adina tutore izandakoan:</b> Lehen Hezkuntzako maila denak.

4. taula. LHTEG2 datuak.

**-Iñaki: Bueno ba goazen elkarrizketarekin hastera. Lehen Hezkuntzako tutorea izatea zer den nola definituko zenuke?**

**-LHTEG2:** Egixa esan hitz konkretu bat erabiliko noan definitzeko, izango zan dinamizatzailea. Nire ustez tutoreak bere esku ikasle batzuk daka eta honek bere neurrian ahal dan eta hezkuntza onena jasotzeko eskubidia dake, eta horretako tutoreak dakan rola ezinbestekua da aspektu asko kontrolau bihar deu da... eta gero baitxa ere ikaslian familixakin erlaziuia eduki bieu, ta hau inportantia da ebai.

**-Iñaki: Zein alderdi hartzen dira kontuan ikastalde bateko tutorea zein izango den erabakitzerakoan? Pertsonalki zuretzat zein alderdi hartu beharko lirateke kontuan?**

**-LHTEG2:** Ba asunto hau ikastetxeko zuzendaixan esku do gure ikastetxean behintzat. Eta exaktamente eztaikitx... baina ba igual Lehen Hezkuntzako titulua eukitzia... hori behintzat fijo... eta gero ba pentsatzet beste gauza batzuk ere kontuan hartuko ditxu, ba adibidez ea umiak zein tratu dakan, o zelako irakaslia dan o... eztaikitx e... ize ola berezixa ere ezteuela eskatzen pentsatzet... Gure ikastetxeko ixa danok tutoreak gea eta ba rotatzen ibiltzen gea, bi urtez ikasle igualakin eta gero aldau etxen degu, hori etxen deu zuzendaixak normalian behintzat.

**-Iñaki: Bai hori zuzendariarentzat, eta zuzendariak ez duela erabakitzen, zuretzat zein alderdi hartuko lirateke kontutan?**

**-LHTEG2:** Harrapo ein diazu... mmm... ba neretzat Lehen Hezkuntzako titulazioa eukitzia bai, baina zentzu asko ere eztaikala hori supuestamente hemen lanian gozen danok dakau da... Nik uste lanian dauan eozein alda izan tutore, ezto zetan ezaugarri batzuk kontuan euki, danok dakau kapaziadia da eta ba tutore bakoitza ezberdina izango da baina horretxio ezin degu esan hau bai eta hau ez...

**-Iñaki: Ba bai, guztiz ados. Eta tutore izandako denbora tartean ikasleekin nolako harremana izaten duzu?**

**-LHTEG2:** Buaa, ba beti saiau izan nahi oso harreman hurbila eukitzen. Esan dizuten bezela, ikasle talde batekin bi urtez egoteakuan ikasliakin erlazio politxa sortzen da eta bakoitza ondo baino hobeto ezagutzeko aukeria dakazu... mmm... azken batian denbora honetan zihar zuk ikaslia baina beak zuri ere ondo ezagutzen dizu... ta... neri hau gustatzen zat, horretxio pentsatzet hurbila dan harremana inportantia dala.

**-Iñaki: Ezaugarri pertsonal eta profesionali dagokionez, zuretzat zeintzuk dira tutore orok izan beharko lituzkeenak?**

**-LHTEG2:** Munduko tutore danak enpatikuak izatia biharrezkotzat ikustet, jende askokin tratatzen dezulako, bai ikasliakin baina baita gurasuakin eta zure lankidiakin ebai. Askotan automatikoki hasten gea kontu negatibuak esan da esan eta momentu horretan ezgea akordatzen bestian lekuan ipintzia zelako inportantia dan segun ze gauza zela gozen esaten jakitzeko.... e... nik neuk beti pentsatzet, momentu baten zeoze negatibua banua esatea, gero beste lau gauza positibo esan bietela, azken batian, gurasuak o ikasliak jakitzeko gauza positibo asko dozela baina gauza txar konkretu bat hobetu bihar dala... a klaro eta tutorian lana da gauza txar bat soluziua topatzia bidia zein dan esatia... Eske azken finian e, imagina matematikako buruketa bat goz etxen gelan eta ikasle bat ezin planteauta dola ikustian irakasliak lagundu bihar dio arazua nola soluzionau bihar deun bideratzen... ba adibidez, esaten ikasliai errazo planteatzeko lehelengo datuak baztar baten apuntatzia inportantia dala... animau ein bihar zakue bestela seitxuan frustratzen dia...

**-Iñaki: Eta ezaugarri profesionali dagokionez, tituluaz aparte zuretzat zeintzuk dira tutore orok izan beharrekoak?**

**-LHTEG2:** Ni neuk ez dakat buruan magisteritzan ize espezialik esan izan digutenik eo. Baina bai ikusi izan det zuluia dauala gure lanbidian ba tutoriak zelakuak izan biharreko azalpen batzuk eo.

**-Iñaki: Tutore bezala formatzeko unibertsitatean edota ostean formakuntzarik edo antzekorik inoiz jaso duzu?**

**-LHTEG2:** Akordatzen naiela behintzat magisteritzan ez noan ize landu... eta ba gero ezto formakuntzaik... o nik behintzat eztet ize antzekoik ikusi.... Tutore izateko ikastaroik eztet ikusi... ta bai, nik uste tutoretzak zela aurrea eraman jakitzeko eo formakuntza bihar da, ta ikusteko tutoriak ze inportantzia dakan, asteko tutoretza orduak zela erabili... azkenian asignaturatan ere tutoretza ere landu biharra do ez bakarrik asteko tutoretza ordua, ta tutoriakin aparte beste irakasle danakin ere konfiantza hori landu ein bihar da.

**-Iñaki: Urte batzuk atzera begira, lehendik gaur egunera tutorearen ezaugarriak eta bere rolak aldatu al dira? Zu zeuk, irakaskuntza munduan hasi zinenetik aldaketarik igarri al duzu? Zeintzuk?**

**-LHTEG2:** Irakasle munduan hasi ta oain arte eztet aldaketaik igarri... mmm... bai esan aldet ni ikasle izan nitzanian tutorian perfila ez zauan gertu eta oain berriz gertuo dauan

sentsaziua badakat. Familixakuak ere eoze dala tutoriana datoz... Ta gero ba, gaur egun teknologiak pauso handiak eman ditxu eta honek gurasuakin telefonoz hizketan ein eo korreueak bialdu, mensajiak idatzi eoze momentuan, aukera asko doz.... Orduan harreman aldetik asko hurbilo da, egunerokua ixa... eske askotxotan ikastetxea ailau aurretik ikasle bat ezpadator ya badakitx... Ta ola ba, nik honei beida gurasuakin harremantzeko erreza dakatela pentsatzet... A baina hori, gaur egun adibidez ni lehen ikasle izandakuakin konparauta, guraso batzuekin bronkatxuak eukitzet batzuk beti euran umiai arpeixa ateatzen dixuelako eta bestiai kulpia bota... emateu batzutan extremo batetik beste punta pasa geala.

**-Iñaki: Ba bai. Orain tutorearen eginbeharrei buruz mintzatuko dugu. Lehen Hezkuntzako tutoreak eginbehar asko ditu, baina, zeure ustez zeintzuk dira betebehar nabarmenenak ikasleei, familiei eta beste hezkuntza eragileei dagokionez?**

**-LHTEG2:** Lehenengo ikasliai begira ba... eurai ikastetxian eta baitxa lagunakin ondo eoten lagundu, zenbatx kasutan ezteue jakitzen euran kabuz zela ein da, eo zela sartu talde baten... ta horretako ba batzutan tutoria hor eon bihar izaten da. Ta gero baitxa ikastetxian etxen dian ekintzetan parte-hartzia indartzen da ebai. Ikaslian zalantzak, kezkek eota eskarixak zela aurrea eraman laguntzia. Gero baitxa beuran prozesu akademikua bultzau, arazuak badoz honek garaiz topatzia eta soluziua ematia... azken batian nik ustet tutoriak behaketa lana etxia ezinbestekotzat ikustet.

Ta gero ba familixai helduz... ba... honekin debora osuan harrematen eotia inportantia da, ikaslian inguruko informaziua eurai ematen ta baitxa jasotzia ebai... eske batzutan doz ikasle batzuk ikastetxian eta hemendik kanpo eziala berdinak ta horrek bai preokupatzeitx... azkenian, ikasle bakoitzekin harremana gertukua eta zuzena euki bihar da ikaslian kontuan inguruan enteratzeko.

**-Iñaki: Ta beste hezkuntza eragileei dagokionez?**

**-LHTEG2:** Beste irakasleriakin ikasliai buruz informauta eotia eta baitxa koordinatzia. Nik pentsatzet bai tutorea eta bai hezkuntza eragile danak norabide berdinean jun bihar geala.

**-Iñaki: Funtzioak direla eta, irakaskuntza munduan lanean hasi zinenetik gaur egunera bitarte berdinak edo antzekoak izaten jarraitzen al dute? Zein motatako aldaketak nabarmentzen dituzu?**

**-LHTEG2:** Ba... nik pentsatzet, ni lan mundu honetan noienetik berdinak jarraitzen duela izaten pentsatzet, ezta kitx e, hori ustet nik behintzat.

**-Iñaki: Eta, tutore bezala, zeintzuk dira gehien jorratzen dituzun alderdiak (akademikoaz aparte, elkarbizitza, autonomia, errespetua eta abar) ikastaldearen garapen integralean?**

**-LHTEG2:** Lehen Hezkuntzan egixa da astian ordu batez tutoretza ordua dakaula, baina keba, nire ustez tutoretza aurrea eramateko ezto ordu zehatz bat, momentu osuan zihar do da... mmm... autonimixa jardutiaz gain, oaintxe momentuan asko goz inplikauta elkarren

artian eoten dian burrukak zela konpondu eta bakoitzan emozioak eta sentitzen doana kanpoa ateatziakin. Ola ba... oain momentuan nik neuk bastante denbora noi dedikatzen euran emozioak zela atea lantziakin, ze modutan sentitzen dian borroka bat gertatzen darian, zer erreakzio dakaten gauza ezberdian aurrian eota zeba dan inportantia burrukak eoten dianian honek soluzionatzia. Adibidez e, lehen mailan o seigarren maila eon, burrukak ezberdinak dia, lehen mailan oaindio ixa jolasantxio eta burrukatzen deue eta seigarrenian beste gauza batzuntxio, orduan ba segun ze mailako tutore zean gauza kontu berdina da baina era desberdinian landu biharra do.

Ta ba... gero talde ondo eramatia, elkarren kohesioa ustet inportantia dala, azken batian gizartian gero taldian bizitzia da inportantia da...mmm ta ba ideia hau kontuan eukitxa talde lanak, o lanian elkarri komunikatzen ein biharreko gauzak indartzen saiatzen nai gelan, eta honekin batea bitxartian beste balore batzuk ere lantzen dia, ba errespetua, komunikazioa... e... laguntasuna... arduradunak doz, bat makinistia izango da, beste bat materixalan arduraduna, bestia idazkarixa... beste bat, taldeko isiltasunakin arduraduna da...

**-Iñaki: Eta orduan zer, alderdia akademikoak beste plano batean gelditzen dira edo?**

**-LHTEG2:** Ez ez, azken batian akademikua beti eoten gea lantzen, osea super inportantiak diala e... baina horretaz aparte, ikasliai, aipau deten aspektu inportante horrek ere erakutsi ein bihar zakue ustet, oinarri bat sortzen lagundu bihar dixeu tutoriak eta irakasliak. Ta ba gauza akademiko hauek ebai ni saiatzen nai ba dinamiko etxen ba gauzak batek bestia lotzia eta orduan ikasliangana intriga bat sortuz ba landu beharreko eduki hori lantzia, azken batian nik biderauko dixuet eta eurak ezitia enterauko... eta ez eman fitxa bat eo eta derrigortu etxea ba tokatzen dalako eo... horrek eztakala ez buruik ez hankaik ustet. Aber momentu batzutan ere fitxan bat o liburua ere etxegu e, baina bueno pixkana metodologia hau geroz eta gutxio.

**-Iñaki: Ta gurasoei zer iruditzen zaie hau?**

**-LHTEG2:** Ba bueno, normalian ondo, irakaskuntza mundua aldatzen dua ebai, eta gehixenguak ulertzen deu, eske berdin berdin goz lantzen maila bakoitzian tokatzen dana, baina beste era batea...

**-Iñaki: Bai, eta zuk tutoretza jorratzean, curriculumak zer nolako garrantzia hartzen du zure eginbeharretan?**

**-LHTEG2:** Aufa... ba.... Curriculumak eta ni ez gea oso lagunak egixa esan...jaja... Nik ustez e, curriculumak eman biharreko garrantzixa eman biharrekua da. Nik nire gelan curriculumian azaltzen dana lantzen det, eta batezbe segun zein dan nire gelia ba hau kontuan eukitxa kurtsuan hasieran ein biharreko programazioa etxetenian. Eske... irakasliak bere ikasliak kurtsua superatzeko curriculumian dozen gauza danak landu bihar ditxu.... Hori bai, irakasle bakoitza desberdina da. Gainea gero, beti do presio hori gurasuai notia bialdu bihar diozunian eta notetan agertu bihar da curriculumian eskatzen dana. Azken fiñian,



programaziua oaintxe esku artian hartu eta analizatzen badezu ikusten da curriculumeko gauzak lantzen diala, igual ez danak inportantzia berdina, azken batian irakasle batzuntzako gauza batzuk inportantzia gehixo dake eta beste batzuntzako beste gauza batzuk.

**-Iñaki: Horrela ba, esan daiteke gelako egunerokotasunari begira ez duzula curriculuma begiratzen?**

**-LHTEG2:** Hori esan dizuten bezela, curriculuma kurtso berrixan hasieran ein biharreko programaziua zuzen etxeko kontuan hartzet eta gero ya ba programaziua kontuan hartzet egunerokotasunean. ... eske programazio barruan dana do, aber kurtso hasieran ondo ein badezu e...

**-Iñaki: Curriculumarekin jarraituz, tutoretzaren funtzioei dagokionez, azken urte hauetan izan diren aldaketetatik, zeintzuk azpimarratuko zenituzke?**

**-LHTEG2:** Ba eztaik, eztaik... e... guk hizkuntzai gerota pixu gehixo hasi gea ematen LH-n. Adibidez, inglesai inportantzia gehixo gea ematen eta baitxa egunerokotasunian euskeria ibiltzai ebai. Baina eztaik exaktamente curriculumian aldaketaik eon dian aspektu honen inguruan adibidez. Ta ba bestela ideaik ez zeintzuk kanbixo eon dian...e... badakitx aniztasunai eta inklusibitai gaur egun inportantzia gehixo ematen zakola, hori bai.

**-Iñaki: Curriculuma alde batera utzita zure gelan tutoretza lantzerakoan, pentsatzen dut batzuetan taldeko tutoretza egingo duzula, baina beste batzuetan bakarkakoa ezta? Bakarkakoa, ikasle bakoitzaren beharrei erantzutea errazagoa da, baina talde osoko tutoretzaren bidez lan egiterakoan, nola egiten duzu norbanako bakoitzaren beharrak erantzuteko?**

**-LHTEG2:** E... bakarkako tutoretzia etxia errezo da talde handixian baino...baina bueno, galderak einez, galdetuz zalantzak dituzten... ixilak badia talde handixian ezpadia atrebitzen zeoze esaten beraiena hurbiltzen laguntza eskaintzeko... azken batian, mahiz mahi juten nahi galdetzen ia zeoze bihar deuen eo ia zeozetan laguntzia bihar deun...mmm... talde osoko tutoretzan batez ere gatazkak lantzen dia eta ikasle bakoitzan emoziuak....

**-Iñaki: Ta, gaur egun tutoretza-ekintzaren edo tutoretzaren arduraduna soilik tutorea al da? Eta orain dela urte batzuk?**

**-LHTEG2:** Keba keba, tutoretza ezta tutorian ardurak bakarrik, gelan parte-hartzen deuen beste irakasliak ere beuran ardurak dake, eta ebai zaintzakuak eta jantokiko langiliak ebai. Irakasgai asko nik ematen ditxut, baina baitxa ere gelan espezialista, laguntzailea... sartzen dia. Eta gero baitxa ere beste irakasgai batzuetako, ba... musika, gorputz-hezkuntza, ingeleseko... beste irakasle batzukin eoten dia eta ez nerekin. Ta ba gero baitxa jantokira juten dianian bertako arduradunakin eoten dia irakasliak... Hori bai, orduan arduradun pilua doz tutoriaz gain, eta bere onena arduradun bakoitzak ikusten doanan inguruan gurasuai gauzak informatzia da, baina hau inposibilia da, orduan lan hau tuturiak etxeu, lehengo

arduradun danakin eon eta gero informaziua gurasuai esan... Baina bai, adibidez ni irakaskuntza munduan hasi nitzanian ez baina gaur egun jantokikuak eztakitx zenbatero, bi hilero eo gurasuakin batzarrak etxen ditxue. Lehen jantokikuak langile sinple bat bezela ikusten zeuen gurasuak eta ostea oain pixu handixa deue.

**-Iñaki: Antzina batean tutoretzak bakarkako lan karga handiagoa eskatzen bazuen, aldaketa hau nola bizi izan duzu?**

**-LHTEG2:** Bai aldaketia eon da eta zama gutxitxu. Adibidez, notak eta eurak sartzen ditxue ebai... Gainera tutoriantzako ebai taldian ibiltzia gauzak etxen oso ona da azken batian iritzi desberdinak jasotzeko aukeria dakazu da. O alda izan zuk tutore bezela ikustia ikasle batek gaitasun bat dakala, baina hori zure iritxixa da o hori zuk zeuk bakarrik igertzen dezun jakitzeko beste irakasliakin komentatzia aberasgarrixa da. Orduan ba, gorputz-hezkuntzakuakin eo musikakuakin eoten zea eta hizketan etxen dezu.... ba... eske zenbat eta begi gehixo o esku gehixo tarteko badoz eta elkarrekin informaziua partekatzen badezu dana askoz egokixo da... beti esatet talde lana da dana...

**-Iñaki: Hitz egiten hari garena, tutoretza egoki aurrera eramateko ikasle talde berdinetik igarotzen diren hezkuntza eragile guztiak, alegia, irakasleak, espezialistak, familiak, komunitateko partaideak eta abar, inplikatzan al dira? Eragile bakoitzaren inplikazioa zer nolakoa da?**

**-LHTEG2:** Gure ikastetxian batzarrak etxen ditxugu, dakagun informaziua konpartitzeko. Gehixenetan etapako ixa danok biltzen gea. Eta baitxa, gero tutoria eta gelan parte-hartzen deuen espezialista danakin ere etxen da, eta ba jantokikuakin eztet eukitzen batzarrik baina bai astian behin etorri eta gauzak kontatzen ditx.... Hori bai, imagina zeozarren inguruko arazo larrin bat eon bada bai batzen gea eta bihar dan batzarra etxen degu

**-Iñaki: Eta familiarrak tutoretzatan inplikatzan dira?**

**-LHTEG2:** Geroz ta kontzientzi gehixo do gurasuengan guztizko elkarlanian ibili bihar geala bai ikastetxia eta beurak. E... beti eoten dia guraso batzuk inplikatzan diala. Bai gurasuak eta bai ikastetxiak bide berdiña segi bihar deu ezin dana da bat bide batetik jun eta bestia beste bide batetik, horretxio elkar ondo ulertu bihar gea...mmm... ta... bai euran lanan egoeria jakinda zein dan ebai erdibideko bidia topau bihar da batzarrak ein ahal izateko, baina bueno hau gure lanan parte ere bada.

**-Iñaki: Aipaturiko hezkuntza eragileen inplikazioa, orain dela urte batzuetakoa eta egungoa desberdina edo berbera dela iruditzen zaizu? Desberdina bada, zein alderditan nabaritu duzu? Ikastetxean bertan, beste bideren bat edo aukeraren bat ireki al da tutoretzan parte hartu al izateko? Adibidez, lehenago, gurasoekin ia egunero komunikatzan zarela esan duzu.**

**-LHTEG2:** A ya, hori oain bai komunikaziua askoz gehixo izaten da gurasuakin lehenguakin konparauta. Ta bai, hau azkenian igartzen da eta baitxa ere asko eskertzen da gauza bat dala pentsatzet.

**-Iñaki: Zeure ikasleen gelatik igarotzen diren beste irakasleria eta espezialista orokin eraginkor koordinatzeko eta denon eginbeharra (ikaslearen garapen integrala erraztea; ikasle bakoitzaren ezaugarri guztiak errespetatu eta kontuan hartzea) arrakastatsua izateko, zer egiten duzuen? Eta orain dela urte batzuk?**

**-LHTEG2:** Ba oain dala urte batzuk eta gaur egun berdina izaten segitzeu, hau da, taldeko eta etapako batzarrak etxegu, eta baita ziklokuak, eta gero batzarren bat zeoze grabia pasau bada eo eta gero ba ebaluazio batzarrak.

**-Iñaki: Eta normalean noiz geratzen zarete?**

**-LHTEG2:** Ba hori guk jarritxa dakau. Ipinitxa dakau... e adibidez... astelehenetan e... mailako batzarra izaten deu, gero asteartetan, e... nahidoan gurasuak etorri ahal izaten dia, gero asteazkenetan ziklo bilera izaten degu, hau da, bi mailako irakasle guztiak elkartzen gea eta gero ba bueno ebaluazio bakoitzian ebaluzio bilerak etxen ditzugu eta bertan e... tutoria eta gainontzeko espezialistak batzen gea, eta gero ba bueno, espezialistakin ebaluazio batzar hori izan eta gero gurasuakin biltzen gea.

**-Iñaki: E ta, tutoretza-planari dagokionez, irakaskuntzan hasi zinenetik gaur egunera plana berdin eratzen da? Desberdina bada, zeintzuk dira nabarmendu dituzun alderdiak eta aldaketak?**

**-LHTEG2:** Gure ikastetxian bado tutoretza-plana eta bertan dakau sartuta ba... familixakuakin batzarrak, kurtsuan hasierako ta amaierako batzar orokorrak dianak, e... gurasuakin bakarkako batzarrak... e... minimo ebaluaketa bakoitzean bat eiten deu, hau da, hiru, hiru batzar eitxen dia, e... egixa da e... kurtso hasierakua eta amaierakua derrigorrek diala eta kurtso erdiko batzarrak ba ikaslia segun zel nola duan batzen gea gurasuakin.

**-Iñaki: Pentsatzen dut guraso batzuk egunero edo ia egunero ikusiko dituzula eta ostera, beste batzuk ia inoiz ez, orduan denekin hiru, bueno bi bakarkako batzar izan behar duzu berdin-berdin edo ez?**

**-LHTEG2:** Ba bai, formalak edo deitzen dixeu horrek hiru eo bi minimo horrek eta hortik gora naizun danak. Eske egunerokuan igual gauza pare bat o esan ahal dezu baina eske inguruan ebai jendia dabil ta gauza jakin batzuk esateko hobe bakarka eta gainea bakarka eurak ere gehixo soltatzetia eta gauza gehixo kontatzeizue... Ta ba esan bezela, ba bi edo hiru horretaz aparte, gero kurtsua hasieran eta amaieran beti etxeku batzar orokorrak.

A ta gero ebai tutoretza planan barruan trazabilitaixua deitzen dixeu dakau gure ikastetxian. Hau da dokumentu bat non ikasle bakoitzan informaziua azaltzen dan, euran jaixotze datia, izena eta abizenak, direkziua, e... ta holako gauzak, telefonua... Kurtso

berrixakin batea aktualizau ein biharra eoten da eta ikusten badezu zeoze desberdina dauala ba dagokixon aldaketak etxeko.

Gero ebai tutoretza planan barruan do ba... ikasle batek eo ikasgelatik kanpo eragilen bat o badaka ba... psikologua, lokopedia eo dana dalakua, tutoria ezto derrigortuta kanpoko pertsona horrekin eotea, baina bueno ni eoten nai umian oneako dala pentsatzet da.

Eta ba... a bai... gero dakau taldeko kohesua, hau da planan barruan sartu deun azkeneko gauzia. Lehen ez zan existitzen taldeko kohesio hau zelan eo ein bihar izaten zan, eta tutore bakoitzak altzoan moduan etxen zoan. Kurtsoko hasierako bi astez eo etxen deu, orduantxe etxegu talde kohesua sortzeko ba dinamikak eta ba ola ikasliakin pixkat taldian esentzia lortzen saiatzen gea... azken hau egokixa dala pentsatzet.

**-Iñaki: Ikastetxean tutoretza-plana aurrera eramatea garrantzitsua dela iruditzen zaizu? Zer dela eta?**

**-LHTEG2:** Bai bai inportantia dala pentsatzet, bertan kontu danak oso zehaztuta eoten dia eta... hasieran pixkat liosuo da, baina gero ya dominatzen dezunian bertan azaltzen dian kontu danak errezak dia aurrea eramaten... baina bai, lanian hasten zeanian holako estruktura bat eukitzia oso inportantia da, batez ere lana asko errezten doalako. Eta gero ba, orientatzeko zeba adibidez inor ezatzu etorriko atzetik esaten gurasuakin kurtsuan zihar batzarrak ein bihar ditzuzula eota... tutoretza plana eo beste holako zeoze derrigorra da eotia, ola danok ikastetxian norabide berdiña jarraitxuko deu eta.

**-Iñaki: Ba bai, hori da, ta ba honekin nire aldetik amaitu dugu, zerbait gehiago nahi duzu esan edo?**

**-LHTEG2:** Mmm... ez ez, nahikua txapa soltau dizut...

#### 4.3. LHTEA1 (Lehen Hezkuntzako Tutorea Esperientzia Askokoa Bat)

**-Elkarrizketatzailea (Iñaki):** Kaixo. Elkarrizketarekin hasi aurretik, datu biografikoak jasoko ditugu taula honetan bale?

**-LHTEA1:** Bai, aurrea.

<b>Izena eta abizenak:</b> LHTEA1	<b>Adina:</b> 57 urte.	<b>Ikastetxeak duen izaera:</b> Pribatua
<b>Urte kopurua hezkuntza munduan jarduten:</b> Hogeita hamasei urte.	<b>Urte kopurua tutore izaten:</b> Betidanik tutore.	<b>Ikastaldearen adina tutore izandakoan:</b> Lehen Hezkuntzako maila guztiak.

5. taula. LHTEA1 datuak.

**-Iñaki:** Kaixo, elkarrizketarekin hasteko, Lehen Hezkuntzako tutorea izatea zer den nola definituko zenuke?

**-LHTEA1:** Ba galdera earra, ba... eskolan gurasuan papera ordezkatzeko doan pertsona da tutoria adibidez. Ta ba... ikasle bakoitzan ezaugarriak bai fisikuak eta bai psikikuak ahal dan neurrian egokixen erantzuten saiatzen da. Beuran garapen prozesuan agertzen dian aspektu danak bihar dan bezela lortzen lagundu bihar dixeu tutoriak.

**-Iñaki:** Zein alderdi hartzen dira kontuan ikastalde bateko tutorea zein izango den erabakitzerakoan? Pertsonalki zuretzat zein alderdi hartu beharko lirateke kontuan?

**-LHTEA1:** Ba titulazua, gero ikasliakin ondo eramatia, empatikua izatia, pertsona flexiblia, gertukua, inplikatzeko dana... bai ikasle danakin eta baitxa familixakuakin. Ta ba, ola burura etortzen zaten inportantienak horrek izango zian...

**-Iñaki:** Eta zeinek esaten du edo erabakitzen du ikasle talde bakoitzaren tutorea zein izango den?

**-LHTEA1:** Zein izango dan? E ba... eskolako zuzendaritza batzordian dozenak aukeratzen deue zein izango dan tutoria... hor tutoriak geanok eztegu parteik hartzen.

**-Iñaki:** Eta zuen eskolan tutorea zenbat ikasturtez izaten da ikasle talde berdinen tutore?

**-LHTEA1:** Gure eskolako kasuan hiru ikasturtetan zihar eoten gea ikasle berdinen. Normalian hiru urte honek doz banauta alde batetik, 1, 2 eta 3.mailak eta gero beste aldetik, 4, 5 eta 6. mailak.

**-Iñaki:** Eta pertsonalki hiru urte talde berdinarekin egotea ez zaizu gehiegitxo iruditzen?

**-LHTEA1:** Gure eskolia pribaua danez holaxe do antolauta... Gauzia da linia bakarra dauanez, klase bakar bat mailako donez, zuzendaiko batzordekuak nahixo deue talde baten tutoria hiru urtez izatia... ta ba guk horretxei etxeixeu kaso.

**-Iñaki: Eta tutore izandako denbora tartean ikasleekin nolako harremana izaten duzu?**

**-LHTEA1:** Mmm... esango noan oso gertukua dan harremana, geroz da denbora gehixo pasau ikasle talde berdina orduan da atxikimendu senduo eraikitzen juaten da, gela seguru... ikaslia gelan seguru sentitxu bihar da. Ume honentzako eskolako gurasuak gea, eta batez ere lelengo eta bigarren mailako umiantzat oaintxe amatu deue Haur Hezkuntza da... Ta gainea hiru urtetan beurakin eondakuan ikasle honek askoz gehixo ezagutzen dezu, askoz sakono da dana, eta ola ba momentu bakoitzian bihar duena o sentitzen duena askoz errazo igartzen dezu. Askotan hizketan ere ein gabe bakarrik beidautu, badakizu zeoze pasatzen dan o ez.

**-Iñaki: Eta ezaugarri pertsonal eta profesionalei dagokionez, zuretzat zeintzuk dira tutore orok izan beharko lituzkeenak?**

**-LHTEA1:** Ba suposau ahal det gaur egun profesionalai dagokiona akademikoki prest eotia izango zala. Ba.. formaziua teorikoki eta batezbe ikaslian ezagutza praktikua eduki bihar dezu. Jope eta ba pertsonala?, Ba.. lenuo esan denez aparte, gehitxuko noan ikaslian ebaluaziua etxeakuan beti ikuspegi positibo bat izatia, gero ba asertibua izatia, baitxa une askotxotan bihar dana baino pazientzia gehixo eukitzia eta gero ba... guraso bakoitzakin hitz etxeko geautakuan jakitzia danak eziala igualak eta momentu bakoitzian bihar dan sentsibilitatia eukitzia.

**-Iñaki: Tutore bezala formatzeko unibertsitatean edota ostean formakuntzarik edo antzekorik inoiz jaso duzu?**

**-LHTEA1:** Ba egixa esan, urte asko, asako pasau dia e, baina tutore zela izan izateko asignaturaik ez noan eduki... Eta formakuntzak... aber irakaskuntza munduan nauanetik infinito ikastarota jun nai, pilua pilua jasodet.... mmm... baina esango noan ixa seguru tutoretzarako espezifikoki o holako zeozetako inoiz ez, Baina e... ein deten formakuntzako ikastaruak erabilgarririk ein zat tutoretzatan ibiltzeko... Osea, bertan ikasitxako ezagutzak bildu eta tutoretzatan erabili izan ditxut.

**-Iñaki: Urte batzuk atzera begira, lehendik gaur egunera tutorearen ezaugarriak eta bere rolak aldatu al dira? Zu zeuk, irakaskuntza munduan hasi zinenetik aldaketarik igarri al duzu? Zeintzuk?**

**-LHTEA1:** Igual oain dala urte gutxi batzuk arte ikaslia DBH-ako ahal zan eta hobetuen preparatzia zan, orduan dana horretxei biderautu eoten zan.... Eta oain ba tutoria ezta inportantiena ezta ikasliai ezagutzak erakusten dion bakarra. Oain ikaslia da protagonista nagusixa... Ola ba, tutoria beti ikasliak dakan biharrak kontuan eukitxa honetxei erantzuten ardurau bihar da.... klaro, premia honek bai emozionalak, jakintzanak, fisikuak eta danana

izan bihar de... Gaur egun ikasliak normalian etxetik gauza asko jakinan gainian ekartzen ditxue eta ba orduan gehixo lagatzen dixeu euran jakintzak eta esatiakaela eta horren arabera eraikitzeu ikasi biharrekua, orduan tutoria beti bideratzailia izaten da.

**-Iñaki: Eta orduan pentsatzen duzu tutorearen ezaugarriak edota rolak aldaketak jasan dituela?**

**-LHTEA1:** Ba bueno zeoze bai... esango noan, nere ustez. Akaso aldau dana da erabiltzen dan metodologixa eo edukixa erakusteko formia... Lehen ba, gehixo ibiltzen giñun fitxak, fitxak... asko etxen zian eta bastantetan honek ikaslían interesekuak ere ezian izaten. Ta oain berriz ba, ikaslían ezaugarrixak eta euran jakinminak zeintzuk dian kontuan hartzen dia zeoze berrixa landu aurretik.

**-Iñaki: Ba bai, hori da bidea, eta LH-ko tutoreak eginbehar asko ditu, baina, zeure ustez zeintzuk dira betebehar nabarmenenak ikasleei, familiei eta beste hezkuntza eragileei dagokionez?**

**-LHTEA1:** Esan dizuten bezela, ikaslíai beida, ba, eurak momentuan dakaten jakinminak kontuan hartu eta honek erantzuten saiatzen gea. Eta ba... gurasuakin, ba, eurakin kontaktua eukitxa, ikaslíai buruz hitz etxia eta bata bestiai guztiz informauta eukitzia, bai eskolan bizi deuenaz, bai etxian bizi deuenaz... ta gero ba euran ikasketaz, lagunakin dakaten erlaziuz...

**-Iñaki: Eta nolakoa da eginbeharra beste irakasleriarekin edo espezialistekin?**

**-LHTEA1:** Bilerak etxen ditxugu koordinazioako eta elkarri dakagun informaziua pasatzeko. Azkenian, esango noan tutoriak eginbihar pilo bat eukitzen doala bere kargu.

**-Iñaki: Funtzioak direla eta, irakaskuntza munduan lanean hasi zinenetik gaur egunera bitarte berdínak edo antzekoak izaten jarraitzen al dute? Zein motatako aldaketak nabarmentzen dituzu?**

**-LHTEA1:** Nire ustez antzekuak izaten segitzen deue nahiz eta zeoze bai aldau dan... normala da. Nahiz eta gauza batzuk aldau umiakin beti einbihar berdintsuak izaten ditxuzu, beuran biharrak asetzia eta erritmuak errepetatzia.... Eta irakasleguakin ebai berdina, denbora osuan bilerak ein da ein... hauxe da bidia ondo koordinatzeko eta komunikauta eoteko.

**-Iñaki: Eta familixakin?**

**-LHTEA1:** Familixakuakin esan detena, beti eon bihar zea harremanetan eta aldan eta harreman estuena lortzia da helburua. Horrela... mmm... gauza askontxio hizketan ein... eta gai ezberdínan inguruan lasai hizketan etxeko aukeria dakazu. Hori bai, esan bihar det lehen baino, oain askoz gaitzo dala familixakuakin batzia, íxa gehixenak lanian eoten dialako eta oso gaitza izaten deue eskolako ordutan libratzia bilerata etortzeko. Adibidez hori urtiak aurrea ein ahala asko igarri det.

**-Iñaki: Eta tutore bezala, zeintzuk dira gehien jorratzen dituzun alderdiak (akademikoaz aparte, elkarbizitza, errespetua...) ikastaldearen grapen integralean?**

**-LHTEA1:** LH-ko ikasliakin gehixen lantzen ditzuten alderdiak nire kasuan behintzat, batezbe, harremanak indartzia, autonomixa bultzatzia, baloriak eta elkarbizitzen ikastia. Azken baten, akademikuak bere garrantzixa daka, eta handixa e, baina dana ezta hori, beste gauza asko doz LH-n inportantia dianak eta benetan landu bihar dianak.

**-Iñaki: Ba bai, dena ez da akademikoa ere. Eta, tutoretza jorratzean, curriculumak zer nolako garrantzia hartzen du zure eginbeharretan?**

**-LHTEA1:** Egixa e... zintzua izango nahi nere buruakin. Egixa da curriculuma hor dauala erreferente bezela eta eztizut esango eztala garrantzitsua, baina guk eztegu beirau ere etxen momentu eo ekintza puntual bat ezpada. Autokritika pixkat einda, iruditzen zat akaso garrantzia gehixo eman biharko niola o zixeula.

**-Iñaki: Ta orduan noiz edo begiraten dezute curriculumak?**

**-LHTEA1:** Batezbe ekintza o unitate berezin bat preparau bihar degunian. Baina egunerokotasunai beida ezteu beidatzen. Erabiltzen deun kuadernilluak bai dakau adin tarte honentzako egokitxuta eta egixa esan bai fiatzen gea eurakin.

**-Iñaki: Eta tutoretzari erreparatuz, zure gelan tutoretza lantzerakoan, pentsatzen dut batzuetan taldeko tutoretza egingo duzula, baina beste batzuetan bakarkakoa ezta? Bakarkakoan pentsatzen dut ikasle bakoitzaren beharrei erantzutea errazagoa dela, baina talde osoko tutoretzaren bidez lan egiterakoan, nola egiten duzu norbanako bakoitzaren beharrak erantzuteko?**

**-LHTEA1:** Taldekako tutoretzan danan beharrak zela erantzuten deten? Ba zea... normalian bakarkako tutoretzan bidez lantzen ditzut bakoitzan beharrak, askoz pertsonalo da eta e... errazaua ebai egixa esan, gainea askoz ere gertukuaua danez efikazia askoz geixo dakala ustet... eta ba... taldekako tutoretzan ere saiatzen nahi orokorrian bakoitzan beharran arabera ba aldan eta klase onenak prestatzen, beti ere dakaten ezaugarriak kontuan eukitxa.... Egixa da ebai gaur egun bakoitza bere etxekua dala eta horrek naeu esan ezaugarri oso desberdinak dakaela, baina bueno... orokorki gauza inportantienak kontuan eukitxa tutoretza taldekuan aldan eta ikasle danan beharrak erantzuten saiatzen nai... ezta izaten erraza egixa esan... Ta ba... tutoretza eoze momentutan aurrea eramaten det ebai, azken baten ikasliak dakan biharrak momentuan erantzun bihar zakuelako, horixe da inportantia...

**-Iñaki: Zure ustez, gaur egun tutoretza-ekintzaren edo tutoretzaren arduraduna soilik tutorea al da? Eta orain dela urte batzuk?**

**-LHTEA1:** Lehen behintzat bai eta oin ebai tutorian arduria dala pentsatset, bai hori da, tutorian arduria. E... arduria geure gainian do. Azkenian, errealitatian tutoriak daka pixu gehixena...



**-Iñaki: Eta zure ikasgelara sartutako beste irakasleria edo espezialistak ez al dira nolabait arduratzen?**

**-LHTEA1:** Gure eskolan ixa irakasgai danak tutoriak ematen doala egixa da, baina bai sartzan dian irakasliak arduratzen dia baina nereu ustez tutoria da tutoretzako arduradun nagusixena.

**-Iñaki: Hori da, orduan orain dela urte batzuetatik gaur egunera tutoretzan ez dezu nabaritu aldaketarik ez?**

**-LHTEA1:** Bueno, egixa da gaur egunian igual lehen ez zan gertatzen bezela, beste irakasleguak tutoretzan ardura zeoze gehixo dakaela ustet... baina hala ere nik ez tet sentitxu aldaketa handitxoik ere... lehen ere arduratzen zian da. Azkenian... tutoria da e bai gero gurasuakin eoten dana, orduan beak eukitzeu beti ardura gehixengua.

**-Iñaki: Eta, tutoretza egoki aurrera eramateko ikasle talde berdinetik igarotzen diren hezkuntza eragile guztiak, alegia, irakasleak, espezialistak, familiak, komunitateko partaideak eta abar, inplikatzan al dira? Eragile bakoitzaren inplikazioa zer nolakoa da?**

**-LHTEA1:** Hauen inplikaziua? Ba, premixan arabera kua izaten da. Ezto ize ola sistematizauta... mmm... nere kasuan behintzat laguntzia bihar izaten detenian eskau etxen det eta eman etxen ditxe... eta baitxa ere, irakasliak ikusten badeue nere gelako ikasletako batek bihar badeu ere e bai.

**-Iñaki: Aipaturiko hezkuntza eragileen inplikazioa, orain dela urte batzuetakoa eta egungoa desberdina edo berbera dela iruditzen zaizu? Desberdina bada, zein alderditan nabaritu duzu? Ikastetxean bertan, beste bideren bat edo aukeraren bat ireki al da tutoretzan parte hartu al izateko?**

**-LHTEA1:** Ba bai, berdintxu xamarra dala esango noan. Azkenian, e... irakasliak danak inplikatzan dia, danak nahi izaten deue ikasliantzako onena eta baitxa kalitatezkua dan hezkuntza egoki bat ekaini, eurak dia etorkizuna eraikiko deuenak eta. Hori bai, igual gaur egungo gurasuak askoz indibidualistauak dia... bueno hori iruditxu izan zat behintzat. Eta honek eramateu gurasuak bakarrik euran umiak in pentsatzea, arduratzea... arduria euran semian eo alaban gaiñian bakarrik eukitzen deue eta bestiak ixa ixa igual zakue... baina bueno inplikatzan dia hauek e bai...

**-Iñaki: Eta tutoretzarekin amaitzeko, zeure ikasleen gelatik igarotzen diren beste irakasleria eta espezialista orokin eraginkor koordinatzeko eta denon egin beharra (ikaslearen garapen integrala erraztea; ikasle bakoitzaren ezaugarri guztiak errespetatu eta kontuan hartzea) arrakastatsua izateko, zer da egiten duzuen? Eta orain dela urte batzuk?**

**-LHTEA1:** Fisikoki, astian ziharreko ordu batzutan LH-ko gelako atiak zabalik eukitzen ditxugu... mmm... konkretauta eukitzen degu ze orduan izango dan atian zabalketia, baina

gero astian arabera eo moldau etxen da. Ba... e... hau oso ondo do irakasleguak ikasle danak ezautzeko aukeria ematen doanez, koordinaziua errazteu eta askoz eraginkorra bihurtzen da dana. Azkenian, ikasliak ezagutzen doan irakasle, espezialista, PT eo dana dalakuan iritzixa oso zentsuzkua izaten da. Horretxio da oso aberatsa bestian iritzixak zeintzuk dian jakitzia, eraginkorrak izaten dia da beti...

**-Iñaki: Eta denok guztiz koordinaturik egoteko zer egiten dezue?**

**-LHTEA1:** Pufa... ba bilera asako etxen ditzugu. Klaustrokua hilabetero etxen saiatzen gea gutxi gora behera. Eta ba gero etapakua... ba astero batzen gea. Bilerak diala da, guk behintzat askotxo eukitzen ditzugu.

**-Iñaki: Eta, tutoretza-planari dagokionez, irakaskuntzan hasi zinenetik gaur egunera plana berdin eratzen da? Desberdina bada, zeintzuk dira nabaritu dituzun aldaketa?**

**-LHTEA1:** Baa... e... Lehen Hezkuntzan tutoretza-plana ola eztaukau, o eon... bai bai badaukau baina beste izen bat eta beste estilo batekua da gure eskolakua da ta, hau da, eskolako-plana... esateixeue.. e adibidez, oain tutoretzatan, sentimenduak, gatazkak nola kudeau, eta elkarbizitza lantzen hasi gea, ta hau aurrea segitzeko txosten bat dakagu. Txostenian bertan, segun LH-ko ze mailatan zozen, gutxi gora behera ikasgelan landu biharrekua zehaztuta eoten da... Azkenian, erabilgarrixa da eta tutoriai asko laguntzen dio txosten honek kasu askotan.

**-Iñaki: Eta, badaukazue txostenen bat zehazten duena gurasoekin noiz eta zenbatero batu behar izaten zaretan?**

**-LHTEA1:** Bai hori da, eskolako txosten batian dakau zehaztuta, hortan, e... zehaztuta do gurasuakin trimestre bakoitzeko minimo behin batu bihar geala eta azken baten guk hori bete ein bihar degu. Ta bai ondo do hau, zeba adibidez neri behintzat gustatzen zat gurasuakin batu eta beuran seme-alaban inguruko kontu akademikuaz eta ez-tianak akademikuaz ere hizketan etxia...mmm... oso inportantia iruditzen zat. Gainea, ni normalian trimestreko bi aldiz minimo guraso bakoitzakin eoten saiatzen nahi.

**-Iñaki: Oso ondo, printzipioz beste ezer gehiagorik ez bada, nire aldetik hementxe bukatzen da elkarrizketa. Zuk zeuk zerbait gehiago esan nahi duzu?**

**-LHTEA1:** E... ba esango noan tutoretza aurrea eramatia momentu batzutan zaila izaten dala, tutoriak beti nahi izaten doalako gauza danak kontrolpian euki, baina hainbeste gauza dozenez batzutan normala izaten da zeozer ahaztutzia eo pasatzia... Baina bai, inportantia da arduria eukitzia eta oso oso inplikauta eotia, aspektu honekin tutoriak kontzientziauta eon bihar dia.

**-Iñaki: Ba bai, arrazoirik ez zaizu falta. Eskerrik asko nire lanean parte-hartzeagatik.**

**-LHTEA1:** Akaoba.

#### 4.4. LHTEA2 (Lehen Hezkuntzako Tutorea Esperientzia Askokoa Bi)

**-Elkarrizketatzailea (Iñaki):** Aupa egun on. Hasteko eta behin ondorengo taula beteko dugu eta ondoren elkarrizketarekin hasten gara, ados?

**-LHTEA2:** Bai, ados.

<b>Izena eta abizenak:</b> LHTEA2	<b>Adina:</b> 63 urte.	<b>Ikastetxeak duen izaera:</b> Publikoa
<b>Urte kopurua hezkuntza munduan jarduten:</b> Berrogeita bat urte.	<b>Urte kopurua tutore izaten:</b> Hasierako bi edo hiru urtetan izan ezik (ez dut ondo gogoratzen), betidanik tutore.	<b>Ikastaldearen adina tutore izandakoan:</b> Lehen Hezkuntzako maila guztiak.

6. taula. LHTEA2 datuak.

**-Iñaki:** Elkarrizketarekin hasteko, Lehen Hezkuntzako tutorea izatea zer den nola definituko zenuke?

**-LHTEA2:** Ba neure ustez tutore izatia, psikologua izati, laguntzaila izatia, arduratsua izatia, empatikua izatia... mmm... inplikazioa eukitzia, responsabilia izatia. Azken baten gauza pilua sartzen dia LH-ko tutoria definitzeako orduan. Horretxio nik esatet beti, momentu bakoitza ezberdina dala eta bakoitzian gauza ezberdinak eta aldi berian batzuk berdina izaten dianak kontuan hartzen dia. Baina bai da egixa, azken fiñian zure ikasliak diala, orduan eurakiko betebihar bat dakazula eta bakoitzian ezaugarriak zeintzuk dian kontuan eukitza, honek egoki asetzeko ardura handixa dakazula. Azkenian, nahiz eta jakin eurakiko ardurak dakazuzela betetzeko, ikasliai kariño bat hartzen diozula ezin da ukau.

**-Iñaki:** Ba bai, eta zein alderdi hartzen dira kontuan ikastalde bateko tutorea zein izango den erabakitzerakoan? Pertsonalki zuretzat zein alderdi hartu beharko lirateke kontuan?

**-LHTEA2:** Irizpide horiek ikasketa buruak edota zentruak beak erabakitze deu... irakasleguak eztegu parte-hartzen erabaki hau hartzeakuan.... Guri esaten digute zein taldeko tutore izango gean eta listo.

**-Iñaki:** Eta ideiarik baduzu zeintzuk diren kontuan hartzen diren alderdiak?

**-LHTEA2:** Ba... mmm... ez ez, egixa esan eztaikitx konkretuki zeintzuk dian kontuan hartzen dian alderdixak.

**-Iñaki:** Eta pertsonalki zuretzat zein alderdi hartu beharko lirateke kontuan?

**-LHTEA2:** E... irakasliak dazkan joera konkretu batzuk kontuan hartu biharko zian, ba adibidez... lasaitasuna mantentziana, portaera egokixa eukitzina, eguneroko ikasgelako eta ikasgelatik kanpoko ariketa danetan alaitasuna transmititziana, ikaslian aurrian aldakorrak dian jarrerak ebitatzina... eske... ikasle danai ziurtasuna erakutsi bihar diozu. Danok dakagu

egun txar bat, eta ezta ize pasatzen, baina tutore bezela, derrigorra da holako egun bat eduki arren ikasliak ez igartziakela. Gero ebai, ikaslian ereduia izatiana. Gauza positibuak dianian ikasliai esan ein bihar zako, baina zeozer negatibua dauanian ikasliai ere esan ein bihar zako, hori bai, beti ere formak zainduz klaro.

**-Iñaki: Eta tutore bat hautatzerakoan, honek izandako esperientzia kontuan edukitzen da?**

**-LHTEA2:** Esperientzia? Bai, bai kontuan eukitzen da, e... tituluak, prestakuntzia, tutoria zela barneratzen dan klasian. Pertsona moruan balio deue esandako punto hone danak. Baina baita ere, akademikoki preparauta eon bihar da tutoria.... Enpatikua izatia bai ikasliakin, beste irakasleguakin eta baitxa familixakin ebai. Azkenian, polibalentia da hitza, horixe izan bihar da tutore bat, aspektu askotan orojakintsua izatia, maila desberdinetan lana etxeko.

**-Iñaki: Lehen Hezkuntzako tutorea zenbat ikasturtez izaten da ikasle talde berdinen tutore?**

**-LHTEA2:** Bi eota hiru. Oain dala urte asko, ni lanian hasi nintzanean, tutoriak ikasle berdinaikin hiru urte eoten zian, geroa, irakaslia talde berdinaikin bi urtez eotea pasa zan eta gaur egun berriz hiru urte eoten gea ikasle talde berdinaikin. E.... azken baten guk erabaki honetan ere eztagu botereik, guri zentruak agintzen digu zenbat urte eon ikasle berdinaikin.

**-Iñaki: Tutore izandako denbora tartean ikasleekin nolako harremana izaten duzu?**

**-LHTEA2:** Nolako harremana? Mmm... ba harremana estua oso oso estua eukitzet normalian ikasliakin. Gaiñea, herrixetan estuo dala pentsatzet hiri handixetako ikastolatakuakin konparauta baino. Ni Bilbon eonda noi irakasle bezela, eta egixa esan, bai ikusi izan det herri txiki baten eon eo hiri handi baten artian ezberdintasun handixak dozela. E... ikasliakin eta baitxa ere gurasuakin harreman askoz estuo sortzen da herri txiki baten. Ikasle batzuen gurasuak gainea nere ikasliak izan zian eta oain euran seme alabak dakat klasian....

**-Iñaki: Denbora azkar pasatzen da, baina kontua jarrerarekin doa gehiago eta zuk baduzu hori. Eta ezaugarri pertsonal eta profesionalak dagokionez, zuretzat zeintzuk dira tutore orok izan beharko lituzkeenak?**

**-LHTEA2:** Azken batian lenuo esan dizuten horretxek izango zian.

**-Iñaki: Lehen batez ere pertsonalak adierazi dizkidazu, baina profesionalak zeintzuk izango ziren?**

**-LHTEA2:** Ba... biharrezko tituluak izatia. Irakasliok beti goz eguneratzen. Adibidez gure ikastolan metodologi berri bat sartzen gabiz, eta oain horretxei beida irakasliak prestatzen goz. E... ikastaro ezberdinetan juten, mitegixeta juten... mmm... hitzaldixak eta formakuntza askotxo jasotzen...

**-Iñaki: Tutore bezala formatzeko unibertsitatean edota ostean formakuntzarik edo antzekorik inoiz jaso duzu?**

**-LHTEA2:** Unibertsitatean? Lekutan do hori, hobe bai bertan ikasten banauan oain... baina ez ez, unibertsitatean ezauan tutoriantzako zuzendutako asignaturaik. Nere garaixan ez zan eon behintzat, eta gaur egun gure ikastola etorri dian irakasle gaztetxuak ere eztxuet inoiz entzun antzeko asignaturaik badauanik.

**-Iñaki: Eta lan munduan zaudenetik, tutore izateko formakuntzarik edo antzekorik inoiz jaso duzu?**

**-LHTEA2:** Lehen Hezkuntzako tutoreak tutoretza ordu bat dakau eta horri helduz behin o behin oaindala urte asko jaso izan giñun tutoretzan inguruko formakuntzan batenbat baina egixa esan eznei akordatzen. Hori bai, dakitxena da ez zauala biderauta zehatz mehatz tutore bat zela izan bihar dan, baizik tutorean inguruko aspektuak kontatzen zitxun besteik gabe... mmm... oaindala asko izan zan, eta ezte oso ondo gogoratzen egixa esan.

**-Iñaki: Urte batzuk atzera begira, lehendik gaur egunera tutorearen ezaugarriak eta bere rolak aldatu al dira? Zu zeuk, irakaskuntza munduan hasi zinenetik aldaketarik igarri al duzu? Zeintzuk?**

**-LHTEA2:** Metodologixa, gizartia ere kanbixau ein da, orduan biharrak ebai, eta tutorean helburu nagusixa horretxek asetzia da. Geuk ere gure ibilialdixa aldatu ein bihar izan deu, eta horren arabera baitxa jasotzen degun formakuntzia ere guztiz ezberdiña da. Esan dizuten moduan, prozesu danak aurrea eraman ahal izateko prozesuak doz... mmm... gizartia asako aldau da ni lanian hasi nintzanetik gaur egunea, adibidez, oain, lehen ez bezela, amak ere lana egiten du. Baitxa gurasuak dakaten ordutegixa ere ezberdina da, goizez, gabaz, atsaldez... honek tutorean eragin handixa daka beurakin batu nahi degunian, batzarrak etxeakuan... gizartia kanbixatzen do klaru do, eta gu moldau ein bihar gea beti.

**-Iñaki: Eta berdinak edo antzekoak izaten segitzen dute ezaugarriek?**

**-LHTEA2:** Ba bai. Azkenian, hau segun pertsona bezela zelakua zean, horretxekin do lotuta. Batzutan ikasle askokin zozenian gaitza izaten da danai bihar deuen atentziua eskaintzia. Ni neu hogeita zortzi ikaslekin ere eon izan nai gelan, legiak onartu etxen deu eta... en fin. Gure karrera ikasteko oso inportantia izaten da benetako bokaziua eukitzia, azken fiñian, gero urte pilo bat eongo zea lanian irakasle bezela da. Eguneko klaseko ordutegixaz gain, ikastolaz kanpoko lan orduak ere asko dia da. E... ordu askotxo dia, eta hortako asko balorau ere ezta etxen.

**-Iñaki: Ba bai egia da hori. Eta lehen Hezkuntzako tutoreak eginbehar asko ditu, baina, zeure ustez zeintzuk dira betebehar nabarmenenak ikasleei, familiei eta beste hezkuntza eragileei dagokionez?**

**-LHTEA2:** Ikasliekin, ba... tutoriak dakan helburu danak aurrea ateatzia, euran premiak zeintzuk dian jakinda, honetxek asetzia eta baitxa ere errespetatzia euran erritmo biologikuak... Laguntzia bai, baina beti ere ikasle bakoitzai beria eskau bihar zako, bakoitzan erritmua desberdina da eta. Adibidez, LH-ko lehenengo zikluan ikaslia urte hasieran jaixua izan edo urte amaieran jaixua izan asko igartzen da.

Gero familixekiko, ahal dan eta gehixenetan dakaten premiak bete eta ahal dan eta gehixenetan ikaslian inguruko aspektu danataz informauta eduki. Gero baitxa bilerak etxeako orduan erraztu ein, hau da, beraiek libre dakaten orduetan ipintzen saiau... mmm... eta kontuan euki biharrekua da familixa bakoitza ezberdina dala eta gai berdin bat tratatzeko eduki arren, segun zeinekin modu ezberdinetan landu bihar dala.

E... eta irakasliak ere euran zatixa daka. Tutoriak ere gure momentua eukitzegu eurakin batzeko. Honek asko laguntzeu jakitzeko beste irakasleguakin zelako jarrera dozen eukitzen eota bakoitzan garapen prozesua egokixa dan jakitzeko. Horrez gain, arazuak dozen hautematzeko balixo deu, igual nerekin gelan era batea portatzen dialako eta beste irakasle batekin beste era batea. Gero ebai e.... jarraipena etxe... azken fiñian eginbihar handixena beste irakasleguakin eotia da.

**-Iñaki: Funtzioak direla eta, irakaskuntza munduan lanean hasi zinenetik gaur egunera bitarte berdinak edo antzekoak izaten jarraitzen al dute? Zein motatako aldaketak nabarmentzen dituzu?**

**-LHTEA2:** Premiak aldau ein dia pixkat, aldatzen jua gea... mmm... aldau eta aldau. Une bakoitzian ikusi izan deunak.

**-Iñaki: Eta zetan aldatu dira?**

**-LHTEA2:** Ba adibidez, gaur egun atsaldetan ikasliantzako extraeskolar ezberdinak doz, bai zentroak erabaki zoalako eta baitxa gurasuak eskau izan deuelako. Honetan, ekintza ezberdin pilua etxen dia, ba... kirolak, tallerrak, dantzak... eta ba modu honetan, nahiz eta guztiz libria izan, ikasliak euran ekintza gustoko bat baldin bado etorri etxen dia eta ia atsalde osua hementxe pasatzen deue. Nik ustet aberasgarrixa dala bai ikasliantzako batez ere, baina baitxa gurasuantzako ebai askotan komentau izan digutelako extraeskolarreran zelako kontu politxak etxen degun eta asko gustatzen zakuela.

**-Iñaki: Ba bai, ederra da nire ustez ere. Azken batean ere familiekin harreman estua edukitzea ezinbestekoa da ez?**

**-LHTEA2:** Bai bai, hezkuntzan eta zer esanik ez LH-n, tutoriak familixekin harremana estua eukitzia ederra da. Hola, beurakin semian inguruko informazio gehixo partekatzeko aukeria eoten da... mmm... baina nik neuk adibidez ikustetena da gaur egungo guraso askok teorixan eo metodologixan inguruan asko dakitxela o ematen deula asko dakitxela, baina gero teorixa hau praktika gutxi eramaten deuela iruditzen zat... A ta hori bai... irakasliai beti

gehixoa da gehixoa exijitsu eta askok gero eurak ize ein ez, ta honek eztaka zentzuik, baina bueno...

**-Iñaki: Tutore bezala, zeintzuk dira gehien jorratzen dituzun alderdiak (akademikoaz aparte, elkarbizitza, autonomia, errespetua eta abar) ikastaldearen gupen integralean?**

**-LHTEA2:** Adin honetan gehixen bat autonomixa, baloriak eta modu zeharkako baten hezkidetzta jorratzen saiatzen nahi, gero baitxa beste alderdi asko baina igual ola a bote pronto esanda, horretxek izango zian gehixen lantzen ditzutenak. Azkenian, tutorian helburua ikasliak formatzia da, bai akademikoki baina baitxa ere pertsonia ere hezi ein bihar degu. Adibidez, sasoi baten inportantzia dana akademikuai ematen zakon eta izez alderdi pertsonalari... eo baitxa ere lehen ikasle danak gela berdinean bazozen zaku berdin baten sartzen giñun eozein izanda ere euran ezaugarrixak, ta hau gaur egun, zorionez, ezinezkua da... Aber baina egixa da ebai momentu batzutan... nik bai ematen diot pixkat inportantzia gehixoa beti akademikuai... eztakitx e igual inkostientemente... baina bai...

**-Iñaki: Hori da, eta tutoretza jorratzean, curriculumak zer nolako garrantzia hartzen du zure eginbeharretan?**

**-LHTEA2:** Ia garrantzia hartzen doan nire eginbiharretan? E... ba... legiak eskatzen doana bakarrik... Liburuetan konkretauta dator. Ta ba, zeoze espeziata etxeakuan beiratsen deu, bestela askoik ez, liburuetan etortzen dian editorialetan, kurtso bakoitzian landu bihar dian edukixak eta helburuak zehaztuta eukitzen deue. Hala eta guztiz ere, irakasle batek nahiz eta curriculuma sarritxan ez beidau, konstiente zea aspektu batzuk betetzen dezula eo ez, adibidez ikasleak norpean automonixa lantzia.

**-Iñaki: Zuen zentroak EAE-ko curriculuma analizatu eta moldaketak egiten ditu?**

**-LHTEA2:** Bai hori da, segun zein dan testuingurua zentruak curriculuma analizatu eta moldatu etxen da. Behin hau einda tutoriai informau eta ondoren guk hau gelan jorratzen degu.... Baina egixa da noizian behin bakarrik etxen deula gelara moldaketia, askotan ez deu etxen.

**-Iñaki: Eta curriculumarekin jarraituz, tutoretzaren funtzioei dagokionez, azken urte hauetan izan diren aldaketetatik, zeintzuk azpimarratuko zenituzke?**

**-LHTEA2:** Ba Unitate Didaktikuak egiterako orduan aldaketak eon dian ikusten ditzugu. Eta ba horren arabera, jakinan gainian hartzen deu zer dan aldau bihar dana eta zer dan ondo dauana mantentzeko. Baina egixa esan, oain momentuan ez nai akordatzen zer dan nabarmenduko noana. E... ba... oaintxe momentuan eztakitx.

**-Iñaki: Eta tutoretza ekintzari helduz, zure gelan tutoretza lantzerakoan, pentsatsen dut batzuetan taldeko tutoretza egingo duzula, baina beste batzuetan bakarkakoa ezta? Bakarkakoa pentsatsen dut ikasle bakoitzaren beharrei erantzutea errazagoa dela, baina talde osoko tutoretzaren bidez lan egiterakoan, nola egiten duzu norbanako bakoitzaren beharrak erantzuteko?**

**-LHTEA2:** Bakoitzan biharrak erantzuteko? Bai bai tutoretza bakarka etxen dezunian errezaua da ikasliak ditzun biharri erantzutia... e... momentu honetan zu eta bea zozte eta orduan honek bere gauzak konfiantza gehixuan kontatzen dizu, e... sintzeruo da eta bere burutik pasatzen dana esateu eta igual taldian gehixo kortatzen dia... Eta... ba taldeko tutoretzan ba beti saiau izaten nai lantzen ari gean kontuan inguruan atento eoten, hau da, euran erreakziuak ikusten, orduan horren arabera ikustet ia interesatzen zakon ikasle bakoitzai ematen gozena o ez... parte-hartzia ezin bestekua da.... gero galdera indibidualak etxen dixuet... azken batian ere taldeko tutoretza honetan nire helburua ikasle danan ezaugarriak kontuan hartzen saiatzen nai eta horretako klabia da zer ematen dezun eta zela...

**-Iñaki: Ba bai, baina... zer ematen dezun eta nola? Zer nahi duzu esan horrekin?**

**-LHTEA2:** Aber ba... LH-ko garaixian, ikasle danak mas o menos interes, arazo... berdinak izaten deu orduan zer ematen ezat izaten holako gaitza erez, eta gero ba zela eman... ba hor bai hartzet ikaslian ezaugarriak kontutan, zeba batei igual expresatzia pintxuran bitxartez gustatzen zako, beste batei igual hitz einez, beste batei antzerkixak einda... orduan hau da juten naiena aldatzen danan beharrak erantzuteko kurtso osuan zihar... ta gero aurten justo ikasle bat entzumen urritxasunakin dakat gelan eta nahi ala ez beti honekin gehixo zoz pendiente...

**-Iñaki: Zure ustez, gaur egun tutoretza-ekintzaren edo tutoretzaren arduraduna soilik tutorea al da? Eta orain dela urte batzuk?**

**-LHTEA2:** Eztakitx bakarrik. Aber, izatez zuria da arduria, baina ikasliakin tratua dakan beste pertsona danena ere bada. Egixa da, ikasliak normalian tutoriai kaso gehixo etxen diotela, ba adibidez, klase orduak eztianian eta umiak jolasten dozenian, tutoriak zerbaitx esan o beste irakasle batek ezta berdina izaten, tutoriai kaso gehixo etxen dixue. Azkenian, zu zea gela horren irakaslia.

**-Iñaki: Eta orain dela urte batzuk horrela zen?**

**-LHTEA2:** Bai bai, oain dala urte batzuk eta gaur egun berdina izaten segitzeu nire ustez...

**-Iñaki: Tutoretza egoki aurrera eramateko ikasle talde berdinetik igarotzen diren hezkuntza eragile guztiak, alegia, irakasleak, espezialistak, familiak, komunitateko partaideak eta abar, inplikatzan al dira? Eragile bakoitzaren inplikazioa zer nolakoa da?**

**-LHTEA2:** Bai bai, espezialistak eta irakasliak beuran iritzixak ematen eta ikusten deuen eta apuntatzen deuen danataz informatzen ditxe. Ikasliak batzutan segun zein dan irakaslia aurrian dakatena modu ezberdin baten konpontzeko joeria daka. Azken fiñian, bestiak dakaten iritzixak jakitzia ezinbestekua da, norpeak ere gauzak modu batea ikusten deunez, honek aukeria emateu gauzak beste modu batea ikusteko. Neretzat euran iritzixa jakitzia oso garrantzitsua da.



**-Iñaki: Orduan zure ustez, gaur egun gelatik pasatzen diren irakasleek eta espezialistek duten inplikazioa handiagoa da?**

**-LHTEA2:** Keba, betidanik eon dia inplikauta. Ikastetxia zentro bat da. Ezta izaten enplan... nik musika eman eta etxera noa. Sartzan zein gelako ikaslian arduria dakate danak, tutoria izatia bezela, ez irakasle o espezialista bat izan eta listo. Honek ebai, tutoriak bezela, ikasliai kalitatezkua dan hezkuntza bat eskaini bihar dixue.

**-Iñaki: Bai, eta ikasleen familiakoak inplikatzan dira tutoretzatan?**

**-LHTEA2:** Ikaslian familixakuak gaur egunian euran seme-alabekin bakarrik arduratzen dia eta ez dia ohartzen ikasgelan ikasle gehixo ere badozela. Beste, mmm... hogeita bat ikasle ere badoz gelan.... Nik ustet, ahal izaten deuen gurasuak inplikatzan diala, azkenian eurak ere lan askotxo eukitzen deue eta dakaten ordutegixak ere askotan ezta oso flexibliak ere. Baina hori bai, noizbaitxen eskatzen bada laguntzia zeozer etxeko, ba... jaialdi bat preparatzen laguntzeko o disfrazak etxen laguntzeko eo... guraso batzun laguntzia beti eoten da.

**-Iñaki: Aipaturiko hezkuntza eragileen inplikazioa, orain dela urte batzuetakoa eta egungoa desberdina edo berbera dela iruditzen zaizu? Desberdina bada, zein alderditan nabaritu duzu? Ikastetxean bertan, beste bideren bat edo aukeraren bat ireki al da tutoretzan parte hartu al izateko?**

**-LHTEA2:** Nik neuk esango nuan baetz. Orain egixa da elkarrekin komunikatzeko modua aldau ein dala. E... oain ordenadorian korreo bidez komunikatzen gea papelak bialdu biharrian. Komunikazio sistema hau erabiltzeko, kurtsua hasi aurretik guraso bakoitzan telefono numeruak eta euran korreuan helbidiak jasotzen ditzugu, orduan gero eoz momentutan eurakin kontaktuan jartzia oso erraza izaten da... Gainea gaur egun lehen ez bezela, bilera bat gurasuakin etxeako orduan denboriakin abisau bihar zakue noiz eta ze ordutan izango dan eurak ere errazo organizatzeko. Eske gaur egun ya danak etxen deue lana da.

**-Iñaki: Zeure ikasleen gelatik igarotzen diren beste irakasleria eta espezialista orokin eraginkor koordinatzeko eta denon eginbeharra (ikaslearen garapen integrala erraztea; ikasle bakoitzaren ezaugarri guztiak errespetatu eta kontuan hartzea) arrakastatsua izateko, zer da egiten duzuen? Eta orain dela urte batzuk?**

**-LHTEA2:** Ba bueno, beti, bilerak, askotan izaten deu bilerak. Ta gero ere talde ezberdinetan batzen gea ebai. Egixa esan askototan batu izaten gea hizketan etxeko. Bilera honek goitxik hasi eta beherutz juten gea. E... klaustua, etapia, ziklua eta edade berdineko gela ezberdinetako tutoriak.

**-Iñaki: Ta irakasleria noiz elkartzen zarete?**

**-LHTEA2:** Hiru hilabetian behin elkartzen gea klaustua eukitzeko. Baina bai, zeoze inportantia pasau bada edo fetxa inportante bat gerturatzen bado gehixotan batu izaten gea

ebai. Eta ba... igual... norpean mailakuakin beti eukitzen dezu egun jakin batzuk zehaztuta geatzeko eta programaziua organizatzeko, gu geu adibidez astearte eta asteazkenetan batzen gea. Askotxotan elkartzen gea etapakuak ere, hilabetian bi aldiz gutxienez bai. E... azken batian koordinaziua da ezinbestekua danak ondo funtzionatzeko.

**-Iñaki: Ta gurasuakin noiz elkartzen zarete?**

**-LHTEA2:** E... gurasuakin hilabete amaieraro, asteazkenetan normalian, gurasuakin elkartzen gea. Egun horretan gustatzen zaguna da, gela bakoitzeko tutoreak, guraso danakin bilera orokor bat etxia eta azaltzia hilabete horretan zihar ikasgelan zer ein degun, azkenian eurak ere informauta eoteko euran seme-alabak zer dozen ikasten. Honek egixa esan guraso askoi lasaitxasuna ematen dixue. E... eta gero ba aparte guraso bakoitzakin bilera indibidualak izaten ditxugu gutxi gora behera hilabete eta erdiro behin eo izateia.

**-Iñaki:Eta hau alde batea utzita, tutoretza-planari dagokionez, irakaskuntzan hasi zinenetik gaur egunera plana berdin eratzen da? Desberdina bada, zeintzuk dira nabaritu dituzun aldaketa?**

**-LHTEA2:** Nik ustet baetz. Tutoretza-planan itxurako bat taldeka osau giñun eta aurreo danak batu giñun. E... talde bakoitzian etapako irakasle bat eoten da eta gero beak geuri komentatzen digu bertan hitz ein dan dana. Gero, guk proposatzen ditxugun moldaketak berriz gora eramaten dia... esan ahal da, txosten estiloko bat dola eta bertan azaltzen dala tutoretza zela eraman bihar dan aurrea...mmm... tutoretza-plana plana ezta... eta denbora jakin bat pasatzen danian, ba bi eo hiru urte eo, txostena hartu eta analizau etxen da baloratzeko ia aldaketaik ein bihar dan o ez. E... nire ustez, tutoretza ondo antolauta eta sistematizauta eotiak asko balixo deu, azken fiñian, hola tutore danak dakixe zela duan eta danak bide berdiñetik segitzen deue. Eta ba... une bakoitzian zer dan landu biharrekua, zer ein bihar dan, bilera motak... Gero baitxa zeintzuk dian hobekuntzak hurrengo urteko kurtsoa beida inportantiak dia, beti jun bihar gea hobetzen eta.

**-Iñaki: Ikastolan tutoretza-plana aurrera eramatea garrantzitsua dela iruditzen zaizu? Zer dela eta?**

**-LHTEA2:** Bai bai, gure ikastolan dana do prozesatuta. Egunerokoa, ikasliakin zer landu jakitzeko. Azken batian, lenuotik dana organizauta eta preparauta eduki bihar da, ezin da gela jun ideaik eduki gabe zer dan landuko dezuna klase horretan zihar.

**-Iñaki: Ba bai, arrazoi osoa duzu. Bueno ba honekin amaitu dugu elkarrizketa. Zuk beste zerbait esan nahi duzu?**

**-LHTEA2:** Ez ez, gustora ibili gea hizketan.

**-Iñaki: Bai bai, ederki. Ba eskerrik asko zure erantzunengatik.**

**-LHTEA2:** Bai ezta ize. Zeoze nahibazu beste noizbaitx abisau ein.